


AITA PATXI



IBAIZABAL

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso dau.

*Liburu bonen edozelango berregintza osoa nabiz partziala galazota dago,
lehenago copyrightaren jabearen idatzizko baimena eskuratzen ez bada,
iturria adierazota egiten diran atipamenak kenduta.*

Egilea: A. Martzel Andrinua
Koordinatzaileak: Julia Alberdi
Sabin Gorrotxategi
Maketazioa: Julia Alberdi
Liburuaren azaleko diseinua: Juan Carlos Landa
Liburuaren azaleko marrazkia: Juan Sanchez
Liburuaren barneko diseinua: Ibaizabal argitaletxea
Fotomekanika: Croman
Tailer grafikoak: R.G.M.

© Ibaizabal argitaletxea, 48290 Euba-Amorebieta (Bizkaia)
ISBN: 84-8325-382-8
Legezko gordailua: BI-1826-00

AITA PATXI

Egilea:
A. Martzel Andrinua

norabide bilduma



ZURE PAUSOAK JARRAITU DAIZALA

Gure artean noiznahi sortzen da
ez dala eta badala,
eta egiaz jabetzen dira
dirua ta astrapala.

Baina honetan danok bat-gatoz:
"Aita Patxi santu zala".

Gu biok ondo konpontzen ginan
anai ta lagun bezala,
zure alde gaur esan gura dot
zerbait nola edo hala:
Jainkoarekin leiala,
urkoarekin zabala;
zuri atzera eragiteko
ez zan nahiko bonba-bala,
dudarik bada, zure pausoak
zehatz jarraitu daizala!

Goratu daigun Jaungoiko Santua

Sarri aurkitu izan naz eginbehar astunen aurrean. Gogo berotu, ahal diran baliabideak eskuratu eta jo ta ke lanari ekin. Ez neban uste gaur hasten dodan "Aita Patxi" hain neketsua izango zitzaidanik. Dana dala, eta bestetako jokabideaz baliatuz, ekin deusat lanari. Dana dalako norbait, bere izatearen alderdi on guztiak barruan dirala, paper orri batzuetan batu eta argitara emotea, neurritz gaineko ameskeri bat dirudi. Halan eta guztiz ere, eta Patxik berak lagunduta, Jaunak beragan eta bere bitartez egin dituan miragarri banaka bat eskeinduten ahalegindu naitzu. Horretarako bera ezagutu dogunok ikusi eta entzun doguna izan dot argibide eta informazio-iturri. Joan-etorri horreetatik asko, neuk neure begiz ikusi eta belarriz entzundakoak dituzu; hainbeste urtez Bizkaiko herrietan misiolari ibilia naz, batzuetan Aita Patxi bera lagun nebala. Eta beste asko, beragaz hartuemon zuzen biziak izan ebezanen testigantzak. Horrez gainera A. J. Inazio Lopategi Pasiotarrak 1978 eta 1981. urtean argitaratu ebazan liburuak izan dodaz lagungarririk oparoenak: "Aita Patxi - Testimonio". Zehaztasun eta barri gehiago euki nahi dauanak hor daukaz esku-eskura Deustuko San Pelitzisimoko Pasiotarren Etxean.

Artelan baten aurrean jartzen dan bakoitzak bere alderdi onak ikusten eta azpimarkatzen ditu; are gehiago, Espirituaren artelana dan gizon-emakume santu baten aurrean. Nire asmoa ez da izan Aita Patxiri buruz ahal diranik eta harrigarrienak eta ugarienak agertzea. Beste hau izan dot helburu: bere bizitzara begirada maitekor bat luzatuz, eta gaurko kristauontzat mesedegarri daiteken irakurketa bat eginaz, Aita Patxi zeuri eskeintzea, irakurle. Bai ba, neure ustez eta gogoz, santuak gure bide erakusle dira, eta Jaunari eta Eleizeari egin daikeoen mesederik haundiena hauxe da: aldian aldiko eleiz-giroan argi eta lagun izatea. Gainera, Aita Patxi hur-hurretik ezagutu eben gehienak gaixoak, zaharrak eta herriko jente xehea izan zan. Eurak izan dodaz, batez ere, gogoan eta ahaleginez eurak ulertzeko mailan jarri naz idazterakoan.

Aita Patxirengan ikusiak ikusita, gure lehenengo zeregina Jainkoa goratzea da, beragan hain eskuzabal eta maitagarri agertu dalako. Eta bigarren, Jaunari esker beroak emon, halako errukizko egintzak gauzatu ditualako. Aita Patxik berak ere argi eukan hau: "Ni neu pekatari haundi bat naz, baina Jaunaren errukia nigan haundiagoa izan da".

Ikusten dozunez, han-hor-hemenka bertso batzuk tartekatzen dodaz. Danak dira neurri bardinekoak, nahi izan ezkeru, zeuk abestu daizuzan; bertso-doinu ezagunenak ere hor ezarri deusudaz. Aita Patxiren bizitza kontatuz gainera, berari eskari batzuk eginaz eta bere barru-giroa norberaganatu nahiz.

Holakoetan sarri jo ohi dogu santuengan gauza arraroak, xeblekeriak, azpimarkatzerak, bizimodu arruntatik kanpo dagozan gauzetara joz. Noiz edo behin danok agertzen gara "santu"; egunero eta urte askoren buruan zuzen eta zintzo jokatzea ez al da miraririk ederrena, baliagarriena? Gainera, harrigarrietan geldituz, geu geratzen gara jokoz kanpo: "Guk holakorik ezin dogu egin", esanda. Aita Patxik badauka, bai, guretzat zer erakutsirik geuk egunero egiten ditugunetan, nahi badogu behintzat! Izan ere, santuak horretarako dira: Jesusen jarraibidean gure gidari eta gogoberogarri izateko.

Santuak dira Jaunak Eleizeari emondako erregaluri baliotsuenak. Euren bitartez agertzen jaku Jauna gure ongile, eurak dira Eleiz-bizitza garbitu eta sendotuten dabenak. Santuak, egia esan, ez dira molde bardinean eratuak; Espiritu Santuak aberastuten dau bakoitza bere dohaiez eta landuten dau munduaren zerbitzurako behar dan eran. Aita Patxi gizon zehatz eta ziuerra da, haize eta moda askotara moldagatxa. Askoren ustez, santuak beti gora begira eta munduko martxatik aparte bizi izan dira. Aita Patxi behintzat ez, munduko martxan ondo sartuta bizi izan zan; mugikor eta ibiltari nekazina, Nazareteko Jesusen antzera, jateko asti barik sarritan.

Bere apostolutzan ere berarizko aukera egin eta bete eban: *Gaixo, zahar eta alden duen apostolu* izena bete-betean letorkio. Nire eskuarteko eginkizun hau ere euren zerbitzu eta laguntzarako moldatu nahi neuke, berak esan eban lez, zeruan ere lanbide bardinean jarraitu nahi dau eta. Hauxe litzake nire zirborro hau moldatzeko lan neketsuaren sari ederrena: Jainkoa gure artean gaur ere badiharduala lanean agertzea; bere erakutsiak jasoz, geu ere, bere antzera, Jesusen jarraipenean gogoberotzea; eta Aita Patxiren irudiak, bera hilda 25 urtera, gure artean bizirik eta eragile jarraitzen dauala erakustea.

Euban, 2000ko Jubileu Haundian
A. P. hil zaneko 25. urtemugan
Egileak





Euskaldun eta fededun anai-arrebok!

Ni Aita Patxi naz, pasiotarra. Liburu honen bidez nire joan-etorriak ezagutzeko asmoz natorkizu. Jakizu, nik neuri suertatu jatan lekuan eta neukazan dohaien neurrian jokatu neban Jesusen jarrai. Nik neure erara eta neure sasoiari emon neutsan erantzuna. Hor doakizuz nire ametsak, ahaleginak eta ezinak. Jauna errukitsu izan da niaz, eta orain zeruan ere zuen alde ahal dodan guztia egiteko aukerea emon deust. Ez izan bildur! Emon baietza eta ekin azkenera arte. Ni behintzat ez naz damu. Ni neure bidetik eta zu zeuretik, biok Jesusen atzetik, zorionleku bardingabe honetan alkartuko al gara. Hau irakurri-ahala gogoan izango zaitut Jaunaren aurrean. Agur, Jaunak nahi dauan arte!

Aita Patxi M. Kelditsera

Aita Patxiak idazkiak sinatzerakoan erabilten eban idazkerea.

Nik santu izan nahi dot



Arrieta, A. Patxiren jaioterriko parroki eleizea.

..... Sarrera

Santua ez da kolpean egiten dana, kolpeka baino; harritzar batetik jo ta jo santu-irudia ateraten dan antzera. Lehenengo atal honetan Aita Patxiren bizi-oinarriak aztertuko doguz: jaiio, hazi eta hezi izan zan unea eta bidea. Tantai haundiak sustrai sakon sendoak behar ditu; zenbat eta burua gorago, orduan eta sustraiak beherago. Sustraiak ez dira ikusten, baina ikusten dan tantaiak erakusten dau sustraien barri, bere edertasunez eta frutuz. Aita Patxi ondo astindu eta aztertua izan zan mila eratako haize boladaz; baina zutik iraun bakarrik ez, halako frutu ederrak emon ebazan. Haziaz hezi, eta heziaz hazi, biak batera biziz, beragandu eban giza-tantai baten sendotasuna hasierako urteetan. Gure santua ez zan berez santu izan; santu izatea erabagi, jokatu eta irabazi egin eban; etenbako burrukea izan zan, Jaunaren deiari eta graziari erantzunez. 1910tik 1974ra izan zan bere bizi-garai eta giroa. Euskal Herriak eta bertako Eleizeak lur-itsas eta zeru-ikarak jasan ebazan bitarte horretan. Benetan ikaragarria izan zan! Abagune aproposa, gizaseme honen bizi-oinarriak hondarrean ala harkaitzean ezarrita egozan aztertzeke. Bere lagun batek dinoanez: "Platika gitxiko eta praktika haundiko gizona izan dogu". Bere bizitzako 64 urteak Euskal Herriko muga barruan emon ebazan, Frantziako Montaigu (La Vendée-France) herrian igarotako urte biak eta Kastillerrian prisioneru emondako beste biak izan ezik. Lehenengotatik agertu nahi deusudana zera da: Nik neuk ere Aita Patxi sakon ezagutu nebala: 14 urteko nintzala, Gabiriako ikastetxean ezagutu neban lehenengoz irakasle lez; geroago Angostoko Nobiziaduan maisuorde; geroago Deustuko komentuan bizilagun; eta azkenik herriz herri misiolaritzan alkarlanean. Baina batez ere, sarri eta luzaroan alkar-autorle izanik. Orbegoikoan pol-pol sortu zan errekastoa, hainbeste zeharka-meharka egin ondoren, Bilbon betiko itsasoratu zan, erreka haundi eginda. Goazen pausoz pauso bere atzetik.

Orbegoikoan ume bat jaio da

Libo-Arrieta Mungialdeko herri txiki polit bat dozu, Sollube mendi ertzean eskegita dagoan txori habia dirudi. Lurrez aldapatsua izan arren, orduan ia danak baserritik bizi ziran. 1966. urtean 475 bizilagun eukazan.

Bederatzi seme-alaba —4 mutiko eta 5 neskato— sortu ebezan Orbegoiko baserriko senar-emazteak: Buenabentura Gondrak (auzotarrentzat Bentur) eta Benita Muruagak. Euren artean seme bi, Biktoriano (geroko Aita Patxi) eta Eusebio pasiotar erlijioso egin ziran. Biktoriano umetxoia 1910. urteko martiaren 5ean jaio zan; bateatu biharamonean eta 1915. urtean sendotza emon eutsoen. Bere bizitzan zehar urtero gogoratu eta ospatu ohi ebazan egun seinlatu bi honeek, otoitz giroan Jaunari eskerrak emonaz. Behin baino gehiagotan, jaioterrira joianetan, bateo harriari munak eta besarkadak emon ohi eutsazan.

Bere auzotarrak eta eskolagunak dinoenez, Biktoriano zaparroa bihurri samarra zan, trastoa. Kuadrilan oilasko egitea gogoko jakon. Lagun batek dino: “Burrukazalea zan. Sarri egin behar izaten genduan alkar-muturka. Ni bera baino haundiago nintzanez, laster menderatzen neban. Orduan berak burlaka eta sarnasto deika baten hanka egiten eban” (nik Ernesto daukat izena). Hori bai, baina Biktoriano bera zan lagunarteko saltsa eta pipermina: eragina eta erreiz parkatzekoa eta lagun egitekoa. Meza laguntzaile fina zan; egunero goizean goizetik han agertuko zan eleiz inguruan zoli-zoli. Orbegoiko baserria bera zan eskolea eta eleizea. Halako “kristau abade” jainkozale bi ziran bere gurasoak! Zelan ez bedeinkatu Jainkoak eskuzabalez horrelako sendi ugari eta ondo heziak? Hamaika horrelako izan da Euskalerriko baserri aldean! Gernikako Arboleak baizen frutu eder gozoa zabaldu dau mundu zabalera. Izan ere, Euskalerria munduan hain ezaguna eta maitatua bada, asko ere asko zor jake bertako praile-monja misiolariei.

Holako trasto batek prailetzarako bokazinoa? Eta zergaitik ez? Oilo epela baino bestelakoa, pixka bat hezi ezker... Euskalerriko baserrietan ohi danez, familia ugariak izaten ziran; eta eguneko beharretik bizi beharrekoak, gainera. Halan eta guztiz ere, baserri gehienak etxe-eleiza bihurtzen ziran, bertako kristau eta otoitz giro gozoen bidez. Bertan ikasten ebezan errezuak, kristau dotrina osoa buruz, ohitura garbiak eta eleizbidea, gurasoak lehenengo zirala.

*Sarri gogora bizitzan:
zer izan zinan jaiotzan,
eta zer izango beriotzan.*

BASERRI-MUTILA

1

Zu, Aita Patxi, nor izan zinan
nahi neuke hemen agertu,
esan-ahalak esanda ere
ezin ezelan aspertu.
Zeuk esana da, zeruan ere
egongo zarala gertu,
lagun eidazu zure egia
ez daidala neuk okertu
eta zutaz nik esandakoa
zuzen daiela ulertu.

2

Bizkai aldeko baserri baten
agertu zinan mundura
Belengo koba estalpetxoan
Jesus jaio zan modura.
Umil ta pobre jaio beharra,
horrek zer deutsa ardura?
Kontua hau da: nor zelan heldu
zu heldu zinan lekura;
txiki jaio ta bizi diranak
sartzen ei dira zerura.

3

Arrietako Orbegoikoan
baserri landalorea,
txikia baina usain gozodun
santulore dotorea.
Hor bederatzi seme-alaba
bedeinkapen ondorea,
Jaungoikoaren ta gurasoen
maitasunezko orea,
zugaitik, Patxi, Jaunari aintza
ta gurasoei ohorea.

4

Gure artean izan ditugu
euskaldun haundiak hainbat,
euren artean goralgarria,
Aita Patxi, zeu zara bat.
On izan eta on egitea
ez al dogu hartzen aintzat?
Orbegoikoan jaiotakoa
gaur hartzen dogu santutzat;
koroï eder bat merezi dozu,
nik halan uste dot behintzat.



Aita Patxiren jaiotetxea: Orbegoikoa.

「Buenaventura eta Benita」

Buenaventura Gondra (Bentur auzotarrentzat) eta Benita Muruaga izan ziran Biktorianoren gurasoak. Baserritarrak ziran eta baserritik bizi; ondasunez ez ziran beherengo mailakoak ere. Baina ondasunez baino ontasunez aberatsago eta ezagunagoak ziran. Kristau bizitzan zintzoak eta sutsoak: “Onenen artean onentsuenak”, auzotarren esanez. Bentur aita entzutekoa izaten zan eguerdiko *Angelus* errezatzen etxean nahiz soloan; auzotarrak ere erantzuteko moduan. Batzuen ustez, eleiz gauzetan sartuegiak ziran, beharbada. Bentur ez ei eban inoiz inork tabernan ikusi. Halako errezkada ikusgarria egiten eben eleizarako bidean, domeka goiz-arratsaldetan, gurasoak buru zirala. Maiatzeko loretara ere ez eben hutsik egingo. Bentur bera izaten zan eguneroko errosarioa etxean zuzenduten ebana, eta bera ez baegoan, mutilak zuzenduten eben txandaka. Atera etozan eskekoak onartuak izaten ziran beti Orbegoiko baserrian, laguntza ederrak jasoz euren eskutik. Ama Benita ere ez daukagu ahaztuteko. Nahiko arazo leporatu jakon, baserriko lanez gainera, bederatzi seme-alaben ardurea hartuz. Etxekoandra maratza, ama arduratsua. Bera izan zan Biktorianoren joan-etorriak isilean eta maitekiro moldatzen joan zana. Biktorianok, bihurri eta guzti ere, bide zuzenetik emon ebazan umetako lehenengo pausoak halako aita-amen ondoan. Gurasoen gelan ormatik eskegita egoan *santokristo* ederra —ezkontzako arreoko gurutzea—, etxeke eleizatxoaren gunerik sakratuena zan: okerkeriren bat egiterakoan, hara bialduten ebazan amak, belauniko eta parkeske, alkarren artean bakezkoak egiteko; baita bizitzako ezbeharretan laguntza eskatzeko ere. Geroko Aita Patxik etxeke eleizatxoan ikasi ebazan, kristau bizitzan sinistu eta egin beharreko gehienak aita eta amagandik. Domeketan eta urteko jai haundietan, bazkalorduan, gurasoak gogora ekarten eutseezan eleizan entzundako erakutsirik ederrenak. Aita Patxik bizitza osoan izango ditu gogoan, bai euren erakutsiak, bai euren heriotz-egunak, eurakaitik Jaunari eskerrak emonaz eta zorionik haundiena opatuz. Lur gozo eta oneko mintegia Orbegoiko baserria, bederatzi landaratxo honeek erne eta garatzeko. Izan ere, halako gurasoak baino irakasle hobea-gorik nor eta non? Ez da harritzekoa, bederatziak ere kristau zintzoak izanik, Aita Patxi lango batez Jaunak sendi hori bedeinkatzea!

*Santua ez da santu jaiio mundura,
Jaunaren grazi eta norbere abaleginen frutu da.*



Bentur Gondra, Aita Patxiren aita.

「 Aita, ni pasionista noa 」

Erreka bakoitzak eginbehar dau itsasorainoko bidea; urak joan, danak beherantza doaz; baina bidearen hasiera, jarraipena eta amaiera bakoitzak ditu bereak. Baita gizakiak ere. Biktoriano mutikoagana etorrita, hasiera baten ez eban inondik inora praile izan nahi. Aurrea hartu eutsan anaiaren atzetik, laster bera ere praile joango zala esaten eutsoenean, berehala erantzungo eban: “Ni praile? Ez horixe!” Dinoenez, Biktoriano mutiko bixkorra eta bihurri samarra zan; eta gurasoentzat esanekoa eta lagunartean alaia. Batzuetan burrukalaria ere bai! Baina arin adiskidetzekoa zan. Txikitatik meza erasoten hasi zan parrokan. Arduraz eta ganoraz beteko eban zeregin hau hainbat urtetan egunero. Behin pasiotar misiolariak Arrietara, misino santuak emotera. Ekin eutsoen mutikoa eurakana erakarri nahirik, baina alperrik: “Ni praile? Ez horixe!” Autortzera eta jaunartzera sarri hurreratuko zan, hileko azken domeketan gitxienez, orduko ohitura zanez, gurasoekaz batera.

Noiz eta zelan jo eban pasiotar izateko harrak? Aita Patxik berak kontau eutsan geroago zehatz-mehatz Andoni Abaroa lagunminari konfiantzaz: “Arrietako eleiztarrok urtero joan ohi ginan San Inazio egunez *errogatibaz eta oinez* Gaztelugatxeko ermitara. Goizean goizetik urtetan genduan, Ama Birjinaren iruditxo bat lepoan hartuta geure erdian genduala, etenbako errezueta. Eleizako eginbeharrak egin ondoren, inguru zoragarri haretan jaten genduan etxetik eroandako maletakoa. Eta arratsaldean etxeruntz, Sollubeko Mañuko auzoan Karmengo Amari *Salvea* kantatuz. Salvearen kantatu bitartean, *O bihotz bigun, o errukior* esaterakoan, nire barru oso samurtu egin jatan eta negar anpuluak ixuri nebazan; baina pozaren pozez. Une haretan pasiotar izateko argi bizi batek jo ninduan bihotz-erdian eta promes egin neutsan Ama Birjinari: «Bai, Ama, pasiotar izango naz eta zeure zerbitzari izango nozu bizitza guztian». Handik eta heriotzara arte berarizko debozinoa izan eutsan Mañuko Amari, pasiotar izateko bokazinoa berari zor eutsala eta. Etxera orduko badinotso aitari:

— Aita, ni pasionista noa.

— Seme, Eusebio anaia ere joanbarri da, zu neuk behar zaitut etxean.

— Aita, eta joan ezta, bide txarra hartzen badot, nor izango da errudun?

Aita isildu, burua makurtu eta eskua semearen buru gainean ezarriz, erantzun eutsan:

— Bai seme, zoaz Jaungoikoaren izenean.

Eta mutikoaren poza!

*Jaungoikoak banan-banan deitu gaitu
bakoitzak egin behar entzun eta jarraitu.*

1

Askotariko prailen artean
batzuek *Pasiotarrak*,
orain aspaldi sortu ebazan
San Paulo italiarrak.
Zorionean Deustu aldean
bota ebezan sustarrak,
handik gerora zenbat zor deutsen
gure Euskalerra zaharrak!
Ondo etorri Kalbarioko
misiolari azkarrak!

2

Ume bihurri samarra zinan,
Patxi, praile joateko,
“Ni praile joan? Ez, ez horixe!”
erantzuna bat-bateko.
Eskerrak han behin Mañuko Ama
jarri jatzun bitarteko,
orduan bai zuk bixkor erantzun
baietza bihotz beteko!
Orduko deia eta baietza
ez jatzuz inoiz ahaztuko.

3

“Aita, nik praile joan gura dot”,
eta aitak ezetz erantzun,
Mañuko Ama barriro ere
laguntzen etorri jatzun.
“Aita, okertzen banaz munduan
nor izango da errudun?”
O Aita Patxi, o aita Bentur,
bioi ze zor deutsuegun!
Zuen baietzak zer frutu eder
danontzat ekarri deuskun!

4

Bai, Aita Patxi, deika jabiltzuz
Jesus eta Andra Mari,
eta igerri orduko baietz
zuk emon euren deia.
Zeugaz batera esker beroak
Batari ta Besteari,
eta eskerrak gaur, Aita Patxi,
zure baietz haundiari!
Zure pozetan gaukazuz danok
bertso barriak kantari.



*Mañuko Karmengo Ama.
Zer begirada izan ete eben Ama-semeak euren artean?*

Praileki Gabirian

Ikusten denez, gurasoen aldetik ez zan egon bultzakada haundirik erlijioso bidea hartu egian. Sarri izaten dau aitak edo amak seme-alabaren baten aldeko bokazino-gogoa, hasieran seme-alabeak berak baino gehiago. Lehenago behinzat halan zan. Aita Patxiri deia amak egin eutsen, baina Mañuko Karmengo Amak. Aita Patxi berak emoten deusku honen barri, baietza emonda handik 50 urtera: “Ez dodala pasionista izan nahi esan neban egun eta urte berean joan nintzan aitagaz Deustura. Nire ama ohean geratu zan gaixorik. Eskerrik asko, Jauna, Andra Mariaren bitartez”.

Biktoriano pasionista izango da, eta lehenengo urtenaldia Deustura egin eban. Pasionista-bizitza hur-hur egiten jakon: Arrietan sarri ikusi ohi ebazan pasiotar misiolariak. Berak mezatan sarri lagundu eutsen. Bere anai zaharrena ere, Eusebio, joanda egoan eta behin baino gehiagotan zirikatu eban haren anai txikia.

Pasiotarrena, Gurutzeko San Paulok orain gizaldi bi sortutako kongregazinoa da. San Paulo hau Italiako Ovađan jaio zan 1649. urteko urtarrilaren 3an, eta Erroman hil zan 1775. urteko urriaren 19an. Pio IX.ak santuren artera jaso eban 1867. urtean. *Pasiotar* izena San Paulok ezarri eutsen: Jesukristoren Pasinoaren Kongregazinoa, Jesus Gurutziltzatuarenganako maitasunaren indarra herri-misionen bidez munduan zabaltzeko. Baina zabaldu aurretik, eurak pasiotarrak barru-barrutik bizi eta bere graziz eta beroz betez. San Pauloren eritziz, Jesukristoren nekaldia da biderik egokiena, bai norberak santutasun bidean gora egiteko, bai pekatariak onbideratzeko. Pasiotarren Kongregazinoak Espainian jaso eban lehenengo komentua Deustun izan zan 1885. urtean.

1922. urteko urriaren 22an sartu zan Biktoriano mutikoa, Gizpuzkoako Gabirian Pasiotarrak dauken ikastetxean. Lehenago bainuetxe izan zan, 1911. urtean pasiotarren ikastetxe apostoliku bihurtu zan 1965. urtera arte. Handik etxekoei egindako hiru eskutitz gordeten dira: erderaz idatzita. Lehenengoan dino: 55 ikaskide dirala, ia danak euskaldunak. Astean egun bitan egiten dabela cuskeraz, enparauetan erderaz. Berak euskeraz baino besterik ia ez ekian. Halan eta guztiz ere, gauzak buruz hartzen primerakoa zan. Biktorianok 4 urte egin ebazan hemen ikasi eta ikasi. Egundo inora urtenbako Biktoriano —12 urteko baserri-zaparroa— nora doanik ere ez. Beste herri askotako lagunakaz nahastean, trenez eta oinez, Gabiriako mendi artera. Eüsquera hutsean bizi izandakoa, erderaz eta latinez jo ta ke. Eskerrak lehen ere antzarren lumartean bizi izandakoa ez zana! Bere ikaskideen testigantzaz dakiguz gauza batzuk: *si* eta *no* baino askoz gehiago ez ekiala erderaz, baina ondo konponduten zala lagunartean. Lagun ona zan, bihurri samarra, baina ikasle amorratua eta beti barre egiteko prest, entzun eta ikusten ebazan xelebrekeriakaitik.

*Sendo eta zuzen hazia
luzaroko arkazia.*

1

Orbegoikotik a ze saltoa
Gipuzkuko Gabirira!
Zure negar ta kezka larriak
esatekoak ez dira.
Zure lagunen esamesa da:
“Laster egingo iok jira”,
zuk ez dakizu zer dan jartzea
damuz atzera begira.
Oi gure bizi-jarrera danak
horrelakoak balira!

2

Jenioz bizi, bihotzez garbi,
bihurria izakeraz,
beraz ez dago inor santurik
berarizko jaiokeraz.
Liburu batzuk latinez eta
gehientsuenak erderaz,
bizitzan ez da dana suertatzen
nor bakoitzaren aukeraz,
eskerrak, behintzat, Mañuko Amak
baekiala euskeraz!

3

Ze oker egin ete zenduan
nabil hau jakin gurarik,
bestetan baino haundiagoa
izango zan duda barik.
Orduan zirt-zart egin zenduan:
“Nik ez gehiago faltarik!”
Oker eginaz zuzendu zinan
ez izan horren kezkarik.
Erabagia hartu zenduan
eta ez dago bueltarik.

4

“Indar guztiaz erabagi dot
gaurtik santu izateko,
Andra Maria lagun dodala
San Gabirelen antzeko.”
Falta ta guzti, gaur, Aita Patxi,
benetan zorioneko!
Hori da hori gogo beroa
bideari jarraitzeko
eta gazterik Jesusen alde
gogor hordago joteko!



Gabiriako ikastetxea, Pasiotargaien mintegia.

「Nik santu izan nahi dot」

Gutariko bakoitzak egin behar dogu geure bidea, bai giza bizitzan eta bai fede bizitzan. Bakoitza gara geure historiaren egile. Aita Patxik ere berea egin eban. Mañuko Karmengo Amaren aurrean hartu eban erabagi sendoa pasiotar izateko; orain Gabirian, 16 urteko zala, beste erabagi sendoago bat. Bere lagunetariko batek kontatzen deusku: “Gure artean zabal ebilen Biktoriano Gondra ikaskidearen barri: agiri-agirian egin eban goitik beherako aldaketa sakona, Gabirel santuaren antzeko izan gura ebala eta. Esan eta izan: oso-osoan aldatu zan. Santu izan gura ebala esan eban”. Bere lagun baten testigantza dogu: “Gu biok lagun-lagunak ginan. Halakoren baten okerkeriren bat-edo egin eban, eta zuzendariak gogortxo hartu eban, antza. Behin neugana hurre-ratu eta plausta kolkoa hustu eustan: «Aita Zuzendariari berbea emon deusat, nik ez deusadala hasarrebiderik gehiago emongo, santu izateko erabagi sendoa hartu dot eta»”.

Itxura danez, Jaunaren argi bizi batek ikutu eban bihotz-hondoan, Mañuko Amaren aurrean hartutakoa osotuz. Dakiguna hauxe da: Bere jokabidea eta portaera guztiz aldatu zirala. Harritzekoa, hain gazte izanik, halako erabagi bat hartzea! Santuen bizitzan izan dira euren gorabidea markatu daben egun eta seinaleak. Santutasuna helduz-helduz doan frutua da. Santu izateko erabagia hartzea da bat, eta erabagi horrerik egunero hainbeste urtetan erantzutea beste kontu bat. *Eguneko santuak asko dira, egunerokoak dira urri.* Ardura haundiz eutsi ezik, errezena lehengora bihurtzea da. Handik aurrera haren gurutzebidea egin beharra, haren Mariaganako joera beroa! Bere ikaskideak harrituta begiratuten eutsoen, *konbertsinoa* izan ebala autortuz. Jaungoikoak argi biziz bete eban eta gauza guztiak beste era batera ikusten eta egiten hasi zan. Begi-bihotzetan beti aurrean eukan santu eredu maitagarria, Ama Atsekabetuaren Gabirel pasiotar santua izan zan. 16 urtegar jarri eban bihotz-motorra ehuneko abiadan eta halan iraun eban, gerotik gerora gorantz eginaz. Bere irakasle, zuzendari eta lagun, danak jarduten eben sarri Biktoriano Gondrari buruz: “Ez ete da gehiegizko konpromisoa hain gazterik hartzeko?” Eta aho batez inoen: “Hau ez da ha”.

*Gizonak ekin eta Jainkoak egin:
zeuk egizu abalegin,
eta ez esan hain errez: nik ezin.*

[Angostoko baietza]

Angosto Arabako bakardade zoragarria dozu. Valdegobia haran osoko zaindaria dan Andra Mariaren babespean: Angostoko Ama Birjina. Aita Pasiotarrak 1885. urtean jaso eben bertan komentua. Sute zital batek hondatu eban dana 1889. urtean. Baina hurrengo urterako jasota egoan barrero, inguruko jende zintzoaren laguntasunari esker. 1905. urtera arte gazteen filosofia eta teologiako ikastetxe izan zan. Handik aurrera euskal Probintziako Nobiziadu-etxe bihurtu zan. 72. urtetik gora eragin haundiko gogartetxe dogu eta bere ondoko baserri-etxea, geroago aterpetxe erara moldatu zan, batez ere gaztediaren zerbitzurako. Izenak berak adierazoten dauanez, mendiarte estu luze bat da, *Homecillo* deritxon errekatxo batek zeharkatzen dauala goitik behera.

Gabirian lau urteko ikastaldia amaitu ondoren, gure gazteak Angostoko nobiziadu-urtea hasi eban. Aita Patxik bizitza osoan izango eban gogoan Angostoko egun eta egotaldi zoragarri hau. Halan dinosku bere Egunerokoan handik 30 urtera: "Gaur dira 35 urte Angostora joan ginala, Jantzi Santua hartzera. Hau poza!" Biharamonean maisuordeak etxea erakutsi eutsen. Abuztuaren 24tik irailaren 7ra gogojardunak egin ebezan prailegai gazteok; eta irailaren 7an, Angostoko Amaren jai bezperan jantzi eben Pasiotarren Jantzi Santua eta bateoko izena aldatu. Ezaugarri bion esanahia zera da: bizitza osoa aldatzen ebela, Jesusi jarraitzearren. Biktorianok *Francisco de la Pasión* aukerau eban beretzat: geroago *Aita Patxi* izenez ezagunago izango bada ere. Jantzi Santua, benetan santutzat hartu eta erabili eban bere bizitza osoan; baita gudariekaz baztarrik baztar ebilela ere. Aita Alberto eta Zeferino izan ziran bere maisu zuzendari. Gure gazteari betiko gelditu jakozan bihotzean josita euren erakutsiak: "Jauna, Mariaren bitartez, emoidazu Aita Zeferinoren sendotasuna, bere antzeko pasiotar zintzoa izan nadin eta berak ere otoi egin daiala nire alde, horixe lortu ahal daidan". Aita Zeferinok ere baekuan zer esana Patxi gazteari buruz: "Frantzisko Gondra nobizio gazteak baditu ekintza eta jarrera harrigarriak, Gabirel santuarenak baino ere goragokoak". Nobiziaduko urteak betiko markatuta itzi eban Aita Patxi: otoitz, ohitura, jantzi, izakera etabar. Bere nobiziadukide izan zan Aita Balendin Mendibek zerbait argitzen deusku. Hona bere testigantza atal batzuk: "Komunitate-bizitzako martxan zehatzena eta lehenengoa beti izaten zan bera, hantxe hasi zan begiak beti lurrean erabilten, gure arteko zerbitzioetan beti izan zan partekide, orduko giroan ohituten ziran penitentzi eta ekanduak zehatz betez". Harritzekoa zera da: gehienbaten kordel estua nasaitzerakoan, bakoitzak hartzen dituala bere neurriak, sarritan lehengora bihurtuz. Baina Aita Patxik, Angoston emon eban baietzaren barruan sartu eban dan-dana: "Nik modu honetako bizimoduari emon neutsan baietza; aldatzea huts egitea da". Geroago Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorengo aldaketetan sufrimenturik nahiko jasan eban, hori dala eta. Heldu jakon *baietzaren eguna*: 1927. urteko irailaren 9an egin eban bizi guztiko buru-eskeintza, lau botoen bidez: Pobretasuna, menpekotasuna eta garbitasuna; eta pasiotarren berarizkoa: *Jesukristoren Nekaldia gogo-bihotzetan erabiliz, munduan bere barri emoteko botoa*. Eleizkizun eragingarria benetan Profesa eguna: Soingaineko baltza ezarten deutsoe eta paparreko ezkutua. Eta ospakizunaren ardatz lez, danak lurrean etzunda zirala, Jesukristoren Nekaldia irakurten zan; eta berbaldi baten ondoren, bakoitzak egiten ebazan bere botoak. Aita Patxik ez dau egundo ahaztuko Profesa eguna. 1966. urteko irailaren 9an idazten dau: "Gaur 39 urte pasiotar egin nintzala. Eskerrak Zuri, Aita Santu Ahalguztiduna, Atsekabeetako Amaren bitartez, dohai eder hau niri eta nire lagunei emon deuskuzulako".

*Dana itzi, dana hartzeko;
Jesusen zerbitzuan jartzeko.*

ANGOSTOKO BAIETZA

1

Hamasei urte beteak eta
gaztaroa pil-pilean,
zu aurrerago eta pozago
bidez bide ibilean.
Jesusen jarrai Kalbarioruntz
bide zuzen isilean;
pasiotarren bizimoduko
pobretasun umilean,
Maria lagun, gogo betean
sartu zinan burpilean.

2


“Biktoriano” betiko itzi
eta “Frantzisko” izena,
gure artean zu “Aita Patxi”,
euskeraz garbi zuzena.
Azal ta barru aldatu zinan
hori da hori kemena!
Bazan giroa, bazan gogoa
onez nor izan lehenena...
Lagunen ustez, zeu Aita Patxi
izan ei zinan onena.

3

Errosario santua zintzil,
pasiotar jantzi baltza,
Santokristoa ta ezkutua,
dana dirudi ametsa.
Jesus ez ziran gauza guztiei
gogoz emonaz ezetza,
sandalia ta guzti ez zagoz
eleiz-gudari traketsa!
Zein pozik entzun eban Jesusek
zure osoko baietza!

4

Adore haundiz moldatu zinan
Gabiritik Angostora,
lehendik zentozan gogotsu eta
sentitzen zinan gustora.
San Gabirelen antzeko izan
ta sarri Kalbariora;
atsekabetan penaz dagoan
Andra Mariren ondora.
Ze poz ta indar hartzen doguzan
gaur zu ekarriz gogora!



Angostoko nobiziaduetxe zaharra.

[Asko ikasi, asko maitatzeko]

Angostoko espirituzko betekadea aldean ebala, Patxi bere lagunakaz Naparroako Tafallara aldatu zan, eta han burutu eban batxileratoko bosgarren urtea 1928-1929an, filosofia 1929-1930an eta 1930-1931an teologiako lehenengo urtea hasi eban. Tafallako etxea aintxinako komentu haundi bat da, herri alboan, ortu zabal eder bat ondoan daukala, orma sendoz inguratuta, bakardadearen babesleku. Hotz-berotik gordeteko ezelango segurantza bako etxe zahar haundia; Angostoko komentua zaharra eta pobrea bazan, hau areago. Hementxe heldu jakon bere aitaren heriotzearen barri. Ikasle gazte honen bihotz-hondoa agirian agertzen jaku, amari idatzi eutsan eskutitz gozoan: "Teologiako lehenengo urtea ikasten dihardut pozez beterik eta Jaungoikoa ezagutzeko asmo biziz, gero eta gehiago maitatu eta zerbidu ahal daidan".

Patxi gazteak, Jesus Gurutzekoaren gudari trebe izateko asmotan, ikasi eta ikasi ziharduan artean, 1931 urtean Borbonetarren monarkia hankaz gora jausi zan eta Espainiako Bigarren Errepublika ezarri. Militarren diktaturapean egin ebazan Patxik bere ikasketa guztiak. Katolikuak —gehienbaten behintzat— bere alde jarri ziran. Gotzainak eurak ere gogotsu agertu ziran Diktaturaren alde, Gobernuak hainbeste ospez goralduten ebalako-edo, bai Jainkoa eta bai bere ordekoak. Baina aldikada arraro honetan Eleizea buztarripe barri baten sartu zan, trukean asko jokatu.

Bien bitartean Patxi gazteak nahiko zeregin eukan bere liburutako burrukeaz eta barru-bizitzan hartutako abiadari eusteaz. Talde txikietan bananduta egozan ikasleak. Patxi gaztearen taldekideak gogoan dauke bere zintzotasuna eta benetakotasuna. Egun barruko berba-ordu eta lekuetan beti ekarriko eban ikasketa gairen bat edo espirituzko punturen bat lagunartera, euren artean erabili eta sakontzeko; egundo ere ez susterbakorik ezer. Ikasleen kontura egozan etxeo garbiketa ardurak; Patxik bereak ahalik azkarren amaitu eta beste laguntzera joaten zan bixkor.

Kanpoko joan-etorriak urrun geratzen ziran ikasleen begietatik. Ez egunkaririk, ez irratirik, ez antzekorik. Baina komentu barruko bakardade eta isiltasunean ere sentitzen ziran politikazko sugarren txinpartak. Halan ere, ez daigun ahaztu lehendik ekarren gorabideko abiadea. Hor dago kokatuta Patxiren indar guztien helburua, bestelako txinparta eta zalaparta guztien gainetik: "Jainkoa hobeto ezagutu eta maitatzeko asmoz dihardut ikasten". Berak bere burrukea eukan egunero, eta burruka horretantxe sendotu eta prestatuko zan, geroago guda-bolada horretxek eraginda, etorriko jakon burrukarako deia.

*Lanean jarduteko
behar da ardatza;
"ikasi, maitatzeko"
Patxi hortxe datza.*

ASKO IKASI, ASKO MAITATZEKO

1

Baietz osoa emon zenduan
zorioneko eguna!
Jainkoarekin maitez sinatuz
betiko alkartasuna!
Gaztaro eder, garbi, alaia,
ha bai zoriontasuna!
Kalbarioko Ama-Semeak
ziran zure ondasuna,
eta Gabirel santua zure
gurutz-ondoko laguna.

2

Ikasi eta ikasi gogoz,
zure ikasi beharra!
Zure buruan argia gehituz
eta bihotzean garra.
Liburuetan ta otoitzean
hartu zenduan indarra:
zelan gehiago Jesus maitatu
zan zure gogo bakarra;
lagunak aho batez dinoe:
“Zirudian zerutarra”.

3

Bidean gora Jesusen jarrai
zurea bai ahalegina!
Bere Ordezko bihurtu zinan
Jesusen maitale fina.
Azkenean hor Jesusegaz bat
bere abade egina;
oi zure poza ta zoriona
hau bai azaldu ezina!
Jesus da zure Errege eta
Andra Mari Erregina.

4

Inguruetan dana zan gerra
eta negarra ugari,
baina ez zinan zu, Aita Patxi,
bildur etorkizunari.
Martiritzara joateko zain
egina zeunkan eskari.
Mezea emon barri-barritan
joan beharra gudari,
zu prest zengozan, lagun hartuta
Jesus eta Andra Mari.



Gaztelugatxeko San Joanen ermitea. Gondra-Muruaga sendia urtero joan obi zan bertara erromes.

Bene-benetan ebilen

Edozelako bizibide baten hasieran bihotz beteko *baietz biribilak* errez emoten dira, dana jokatzeko prest egon ohi da bat. Urteen joan-etorrian izaten dira kontuak; izan ere, denporea da benetakotasunaren neurririk onena. Bardin erlijioso-bizitzan ere. Zoritxarrez, giza esperientziaren argitara, gehientsuenak laster josten dabe errezenera, ingurugirora moldatuz. Honetan da Patxi gaztea harrigarria; ziurregia eta zehatzegia behar bada. *Gitxiegi* egiten dogunon hutsunea, beteko ahal dabe *gebiegi* egiten daben banaka batek.

Patxiren jokabidearen testigu bi ekarriko doguz aurrera: "Niri neuri Aita Patxiren irudia betiko geratu jat bihotz-erdian ezarrita. Hasieran emondako baietzean ez eban egundo atzera egin; beti etenbarik aurrera eta hobera. Angoston erakutsi jakuzan arau eta eginbeharrak zehatz bete ebazan bizitza osoan. Nik neuk ezin dot asmatu bide zuzenago eta hoherik izan leitekenik. Eta hortik hasi zan gure artean ere danon zerbitzari izaten, nori eta zetan lagunduko, beti zuhur begira, esku bat emoteko prest". Ez, Patxi ez egoan nork zer eta zelan egiten eban begira, berak zer egin behar eban arduraz baino. Jesus Gurutzekoari erantzuten hasi zan eta bere ederraren bila ebilen bakarrik.

Beste ikaskide batek gaineratuten deusku: "Bere hasierako berotasuna eta zintzotasuna etenbarik gorantza joan ziran. Eginbeharrak beteten oso-osokoa zan. Alkarteko otoitzaldi eta eginkizunetan beti izaten zan lehenengoa. Komunitateko zeregintxo apalenak gehienetan berarentzat hartzen ebazan". Berez bizia zanez eta barruko labea maitasunez borbor eukanez, egunaren buruan zenbat joan-etorri han-hemengo zuloak betetzen! Ganorazko berbetaren baten ez eban egundo parterik hartuko; hori barik, gure artean ohitura zanez, karidadearen aurkako auturik sartzen zanerako, Patxik buruko txanotxoa kendu eta zutunik esango eban: "Jainkoaren aurrean". Eta danak isilik eta zutunik jarrita, Jaunari parkeskatuz, beste kontu batzuetara jo behar.

*Ez da ezer txikirik Jainkoaren aurrerako
bihotza maitasunez pil-pil badago.*

Aita Patxi Frantzian

Espainia aldeko politikazko laino baltzak, tximistaz beterik, trumoi eta guzti, baztarren bildurgarri bihurtu ziran. Eleiz giroa ere garratzuten joian. Pasiotarren Nagusiak Frantziako Pasiotar Arduradun Nagusiekin hartuemonean jarri ziran, ikasle gazteen arduraz. Halan, 1931. urteko urriaren 14an Tafallatik Frantziako Montaigun Poiton departamentuan, Vendée aldean euken komentura aldatu ziran. Hemen nazino askotako ikasleak batu ziran, frantzesak ikasiz batera, teologiako ikastetak amaitzera. Eta hemen eta han Patxi beti Patxi. Egunpasa ibiltera joiazala? Patxiren lepora pardelik astunenak. Bazkaria prestau eta zerbidu behar zala? Patxi lehenengo lekuan, besterik ezcan patatak zuritzen. Jan ondoren platerak batu eta garbitu behar zirala? Han hasiko zan Patxi jo ta ke, bitartean errosarioa errezatuz. Eta etxerantzean ere Patxi lepo bete trastez beterik. Aita Balendin Mendibe bere lagunminak dinosku: “Montaigun egon ginan bitartean, gugaz alkartu ziran guztiei ere eragin haundia egin eutsen Patxi ikusteak, arazo neketsuak bere gain hartzen ebazalako; bera danen kargu egiten zan eta; bere zintzotasun eta alkarlaguntzako espiritua ziran eragingarrienak”. Handik Askainera aldikada motx baterako. Hortik, Patxik frantzesak ondo erabilten eban. Geroago gudarien kaperau zala, moroekaz eta ondo alkar ulertzen eban. Frantzes irakasle ere izan genduan Gabirian.

1933. urteko azaroaren 19an auteskunde bereziak izan ziran Espainian, eta Gil Robles buru zalarik, eskumatarrak irabazi eban, eleiz-agintariak ere aldeko ebezala. Eta Eleizeari lehen kendu jakozan ondasunik gehienak berreskuratu jakozan. Giro baketsuago honek eraginda, Pasiotar Nagusiak ikasleak Askaindik Deustura ekartea erabagi eban. Horra barriro euren aberrian Patxi eta bere bost lagunak, Frantzian urte bi igaro ondoren. Eurak nahiko lan eukeen ikasketak aurrera eroanez; kanpoko politika arazoak ez eutsen ia ikuturik ere egiten. Patxi gazteari buruz hauxe dinosku bere ikaskide batek: “Guri gazteoi ez euskuen izten kanpoko arazoetan nahastuten; ia ezertxo ere ez genkian. Baina kanpoko haizeak zulo txikia behar dau barrura sartzeko; halan zertxobait beti jakiten genduan, nahizta gehiago jakin nahian gelditu. Patxi bestelako bidetik ebilen: ez daukat gogoan inoiz itaunik egin euskunik, ingurugiroko gorabeherataz. Bere gogoa jainkozko gauzetan murgilduta bizi zan, Eleizearen arazoak eta, batez ere, Pasiotar Kongregazioarenak lehenengo lekuan zirala; horretan zan guztiok baino gehiago. Hortik kanpo, isil-isilik egon ohi zan lagunarteko autu-mautuetan”.

Patxik Deustun ikasi eban teologiako 4. urtea, 1934. urteko uztailearen lehenengoan burutuz. Eta gehiagoko barik, Garellanoko kuartelera gudamutil eginda joan beharra euki eban urte bereko abenduaren 31ra arte. Erlijosok gaztearentzat sekulako aprobaldi gogorra, egundo komentu epeletik urten barik bizi izan ondoren, orain soldadu artean. Zenbat gorabehera eta joan-etorri, baina Patxi beti Patxi. Garellanoko lagun batek esana da: “Gaueko zaintzaile egotea suertatzen jakon soldadua-rengana joan eta esaten eutsan: Zu zoaz lo egitera, neuk egingo dot zure ordezkoa, nire txanda izan ez arren”.

*Espainian nabiz Frantzian
Patxi beti betiko antzian.*

1

Haizeak norantz, buruak harantz
horixe da kainabera,
gizon gehienok horrelakoak
gara gitxi gorabehera.
Zuk Aita Patxi, jaso zenduan
gurutzeko heziera,
jaiotzez zinan euskalduna ta
pasiotarra gainera;
zure lagunen esanetara:
"Zirudian Jesus Bera".

2

Indar-iturri ziran zuretzat
Jesusen Odol-Gorputza,
horren ondoan ezebeza da
mundu guztiko dirutza.
Zeure aldetik sentitzen zinan,
zu Aita Patxi, hain hutsa!
Zure indarren iturria da
Jesukristoren gurutza;
non dira zure indar guztiak?
esan, mundu harroputza.

3

Zorionean zure ametsak
gaur dira egi pozgarri,
aldare-mahaian, zu Aita Patxi
egin zara Kristo Barri.
Meza emoten, meza entzuten
ta meza laguntzen sarri,
aldarean zer gozotasuna
bizi dozun nork igarri.
Gorputz t'arima maitez emonaz
Jesus ta biok alkarri!

4

Laba gorian sutu ondoren,
dariola su ta garra,
harrigarriak Aita Patxiren
kemena eta indarra.
Gorputza ziztrin, buruz normala,
baina bihotzez azkarra,
hau ikusita, anai-arrebok,
dago autortu beharra:
Gurutz-ondoan eukala bere
indar-iturri bakarra.



*Aita Patxi Kristo Barri eginda,
Deustuko San Pelizisimoren eleizan.*

[Kristo Barri]

Gure Anai Patxi gazteak 1934. urtean burutu eban teologiako 4. kurtsoa. Gorago ikusi dogunez, Patxi ez zan izpitxorik aldendu betiko bidetik. 1935. urteko uztailearen 8an bete eban bere erlijioso konpromisoaren epea. Heldu jakon Jesusegaz behin eta betiko eta osoko maitasun-lokarriz bat egiteko ordua: *Betiko Profesa*. Etorri leikiozan ondasunen ukapena senideen alde eginaz, Santokristo eder bat hartu eban. Horra Aita Patxiren betiko Laguna; ez dau inoiz itziko ez gauez, ez egunez heriotzara arte. Egun hori bizitza osoan gogoratu eta ospatu eban urteurren erara, Jaunari esker beroak emonaz eta baietza bihotz betez barriztuz. Bere erlijioso izena Francisco de la Pasión da; baina laster eta betiko deituten hasi zan herria: Aita Patxi.

Eta, beste barik, abadetzarako azken pausoak emoten hastera doa: irailaren 15an subdiakonu maila hartu eban Deustun; diakonu maila Irunen hilabete beraren 21an eta abadetza 22an. Meza barria irailaren 29an, San Migel egunez, —Pasiotarren Kongregazioaren Zaindari berezia— San Pelitzisimoren eleizan emon eban, bere familia osoa inguruan ebal. Bete-beteen bere aitaren heriotzako 6. urteurrena suertatu zan. Beti maite izan eban bere lurreko aita gogoan izan eban zeruko Aitaren aurrean. Bere espiritu bizitzaren barri ondo dakian batek argitzen deusku zerbeit Aita Patxirentzat zer izan zan mezako egitea: “Goizeroko mezea zan Aita Patxirentzat egun osoari batasuna ezarten eutsana. Ordu erdiz gitxienez prestatuko zan otoitzaldi beroz eta ondoren beste ordu erdi bat esker emoten. Mezakoan eginbeharrekoak astiro eta ganoraz egin ohi ebazan”. Oraitxe bai Jesusen antzeko eginda, Kalbarioko oparian Beragaz bat eginda, munduaren salbame-nerako, danetan Aitaren nahia bete nahirik. Bere *Egunerokoan* irakurten dogu: “Lehenengo baka-rrerako mezea jantzi gorriz ospatu nahi izan neban, Jesusen Nekaldiaren gomutaz”. Izan ere, kolore gorria gogokoena egiten jakon beti, martiritza gogoratzen eutsalako. Gogo biziz eskatzen eutsan Jesusi, San Pelitzisimoren antzera, martiri hilteko grazia. Errusiara joateko ametsetan ebilen, han martiritza jasatea errezago izango zalako ustetan.

Teologia amaitu, abadetza hartu eta ondorengo kurtsoa pastoraltzako praktikak egiten emon eban. Aita Patxi 1936. urteko ekainean amaitu eban ikasketa lana. Egia esan, arduradunen ustez, Aita Patxi ez eukan sermolaritzarako dohai haundirik. Baina berak bihotzez onartu eban bere mugatasuna, eta herri-pastoraltza apal eta isilera jo eban: San Pelitzisimoren bedeinkapenak emon, gaixoak zerbidu eta autorlekuan parkamen sakramentua banandu. Bai gerraldian eta bai ondorengo gaixo-zerbitzuan zenbat eta zelangoak egin ebazan, geroago azalduko dogu zehatzago.

*Gauza haundietarako txikia naz,
gauza txikietan haundi izango naz.*

Bizi-oinarriak


Mañuko Amaren oinetan emondako *baietza*, Angostoko Amaren aurrean barriztu eban *baietza*, Deustuko Ama Atsekabetuaren ondoan Jaunari egin eutsan betiko eta osoko *baietza* maitasun-opari bihurtu eban. Aita Patxi lehenengotik da *baietzaren santua*: “Ez deusat ezer ukatu Jaunari”. Bere ikaskide eta bizilagunak mila eta bost testigantza eder dakarskuez, eurak hain hurretik ezagutu eban Patxiri buruz. Horretariko batzuk lagun doguzala, eta aurrera joan baino lehen, bere bizi-oinarriak aztertu nahi doguz, banaka bat batuta.

Gehiago ezinean bete eban Ebanjelioko agindu nagusia: “Jaungoikoa maitatuko dozu bihotz-bihotzez, indar guztiz eta adimen osoz”. Behin baino gehiagotan eta modu askotara agertzen deusku berak: “Zelan edo halan, baina nik santu izan nahi dot”. Jesusen antzera, egunero zortzi bat ordu emongo eutsazan otoitzari, gauez ere jagiz bizitza osoan. Eta bere otoitza beti egoan eskeronez, apaltasunez eta uste onez beterik. Geugana hurreratu jakun Jesus, batez ere Gurutzean hilaz, Jainko maitasun neurribakoa agertu euskunagaz maitemindu baten antzera bat-bat egin zan. Horregaitik ezin izaten zan sagrariotik aldendu, Gurutzebidea egunean birritan edo gehiagotan egiten eban. Maiteminduak lez, isiltasuna eta bakardea maite-maite ebazan; jakina, ez egoan bakarrik, ezta isilik ere. Halako Adiskidea aurkitu eban bizilagun! Eta Berari hobeto entzun eta erantzutearren zan. Eta Gurutz-ondoan Maria aurkitzen eban beti. Hamaika ordu emon ebazan Beragaz batera Kalbarioan! Eta Gurutzeko San Paulo eta Ama Atsekabetuaren Gabirel santua, eredu eta lagun hartuta joten eban bizi barriaren iturrira. Oraingoz bere eskari bero honegaz amaituten dogu: “Zeruko argi ugari izan dot, santu izateko dei eta eragin biziak ezarriz”.

Ez dago esan beharrik, Ebanjelioko agindu nagusian badala bigarren zati bat: “Eta lagunurkoa maitatuko dozu zeure burua lez”. Aita Patxiren bihotzean eta bizitzan ere batera ebiltzan biak. Jaunaren aurrean beti *baietzaren maitale* izan bazan, anaien artean beti *baietzaren zerbitzari*. Ez Jaunari eta ez anaiari ez eutsan egundo ezetzik emongo. Harritzekoa izan zan bere jokabidea: etxeko garbiketa neketsuenak, edozelango zerbitzu apalenak beretzat hartzen ebazan beti. Ez eban inork inoiz inoren aurkako konturik esaten ikusi. Eta holakorik ezer entzun orduko ebagiten eban, ohitura zana esanaz: “Jaunaren aurrean”. Baietz Jainkoari, baietz urkoari. Biak maitasun bat bakarrean.

Aita Patxik bizitzako nekeari eta aparteko penitentzi praktikari ere hartu eutsan halako joera gogotsu bat. Baina ez penitentzia edo nekea berez ona diralako, beste barik. Azalekoak barruan dauka bere eragina eta erantzuna, zergaitia: Jesus Gurutzekoa hain sartu jakon bihotz erdiraino, zeozelan agertu nahi bere maitasuna penitentziz. Gainera, Gurutzekoagaz batera, munduko pekatuakaitik bere burua eskeindu eban, euren zorrak bere penitentziz kitatuz. Maiteminduen arteko hartuemonak neurtzea ezinekoa da, eta cpaitutea areago; eta askoz areago, norbera hortik urrun badabil. Maitalea beti dabil zer gehiago egin leiken maite dauanagaitik. Oinarri sendoak benetan Patxiren sinismen-bizitzak! Berak halantxe ikasi eta bete eban, eta batez ere, halantxe bizi izan eban. Kontua zera da: *egitea, maitatzea*. Moduak, bideak, aukerak mila dira, baina jomuga bat bakarra: Jainkoa eta lagunurkoa bene-benetan maitatzea. Hori da Aita Patxiren sekreto. Jainkoaren santutasuna Espiritu Santuak ezarten dau bihotzetan, bakoitzari bere erara dohaiak eta behar dituan graziak emonaz.

Bake-gizona guda-sutearen erdian



*Aita Patxiren errezu-liburua.
Bai komentuan, bai kalean,
beti aldean erabili obi eban.*

..... Sarrera

Espainaldeko oilar burruka gogortu egin zan, eta azken batean, hil edo bizi alkar jo eta hiltera urten eben plazara. Ez egoan ez batera ez bestera egoterik; bat edo beste erabagi eta jokatu behar zan. Euskadik ere bere aukera egin behar izan eban: kristau sinismenak ez ebazan behartzen eskumatarren alde egitera, eta politikazko egoereak ezkerrekoen alde jokatzera bultzatu ebazan, Euskadirentzat onuragarriago ete zalakoan. Eskumaldekoak ez eben onartu Errepublika bidea, behartsu eta baserri jende apalaren alde agertzen zalako eta haundiki aberatsen aurka. Hortik ezkerrekoak hartu eutsan Eleizeari hain amorru bizia. Eleizea bera laster jarri zan itsumustuan eta osorik eskumatarren alde, ezkerrekoak sasisemetzat boteaz eta gorri gaiztotzat, eta euren artean euskaldun abertzaleak. *Guda santua* deitzeraino heldu zan Eleizea, *Gurutzada* barri baten bultzagile agertuz munduaren aurrean. Bidegurutzeko gurutzebide honen erdian suertatu jakon Aita Patxiri bere eleiz zerbitzua betetzea. Hara dei egin eutsoen, hara bialdu eben eta hara joan zan, ahal eban guztia egiteko Jaunaren izenean. Berak ez eban aukerarik egin, agindu eutsena bete besterik ezer ere ez. Bera izango da *gudaldiko bake-gizona*.

Militarren kolpeak errez menderatu ebazan Naparroa eta Araba, baina ez Bizkaia eta Gipuzkoa. Horra Euskadi, anaien arteko alkar-burruka odoltsuan sartuta. Gehienbaten, guda-txistuak non harrapatu bakoitza, han armaz jantzi eta besteak hiltzera beharturik egoten da bakoitza. Egoera hau Euskadiko kristau katoliko abertzaleentzat negargarria izan zan. Zer egin? Nora jo? Erasotzaileak ez eben onartzen errepublikarrak emonda eukezan herri-eskubideak. Egokiena ez batagaz ez besteagaz, baina labanaren aho ertzean lo egoterik ez dago. Gogorrena zera: Eleiz arduradun nagusiak ere kristonak esan eta egin ebezala euskaldunen jokabide horren aurka: ezetariko babesik ere ez, bere seme-alabatza ezagutu ere ez. Ikusiak ikusi, ekainaren 19an Euskadi Buru Batzarrak aitza emon eban: *Demokrasiaren eta Errepublikaren alde geratzen gara*. Nahiko buruauste: ezkerreko errepublikar, komunista eta anarkistakaz bat egin behar euskotar jainkozale bake-tsuak! Eta jakina, nahizta anarkistak egin astakeririk haundienak, dana eusko abertzaleen lepora jausten zan. Eta argitaratzen ziran egunkariak sekulako nashaste-borrastea egosten eben, euskotarren jarrerak deabrukerizat erakutsiz. Zelan leiteke euskaldun katolikoak ateo hiltzaile batzuek bat egitea? Aita Patxi hor hasi zan *gudarien kaperau* izaten. Aproposko aukerea, eta lehenengoa gainera, bere abadetzako eginkizunak eskeintzeko! Eta hain zuzen ere, hementxe emon deuskuz Aita Patxi bere jokabide zuzeneko erakutsirik ederrenak. Goazen bere atzetik mendirik mendi, zokondorik zokondo, begi argiz eta bihotz garbiz. Zer ikusirik eta zer ikasirik izango dogu.

1

Praile izan nahi eta umetan
joan zinan Gabiriara,
harrezkero zu ekandu zinan
komentuko bizitzara.
Orain abade egin-barritan
deitu zaitue gudara,
eta gudari anaien lagun
kaperautzat zoaz hara;
Jaungoikoaren nahia dala ta
ez zara bildur ikara.

2


Esku batean aldare-kutxa,
bestean Santokristoa,
Jesukristoren gudaria prest
horregaz dauka nahikoa.
Zuzen hartu ta bete zenduan
zuk zeure egitekoa:
fedea santuan zaindu ta gorde
gudari katolikoa,
guda-labaren erdian beti
zu aingeru bakezkoa.

3

Hamabi urtez ondo helduta
zagoz otoitz ta liburuz,
gizon fededun, seme euskaldun
sendo bihotz eta buruz.
Mila arrisku, mila tentaldi
bai barruz ta bai inguruz;
gogor jokatzen bazenkian ta
otoitz beroan zizpuruz,
Jaunak errukiz zaindu zinduzan
bere laguntza seguruz.

4

Kalbarioko ikasle zintzo
eta betetzaille fina,
zigortu eta zapaldu arren
zu menderatu ezina.
Jesus maitea gurutzean ta
ondoan Ama Birjina,
euren aurrean zuk egunero
zure bizi-esamina;
karrera latza egin zenduan
baina zuretzat domina.



Aldare-maleta, Aita Patxiren "Kalbarioko" lagun.

[*Rebelión de la Sal* batailoian]

1936. urteko abenduan urten eban Deustuko komentutik Aita Patxik guda zelaira, gudarien kaperau zerbitzurako. Jokera eta kolore guztietako batailoiak ziran ezkerraldean. Eusko Jaurlaritzak kaperau taldea eratu eban, bere arduradun nagusi eta guzti, abertzale batailoien zerbitzurako. 1937. urtearen hasieran itzi eban Aita Patxik Deustuko komentua eta Carlton hotelean egoan Jose Maria Kortak —kaperauen arduradun nagusiak— ornidu eban kaperautzarako behar ebazan tresna eta trepetxu guztiekaz, mezarako behar ebana, batez ere: kutxa baten aldare-mahai toleskorra, jantzi, liburu etabar. Aita Patxiren sorbaldak lehendik ere ondo eginak egozan lepokadak eroatera. Meza-kutxa hori ez deutso inork kenduko, prisioneru jausi arte. Aita Kortak *Rebelión de la Sal* izeneko batailoiko kaperau izendatu eban. Bilboko Cervantes Eskoletan bat egin eban bere batailoia gaz: goitik behera pasiotar jantzi az apaindurik, paparrean ezkutua, errosario luzeak gerrikotik eskegita, sandaliak oinetan; soingaineko luze eta guzti. Laster ezarri eutsoen beste itxura bat guztiz ezbardina, komentutik guda zelaira aldatu zala jabetu eitean: motxila bat lepoan, burusia, zapata haundi batzuk, platera eta edontzia. Jantziak aldatu eutsoezan, bai, baina barruko garra eta sendotasuna lehenean. Narrua kendu baleutsoe ere, bardin. Bere kaperau lagun batek emoten deusku Aita Patxiren kaperautza hasierako irudia: “Arpegikeraz baltziska, zurbil, itxura exkaxa benetan. Beste kaperauen ondoan bestelakoa zirudian: kikil, lotsorra, begiak lurrean josita. Gauzeztan bat begitandu jatan”. Aita Patxiri *teniente* maila ezarri eutsoen; baina ez eban egundo ezertarako erabili aginpide hori; gudarietak beste lagun bat gehiago izan zan. Agindu baino, zerbidu egiten eban gehiago. Halako militarra Aita Patxi!

*Jantziak ez dau egiten gizona
egintzak egiten dabe txarra zein ona.*



Aldare-kutxa zabalik eta mezarako prest.

「Otxandioko erasoaldia」

1937. urteko urtarrilaren 26an heldu ziran Otxandiora, *Rebelión de la Sal* batailoiak harako agindua jaso eban eta. Handik Araba berreskuratzea zan helburua. Aurrerakada labur batzuk egin ondoren, barriro ere lehengo lekura atzeratu behar. Hareek bai gau hotzak! Egurra lepoan, baina bildurra eta bakardadea bihotzean. Aita Patxi bera dogu autorle: “Gauetz txabolako ira gainean lo egin genduan. Biharamunean mezea emoteko asmoz, Otxandiora jatsi nintzan Mirugainetik. Abadea kanpora joana zan. San Martin ermitan ospatu neban mezea”. Aita Patxi hasi zan bere jardunean gorputz eta arima. Lagun batek dinosku: “Harentzat ez egoan ezertariko bereizkuntzarik, ez asturriarik, ez euskaldunik, ez besterik; bere kaperau laguntzaren preminan egozanak danak ziran bardin. Gauetz txabolarik-txabola joaten zan, errosarioa errezatu eta errezatu. Komunista batzuk Nagusiaren aurrean kexatu egin ziran, eta honek Aita Patxiri kontuak eskatu ere bai. Aita Patxik belauniko parkeskatu eutsan. Hau ikusirik, Nagusia, fededuna zan berau, bihotz-samurtuta, halantxe jarraitzeko agindu eutsan”. Kaperautza eginkizunak aukera ederrik asko eskeindu eutsan apostolutzarako: zenbat autortza, jaunartze eta otoitz arrisku gorrian! Talde batetik bestera ebilen gelditu barik, danei zerbitzen, poza, itxaropena, parkamena eta edozetariko laguntza dariola. Eta beti itxura alai eta baketsuan. Austin Erkoreka, batailoiko gudariaren testigantza dogu honako hau: “Harrigarria zan Aita Patxiren baretasuna! Geugana etorrela ikusita, laster entzuten zan: «Hor dator Aita Patxi geuri mezea emotera». Santu bat zan. Han ibiltzen zan prixaka luebagitik luebagira, eskuetan santokristo haundi bat ebalá, geuri mun egitera emonaz. Ze adore emoten euskun! Behin baino gehiagotan baraurik geratzen zan, berea besteoi emonaz. Ez egoan beste bat bere antzekorik”.

*Zintzoarentzat noiznabi eta nonabi da aukera ona
bere inguruan zabaltzeko bakea eta zoriona.*



Urkiolako santutegia.

GUDARIEN ELEIZ-ZERBITZARI

1

“Meza barria gauza gozoa”
 Aita Patxik dino hala,
 baina aldare bakoitzak dauka
 gurutzearen zozpala.
 Gudariekin Otxandiora,
 ez zan aproba makala!
 Hor agertzen da bakoitza nor dan
 ustela ala leiala.
 Hor Aita Patxi agertzen jaku
 sendoa baizen apala.

2

Bonba ta tiro, metraila-hotsa,
 gerra-sutan Otxandio,
 odol-hustuta ehundaka asko
 ze negar ta ze txilio!
 Zu Aita Patxi, danei laguntzen,
 bildurrak ez dau balio:
 Santokristoa erakutsiaz
 parkamen, bedeinkazio...
 Ahal dan guztian Mezea eta
 gauetan Errosario.

3

Danei laguntzen, danei parkatzen,
 zuk ez zeunkan hau besterik,
 adore poza danei emonaz
 inor badago tristerik.
 Zeu lehenago hil, ez zenduan nahi
 inor bakarrik izterik;
 nahiz gorri izan, nahiz zuri, nahiz baltz,
 nahiz ez euki sinisterik...
 Inork ez eban inoiz ukatu
 zu ondoan ikusterik.

4

Rebelión de la Sal deitzen zan
 zure gudarien batza,
 zeu izan zinan, handik aurrera,
 talde osoaren gatza.
 Anaiarteko burruka hori
 bai triste eta garratza!
 Ez zan sekula zutaz jabetu
 gorroto, hasarre-gaitza;
 nor izan zinan garbi esanda
 odolezko letraz datza.



Aita Patxi kaperau jantziatz.

「Gorbeiaiko gurutzearen aurrean」

Bereak eta bost jasan ondoren, *Rebelión de la Sal* batailoiak ihesari emon behar izan eutsan, han-hemen gudari pilak hilhotz itzita. Aita Patxik ez dauka ahaztuta: “Nik astotxo bat neukan meza-kutxa eta eroateko, baina hain astiro ebilen ezkerro, zama guztiak neure lepoan hartuta, astotxoa larrara bialdu neban, esanaz: «Hoa, astotxoa! Hoa eta ondo bizi; ezin deustak nire martxan jarraitu eta»”. Izan ere, atzekaldean berbertain etozan besteok. Tiro eta bonba-sua atertu zan unetxo batean, karkabarik-karkaba Ubideara jatsi ziran eta handik Igorrera eta gero Bilbora, Deustuko gormutuen egoitzan geldituz. Hemen batailoia osotu eta gero, barriro ere sutara: Zeanuritik gora Gorbeia. Biharamonean sekulako berbaldi sutsua egin eutsen Aita Patxik: “Jaungoikoak hiru maitasun ipini ditu gure bihotzean: Jaungoikoari Berari, geure buruari, urkoari eta aberriari. Errosarioa erreztatu eta gero, danoi parkamena emon euskun, aurretik Jesukristo neure Jauna esanda. Eguraldi gogorra ere gogorra jausi jakun”. Edur eta haize hotz bat bai! Gogoan geratu jakon Aita Patxiri. Berreskuratu eben mendi bat, baina laster ziran ehundaka hegazkinak gainean. Eta... biziak sasipera eta hilak pilaka lurpera. “Gose bat bai!”, dinosku Aita Patxik. “Nork leukezan ezkurak jateko! Ogia eta ardua aldean neukazan, eta mezea emon neban bizien eta hilen alde, ez jantzi eta ez aldara barik.” Eta menditik behera ekarrezan zaurituei Santokristoa mun egitera emonaz, han egoan arduratsu Aita Patxi: “Lehen ezetzean egozan askok ere, orain zelango mun beroak emon Jaun Gurutzekoari, neugaz batera otoitz eginaz!” Ez, ez da gizona legearentzat, legea da gizonarentzat, Maisuak esanda Aita Patxik ondo bete eban. Bere buruarentzat hain estua zan Aita Patxi, nork uste izan besteentzat hain zabala izango zanik... Baina egoera larri horretan ezin luzaro iraun. Barriro ere Bilbora bihurtzeko agindua hartu eben. Baina Aita Patxi oraindino ere han gelditu zan, erdilean egozanei lagunduten.

*Danak errez ulertuten daben testigantza:
preminan dagoanari emondako laguntza.*



Igorreko San Antolin ermitea.

Ermua aldeko pagadietan

Zer esperientzi izan ete eban Aita Patxik, Gorbeiatik Orozkora jaistean, bakarrik eta biderik ez ekiala? Eta Orozkotik Bilbora. Laster amaitu zan Bilboko atsedendia. Apirilaren 25an eta trenez barriro bonbartera: Zaldibar ondoko Urkomendia berreskuratuteko aginduz. “Zu gugaz bazagoz Jainkoak lagunduko deusku”, esan eutsan Sarasola komandanteak Aita Patxiri. Mezea emoten egoala, abixu larria: “Goazen, goazen arin hemendik, batailea galdu da eta gainean doguz arerioak”. Eta Aita Patxiren erantzuna: “Mezea amaitu barik ni ez noa. Halan, mezea amaitu, geure aldare-kutxa prestatu eta Gurrutxaga laguntzailea eta biok bidez bide bakarrik aldendu ginan handik. Aingeru santuen laguntza eskatu genduan, nondik nora joan behar genduan jakiteko. Gain-gainean etorkuzan kontrakoak, euren barbaroa entzuteko moduan. Atzetik eta aurretik tiroka hasi jakuzan, heriotzea begibistan geunkan. Baina Jaunak bizirik eta osorik atera ninduan. Hau ez ete da Jaunaren mirariren bat? Nik behintzat hatakotzat daukat. Handik laster Gurrutxagari deika ni, baina ez zan agiri. Gero jakin nebanez, kontrakoen alderdira ihes egin eban”. Igarotako estularri hau kontatzen dau Aita Patxik berak; hain geratu jakon hazurretaraino sartuta: “Belaunetaraino basatzen sartuta, otoitz eta erregu egiten neutsan Jaunari, bere laguntza eske”. Gazte bigaz ustekabeen topo eginda, bere nortasunaren barri emoten deutsee: “Ni Aita Patxi naz, *Rebelión de la Sal* batailoiko pasiotar kaperaua. Eta zuok nortzuk zaituet?” *Mejico* batailoikoak zirala jakinda, eurakaz batera jo eban aurrera. Bidean zaurituta aurkitu eben gudari bat besotik ebala, Ermura jo eben, euren batailoia han egoala jakin eben eta. “Danak harrituta gelditu ziran ni bizirik eta zauritu bat besotik nenkarrela ikusi ninduenean; espainatarren eskuetan jausi nintzalakoan egozan eta. Hareen poza ni barriro ere euren artean ikustean!” Hurrengo egunean pagadi baten ezkutatu ginan. “Ene! Berbertan genduzan hegazkinak, txori harrapalariak lez. Errosarioa errezatu eta gudariei parkamen-bedeinkapena emonaz, Santokristoa eskeindu neutsen mun egitera”. Egundoko bonbardaketarik gogorrena jasan eben; danak lurrean etzunda; eta Aita Patxi belauniko errezatu eta errezatu. Beragandik bost metrotara jausi jakon bonba bat, eta lurrera jausi zan konorte barik. Testigu batek dinosku: “Ez nekian hilik ala bizirik baegoan ere. Senera etorri zanz batera, bere Santokristoaren bila ebilen hara eta hona, eskuetako arma bakarra galdu dauan gudariaren antzera. Azkenean han aurkitu eban basartean”. Jagi eta gudari lagunei laguntzera joan zan: “Danak neukazan neuri deika negar alarauka. Eta nik ezin geldirik egon, odola irakiten. nēukan eta”. Hilzoriko larrione honetako testigu batek dinosku: “Halako ikuskizunik! Batzuk aho beteka odol-jarioka, hareek gorputz zatiak galduta. Han ebilen Aita Patxi danei Santokristoa mun egitera emonaz eta Gure Jauna eskatzen ebenei eroanez; beste banaka bateri oliadura eta parkamen sakramentuak ere bai”. Beste honako hau Frantzisko Bilbao bere gudari lagunarena da: “Aita Patxi negarrez ikusi neban, gorputzetik banandutako gudari baten burua esku artean estututen ebala, bere eskuak eta jantziak odolez gorrituta. Gora begira bere alde otoitz egiten ziharduan. Ez dot egundo holakorik ikusi, ezin dot ikuskizun hau ezelan ere burutik kendu”. Beste batek: “Aita Patxi ikusi neban belarrietatik odola borborka dariola”. Aita Patxik ere gogoan ondo gorde ebazan Ermuko pagadian jasandako triskantza negargarriak 1937. urteko apirilaren 25an. Luzio Inzunzak kontatzen deusku ikusi ebana: “Han etorren Aita Patxi, aldare-kutxa lepoan eta santokristoa eskuan. Nekatuta, burumakur etorren. Gugana heldu orduko, haren besarkatu beharra banan-banan! Santokristoa gora jasota, Jaunari eskerrak emoten jarri ginan, geu bizirik atera ginalako, eta hildakoen alde betiko bizia eskatuz. Han ikusi neban Gernikako komunista bat Aita Patxigaz estu-estu besarkatuta”. Esan eta jasandako danak batera batuta, eskeintzen deuskuz Aita Patxik esaldi honetan: “Ni Ermualdeko pagadian berbiztu nintzan”.

*Ez dago maitasun haundiagorik
adiskideakaitik bizia emotea baino.*

1

Otxandioko zelai-landetan
ehundaka gudari hilak,
hau ikusita jota egozan
Aita Patxiren mutilak.
Gogoberotzen han jardun eban
euren kaperau abilak;
hil edo bizi, dantzatu behar
besterik ezta, fusilak...
Indar gehiago euken Patxiren
meza ta otoitz isilak.

2


Zaurituren bat besoan eta
meza-kutxa bizkarrean,
nori ta zelan laguntzeko prest
ta zeu dana beharrean.
Zu Aita Patxi, orduan ere
ez zengozan bakarrean,
Jesus ta Andra Maria lagun
gurutzea paparrean,
ze Kalbario zuk Gorbeako
gurutzearen aurrean!

3

Erdiak hilda, besteak ihes
Zaldibar, Ermu aldera,
horixe baino besterik ezin
txiki guztien antzera.
Ermu aldeko pagadietan
sugarra burutik behera...
Lau metrotara bonbak jausita
Kristo ta guzti lurpera...
Zure ustez han izan da zure
heriotz ta biztuera.

4

Lurpetik gora gurutze-bila
eta oraindik bizirik,
danak dinoe, zu ikusita,
non holako miraririk?
Bihotza penaz erdibiturik
ta begi biak bustirik.
Aurrera joanda, Gernika sutan
han ez zan beste argirik;
orain nahiago zeunke ez euki
ez belarri, ez begirik.



Bolibarko parroki eleizea. Ermutik Gernikara bidean Aita Patxiren otoilekua.

「Gernikako sugarren erdian」

Gernikako triskantzea nork egin eban, zergaitik etabar luze bat urte askotan batekoz beste zabaldua egon da mundu guztian. Aita Patxi dogu sugarren artetik bizirik urten dauan testigu fidagarri bat. Ermualdeko hondamendiaren ondoren, Gernikako inpernu gorrira. Egunean bertan hartu eban Gernikara aldatzeko agindua. Aita Patxi danen erdian errosario santua errezatzen. Halako errogatibarik! Gaueko 10ak aldean Bolibartik igaro ziran, eta gauerdirako Arbazegin. Handik Bilbora, Escuelas de Cervantes egoitzan indarrak eta laguntza barriak hartzera. 26an goizean —A ze loaldia bart!— gosalduta eta Markina aldera. Baina Gernikatik aurrera joaterik ez egoan. Ustekabean hegazkin talde haundi bat gainean sua eta garra zeru betean erioela. Gernika astelehenez baserritarrez beterik. Han ikusitakoa ez da esatekoa, gitxiago jasatekoa. Aita Patxi bera dogu kontalari: «Ha zan larritasuna! Etxez etxe, zuloz zulo, kalez kale korrika zoratuta noraezean. Hango negar alarauak! Etxerik erdiak sugarretan, beste erdiak noiz jausiko, nork ihes egin inpernu gorri haretatik! Ni han ibili nintzan errosarioak errezatzen, parkamen-bedeinkapenak emoten. Etenbako hegazkinen burrundara artean, Andra Mariako kanpaiak Avemarietakoak jotzen. Bai, begoz bakean Gernikan hildako anaiak! Eguerdiko hiru t'erdietan hasita gaueko bederatzia bitartean hondamendi haundiagorik egitea ez da errez». Patxi Eizagirre gudari lagunak dinosku: «Aita Patxi eta ni batera ibili ginan Gernikan. Eusko Etxean ezkutatu ginan, mahaipen gengoan biok. Aita Patxi badinost: «Esaizu fedez Jesukristo nire Jauna». Heriotzea gain-gainean geunkala uste genduan eta. Han gengoala metraila zati bat sartu eta begi-belarri artean zauritu eban. «Ez da ezer, ez da ezer», esaten eustan». Eta handik ere bizirik urtenda, bere aldare-kutxa, Gure Jaun eta guzti, gorde eban eta kamioian Bilbora bihurtu ziran, Deustuko Gormutuen Egoitzara.

*Gorrotoko suak kiskaldu egiten dau eta haustu,
maitasun-suak jaso eta bizibarritu.*

1

Gernikaldera heldu orduko
dana dagougarretan,
hau ikusita, zu Aita Patxi,
urtu zinan negarretan.
“Ene Jainkoa! Ez gaizuz itzi
bakarrik zoritxarretan,
gure Herriak ze txar egin dau
hau hartzeko ordainetan?
Zure Herria gara ta zatoz
behar zaitugu benetan.”

2

Baserritarrak Gernikaldean
azokako astelehena,
ustekabeen etorri jake
errubakoen azkena.
Horri gurutze, hari otoitza,
danei Jainko-parkamena;
hondamendiak ez eban ahuldu
Aita Patxiren kemena,
Santokristogaz bedeinkatuaz
hiltzorikoen aiena.

3

“Geuk euskaldunok Gernika erre
ta hondatu genduala”,
berrogei urtez holan egon da
zabalduta bala-bala.
Zenbat kastigu esatearren
hori egia ez dala!
Oraintsu nahitez autortu dabe
alemandarrak zirala;
beste norbaitek eukan seguru
pekatu orijinala!

4

Ze eskubidez dauke batzuek
egi santua katigu?
Orduan ta gaur zer zelan diran
beranduegi dakigu.
Hemen ez bada, gero nonbaiten
merezidu dau kastigu;
betiko zorra hor geratu da,
noizbait ordaindu bekigu;
Jaungoikorako!, hau horrela da,
Aita Patxi da testigu.



Picassoren "Gernika" famatua, hango triskantzearen oroigarria.

[Aita Patxi kapitan]

F ededun nahiz fedebako, euskaldun nahiz erdeldun, Aita Patxi ezagutu eben danentzat harrigarri bihurtu zan, batez ere Ermuan eta Gernikan egin ebazanak ikusita. Bere egintza eta jokabide aintzagarriak saritu nahirik, Arduradun Nagusiak *Kapitan* mailara jaso eben. Aita Patxik hauxe dinosku jazoera honen aurrean: “Ez deuste izendapen hau emon neure kaperau zerbitzua-kaitik bakarrik; baita gudariei eskeindutako mila eratako laguntzagaitik ere”. Ez ebazan egundo erabili ez izarrik, ez bestelako ezaugarri berezirik.

Betiko Profesa egunean emondako baietzaren sendotasuna, sendoago egin jakon guda-soinu artean. Bere kaperau zerbitzua ez zan bakarrik katolikuentzat izan; sozialista, komunista eta anarkistengana ere uste osoz hurreratzen zan, amarik samurrena lez; ez egoan inor anaitzat hartuko ez ebanik. Eta danak errespetatzen eben. Beti egon zan danen zerbitzura. Eurekin hartuemonean sartzeko, *tabakorra* eskeintzen eutseen. Berak ez eban egundo erre, besteengana hurreratzeko aproposko zubitzat erabilten eban. Danak ez eutsen errezuetan lagunduten, baina danak errespetatzen eben, asko maite eben eta. Gainera bere aurka esatekorik ez eben ezertxo ere aurkitzen. Halan eta guztiz ere, onean onena zan Aita Patxi, baina behar zanean sendoa ere bai. Militarrek gainera etozala eta, danak ihesari emon eutsoen. Aita Patxik, biderdian Santokristo eta guzti urtenda: “Geldi! Danok geldi, arduradunak joateko esan arte!” Jeurt barrero trintxeretara. “Neu ere eurakaz batera joan nintzan, Santokristoa mun egitera emonaz”, dinosku Aita Patxi berak. Bere kapitan mailari egokiozan eskubide berezi batzuk baeukazan, bai jantzietan, bai jan-edanetan, bai tratuan eta zer askotan. Berak hartu bai egiten ebazan, baina ondoren dan-danak gudari anaien artean banatzeko asmoz. Dana zan urkoarentzat, ezer ez berarentzat. Bere izendapenari egokion soldata ere jaso egiten eban; baina laster baten danen onerako zan, erakunde bateri emoteko. Beretzat estua, besteentzat eskuzabala. Kapitan izendapena baino hoberik bilatzen eban Aita Patxik Jaunaren aurrean!

Ez: nirea neuretzat eta zurea, biontzat.

Bai: zurea zeuretzat eta nirea ere zeuretzat.

Lemoatxa baino gogorrago

Borondatea bai, adorea ere bai, eta gehiago ezinean izan ere. Baina ez da nahiko ia esku eta odol hutsik dagoanarentzat, lurrez eta aidez askoz ere indartsuago zan arerioari eusteko. Bilbo arriskutik salbatzarren, *Burdinezko Gerrikoa* eritxon gordeleku eta euskarri sendoa moldatu zan. Baina egurrarren egurrez eta zoritxarreko injenieru baten saldukeriz dana txikitua izan zan. Lemoatxa ere besteen mende jausi zala eta, hara bialdu ebezan tente gelditu ziran apurrak. Aita Patxik berak kontatzen deusku: “Usansolon batu nebazan gudari guztiak, eta parkamen-bedeinkapenaren ondoren, Gure Jauna emon neutsen, eta Santokristoa ere bai mun egitera eskeindu. Ordu bete baino lehen eskuratu genduan Lemoatxa. Neu biderdian gelditu nintzan, menditik ekarrezan zaurituak erosoago lagundutearren”. Hasi ziran, bai, zaurituak mendian behera jaisten burdikadaka alarauka eta deseginda. Nik Santokristoa eskeinduten neutsen mun egin eioen, eta Jaungoikoaren eskuetan izten nebazan, bedeinkapen osoa emonaz. Danak ez eben onartzen nire jokabide hau; handik kenduteko ere eskatzen eusten, baina nik neure zerbitzuan jarraitu neban, neure burua arriskurik haundienean ikusi arren. Erasoaldi negargarri honen erdian irudi eragingarri bat geratzen jaku: Aita Patxi Lemoatxeko baztar baten. Bere testiguak eskeinduten deuskue jazoera dardaragarri honen barri: “Hantxe ikusi genduan Aita Patxi, hondamendiaren erdian, lurrean belauniko, santokristoa eskuan eta zerura begira otoitzean, Jaunari parkeske eta laguntza eske. Egundo inoiz ere ez, eta Lemoatxean belauniko eta zerura begira begi biak zabalik!” Aita Patxiren bihotzak esku eta begiak zabalik behar ebazan une haretan. Moises Sinaiko basamortuan Jainko Herria gudaketan ziarduan artean, bera mendian Jaunari erreguka.

Handik Bilbo aldera aldatu ziran, azkenak emotera. Aita Patxi, berea zan jardunean hara eta hona gelditu barik ebilen. Burdinezko Gerrikoa haustuta egoan. Hamaika haragi, hazur, buru, beso eta iztar zati agiri zan mendian zehar sakabanatuta! Aita Patxik egin-ahalak eginda, oraindik kezka bat bihotzean: “Egia esan, ez nintzan unetxo baten ere geldirik egon. Halan eta guztiz ere, gehiago egin behar nebala eta nago; gordeleku bateko zuloa bonbaz zarratuta gelditu zan eta han gelditu ziran hainbeste gudari egoera itogarrian. Hara ere joan egin behar nebala uste dot. Badot horren mina bihotzean”.

*Burdin barkaitzak lebertzen dira bonbaz,
ez da bonbarik Aita Patxi lebertuko dauanik.*

Lehenago hil!

1937. urteko San Antonio eguna ez jako ahaztuko Aita Patxiri, bera eta gudari taldea militarren eskuetan jausi ziran eguna. Argi eta garbi dinosku: “Ekainaren 11a, barikua, txarto. 12a, zapatua, txartoago aurkitu ginan. Eta 13a askoz ere txartoago oraindik”. Zehaztasun haundiak emoten deuskuz Aita Patxik egun baltz honetako jazoerak kontatzerakoan: “Aita Zelestino —beste pasiotar kaperaua— eta biok lo egin genduan Zamudioko baserri baten; eta goizaldean bertan mezea emoten hasi ginan, domekea zan eta. Goizeko zortzirak inguru izango zan. Kaperau lagunari esan neutsan, beste auzora joan eta mezea emon behar genduala. Mezea hasita beste barik, gudari taldetxo bat arnas estuka, espainiarrak gainera etozala iragarritz. «Ni neu banoa», esan neutsan lagunari, baina berak han jarraitu eban. Bera han gelditu zan, bestaldera aldatzeko asmoz-edo. Lehenago ere Bedian kanpoz aldatzera konbite egin eustan, baina nik ezetz eta ezetz. Ihesian hainbeste gudari jausi ziran; gu gelditu eta karkaba baten ezkutatu ginan, gudari lagunakaz errosarioa errezatuz. 3. misterioan gengozala, tiroketa bildurgarria isildu zan; guk zulotik urten eta arin baino arinago ihesari emon geutsan. Halako baten aurrez-aurre soldadu talde bat geuri deika. Gu geutarrak ziralakoan, curakana bihurtu ginan. Baina, bai zera! Militarrek ziran. Gure perrotsa! Ha bai ha estularria! Ezin inondik inora ihesi. Harrapatuta gengozan! Deadar gogor bat: «Geldi, gora besoak!» Ez egoan beste aukerarik: hil edo etsi. Eta besoak jasota, goitik behera arakatu ginduezan. Nigana heldu zanak, harrosko samar, zarataka badinost: «Armak!» Nik zakatora eskua sartu eta atera neutsazan neukazan danak: errezu-liburua, errosarioa eta santokristoa eta emon neutsazan esanaz:

— Honexee dira nire arma bakarrak. Ni pasiotar kaperaua naz.

— Neu ere abadea naz.

Abadea zala esanaz batera, eskua emon geutsan alkarri.”

Aita Patxik nekez esango dau ezer inorentzat mingarri izan leitekenik. Baina erabilten dauan berbea nahiko adierazgarri da: *Sinistezina*. Hona beste egun bat Aita Patxiren bihotz erdian betiko ezarrita geldituko dana. Handik 40 urtera joan zan leku honetara, lo egiten eta mezea emoten non egon ziran ikustera. Baserriaren izena ere gogoan hartu eban: *Dañobeiti*. Bere konfiantzazko testigu batek dinosku, Aita Patxik berari esandakoa: “Kaperau napar batek egin ebala prisioneru, eta bere erantzunaren aurrean, arpegiko eder bi emon eutsazala”. Hau komedia! Biak abade izan, eta bata Santokristoa, eta besteak pistolea; biak Kristoren ordezkoi, bata gorrien kaperau eta bestea Gurutzada Santuaren aldeko kaperau erreketea. Komandanteak gogor eraso eutsen pasiotar kaperau bieri: “Ni zuen lekuan banengo, behingoan aldatuko nintzateke eta bizia salbatuko, *gorriak* alde batera itzita”. Zenbat ahalegin egin eustazan, itxuraz neu salbatzearren:

— Aita Patxi, esaizu zeuk zeure borondatez entregatu zareala, eta dana konponduta.

— Ez, ni ez naz entregatu; harrapatu egin nabe; bestelan itzi ia norantza joaten nazan.

— Tira, ez izan burubakoa! Guzur antzekotxo bat esaizu eta ez dozu prisioneru joan beharrik izango.

— Ez horixe! Sekula santan ere ez! Desertatzea pekatu da; eta guzurra izanda, pekatu bikotxa. Eta pekatu egin baino lehenago hil!

Aita Patxik apal-apal kontatzen deusku une honetako bere egoerea: “Nik neurekautan esaten neban: bai neu ere, nahi izan baneu, mila aldiz aldatuko nintzan bestekaldera. Baina ezin da desertatu, ez hemendik hara, ez handik hona. Otxandiotik Bilbora mila aukera izan dodaz horretarako. Baina hori ezin da egin, desertatzea pekatu da, eta pekatu egin baino lehenago hil, Makabeotarrak dinoenez!” (2 Mak. 14, 42).

*Ez da bardin gizonkeria eta gizontasuna,
zetan ete dago gizonaren haunditasuna?*

1

Han eta hemen gorputz-zatiak,
 aienak eta uluak,
 inpernu gorri bihurtu ziran
 kaleak eta zuluak.
 “Zu gaur bizirik atera zaitu
 Jaunaren mirakuluak.”
 Ez zindun asko zu poztu, Patxi,
kapitana tituluak!
 Sugar harentzat ez ziran nahiko
 zure negar anpuluak.

2


Lagun gehienak Gernikan itzi
 eta aurrera jo behar,
 “Lemoatxera joan behar dala”
 egiten dabe deadar.
 Han jasandako triskantza latzak
 eragiten dabe dardar;
 zu, Aita Patxi, zeure lanean
 bildur barik eta azkar;
 gizonak baino hobea zara,
 Lemoatxa, egin negar!

3

Eginahal danak eginda ere
 dana zan alperrikoa,
 eta azkenean: “Apurtu dabe
 Burdinezko Gerrikoa”.
 Azkena laster gainean dala
 zan gauza agirikoa;
 zu nor zarean agertuteko
 ordu berebizikoa...
 Hil edo bizi egon arren be,
 Aita Patxi betikoa!


4

Preso jausita, guzurra zabal:
 “Patxi entregatu dala”.
 “Harrapatu bai, entregatu ez,
 hau da pekatu mortala!
 Aita Patxi naz pasiotarra
 eusko kaperau bezala;
 neure burua entregatetik
 Jainkoak gorde naiala!
 Guzurrez libre baino nahiago
 preso sartu berehala!”



*Aita Patxik erabilitako
 Santokristoa ta Errosarioa.
 “Honeek dira nire armak.”*

Aita Patxiren gurutzebidea



Aita Patxik buruan erabilten eban txanoa.

..... Sarrera

Hemen hasten dogu Aita Patxiren erbestaldia, benetako *gurutzebidea*: Berak halan hartu eta eroan eban, gurutzebideko Jesus Maixuari jarraituz; izan ere, badauke alkarren antzik batarenak eta bestearenak. “Nire atzetik etorri nahi dagianak, bere burua ukatu eta hartu dagiala bere gurutzea eta jarraitu deistala” (Mk 8, 34). Aita Patxi politika eta burruka danen ganetik egoan, edo behintzat ez zan hori bere ekintzaren indar eragile nagusia; baina politika-zurrunbiloak harrapatu eban erdian eta hantxe jokatu behar izan eban. Ez zan izan berak aukeratutako gurutzebidea, suertatu egin jakon. Bere guda-zerbitzu berezia *kaperautza* izan zan. Ez berbaz, ez egitez, ez eban egundo gorrotorik, ez gogorkeririk agertu. Agindu eutsen lekuan bake eta parkamen gizona izan zan.

Zelan-halango epaiketa baten ondoren, Fikatik Fruiz aldera eroan ebezan militar talde batek oinez. Moro batek Eusko Gudarosteko kaperau ezaugarria paparretik kolpean kendu eutsan. Handik Gernikara kamioi zahar baten, bidean txitean-pitean geldituz eta askoren destainak eta burlak jasoz. Gernikaratuta, Josefina monjetan pilatu ebezan. Jesus Jerusalemgo kaleetan bultzaka eta kolpeka eroan ebenekoa Aita Patxiren gogoan. *Gorrien kaperau* izatea zan parkaezinezko errua. Patxadazko kaperau eta kristau batek militarren aldera aldatu behar eban; besteak herri eta eleizaren aurkakoak ziran, danak txarrak. Honen ezaugarritzat: Aita Patxik sarjentoari mezea emoteko baimena eskatu eutsan. Inondik inora ere ez. Gorrien aldeko prisioneru batek mezea emon? Esatea ere! Aita Patxik Maisua gogora: “Jaunari eskeindu neutsan atsekabe hau, Andra Mariaren bitartez, espiritualki jaunartuz. Eta Jaungoikoaren eskuetan bakez gelditu nintzan”. Gudariekin alkartuta, bestelako otoitzaldietan jardun eban: errosarioa, gau-errezuak etabar, inoren lotsa eta bildur barik. Bertako eleizatxoan egunean birritan edo hirutan egiten eban gurutzebidea, eta halantxe jarraitu eban prisioneru egon zan bitartean. Geroago, kanpamentuan egozala, berak egur batzuekaz kalbario-bidea egin eta belauniko ibiltzen zan batetik bestera. Hori izan zan bere eskola eta indar-iturri. Danei adore emonez jarduten eban; ia ezer jan barik igaro ebezan Gernikako 13tik 17ra bitarteko egunak. 17an ganadu-bagoi baten moltzoan sartu eta Gasteizera, barau gorrian, beti gero jatekotan. Ez, eurak ez ziran pertsonatzat hartuak, *prisioneru gorritzat* baino, ezetariko eskubide bakoak. Gernikako egotaldian izan eban Yosulagun baten bisitaldia. “Mesede baino kalte gehiago egin eustan”, esango deusku Aita Patxik. Maisuak lez, bere erlijinoko arduradunak ere aurka. Ez deusku argitzen zer eta zergaitik. Maisuak lez, isilik hartu, bakez eroan eta kito. Hauxe izango da Aita Patxiren erbestaldi osoaren ispilu eta erakusbide.

*Ezin da atxaki-urez eskurik garbitu,
errubakoen odolak zikintzen baditu.*

Presondegiko aingerua

Gosez hilda heldu ginan Gasteizera. “Ez euskuen emon ezertxo ere jateko, ez eguerdian, ez gauean; edateko ur pixka bat baino ez”, autortuten deusku Aita Patxik. Jan-edariz ez, baina destainaz eta irainez ondo bete ebezan Gasteizera baizen laster. Kalez kale eroan ebezan Karmeldarren komenturaino, mundu guztiaren barregarri. Jerusalemgo *Gurutzera hori* haren antzera, kondena gogorra bota eutsen lepo gainera: Herri *nabastaile* eta *saltzaile*. Maisuari lez, aldean eroan eban dana kendu eutsen. Aita Patxiri ezin asko kendu; kapitan soldata jaso arren, ogerleko bat edo bi eukazan poltzikoan, gainerakoa gudarien artean banandu ebalako. Baina kendu eutsoezanak zerak izan ziran: Pasiotar Jantzi Santua eta bere aldare-kutxa bedeinkatua; hainbeste ordu eta leku latzetan beragaz ondo gorde eta erabilitako pitxiak. Narrua kendu baleutsoen ere ez eban min haundiagorik hartuko! Eta Maisuaren kasuan lez, dana *Jaungoikoaren izenean!* Gela bakoitzeko 10 gudari pilatu ebezan. Aita Patxik han ere berea: Errosarioka jo ta su, kantua eta guzti. Berak dinosku: “Gu zainduten egozan espainiarrak atera etorten jakuzan, gure errezu-hotsagaz harrituta. Zelan guk, gorriak izanik, errezu eta errezu jardun?” Zaintzaileei erregu eta erregu, azken batean lortu eban goiko eleizatxoan egunero mezea emotea. Eta ostean Aita Patxik berea egin behar: “Mezea amaitu ondoren, Gure Jauna bular gainean gordeten neban, nahi eban gudari anaiei emoteko. Holantxe egin neban handik aurrera”. Halakorik! Presoak pilatu eta pilatu, gela bakoitzeko 40 preso alkarren gainean, ezertarako leku barik, ez lotarako, ez eginbeharrak egiteko. Gelea baino gehiago kortea zan. Preso politikoak beste leku baten egozan, eta euren zereginetara preso arrunten aurretik igaro behar izaten eban. Holako batek, errosarioa errezatzen entzunda, Aita Patxi zala jakitean, diru pixka bat emon eutsan. Bai pozik hartu ere! Laster urtu eban, lagunentzat paper, seilu eta kartazalak erosten, etxekoei idazteko ere. *Lauaxeta* euskal idazle argi eta abertzale sutsua ere han egoan, aparteko gela baten. Aita Patxiarentzat beste zeregin bat: “Egun baten, mezea emon ondoren, bere gelako ateraino heldu nintzan. Baina zaintzaileak debekatu egin eustan beragana sartzea. Espirituzko laguntzarako bakarrik zala gaineratu neutsan, baina alperrik. Handik 4 egunera tiroz hil eban. Nik bere alde eskeindu neban biharamoneko mezea. Bego bakean”. Baziran beste kaperau batzuek, kristorenak eta bost botaten eutsezanak pulpitutik domeketan. Esaterako: “Nire eskuan balego, danak garbituko neukez”. Holakoak entzunda, gudari batzuen jarrera: “Abade hori balitz Kristoren ebanjelioaren testigu, nork ez gorrotatu? Baina guretzat Kristoren lekuko eta testigu Aita Patxi da”. Bai, *gorrien* kaperauak gorriak ikusi ebazan, lagunen bihotzak baretu eta sinismenean eusten. Kalbariorako kondena jaso eban eta orain ahal danik ondoen jokatu beharra dago.

*Jakintsu eta ahaltzuak
kaltegile haundienak sarri,
santuak eta apalak
dira Eleiz salbagarri.*

PRESONDEGIKO AINGERUA

1

Indarrez kendu eutsoen kolpez
kaperau-kutxa lepotik,
eta agindu: "Arma guztiak
atera bixkor kolkotik".
Zuk gurutzea atera eta
erantzun zeuntsen gogotik:
"Hauxe da nire arma bakarra,
arren, ez kendu ondotik".
Hori da hori trebetasuna!
Noiz entzun da holakorik?

2


Hara Gasteizko presondegian
Patxi prisionerua,
preso ta guzti izango zara,
baina ez guzterua.
Danak poztuten, danak zerbitzen,
ai zure bihotz berua!
Zure jarrerak ikusi eta,
askoren ustez, erua.
Baina gudari anaiantzako
"kartzelako aingerua".

3

Behar ez ziran gauzak sobra ta
falta beharrezkoena,
zu Aita Patxi, zeutaz ahaztuta,
dana zinan besteena.
Iheslari bat harrapatuta
heriotzara kondena.
Haren ordeze zeuk bizia emon,
hori harrigarriena!
Handik aurrera ezaguna zan
Aita Patxiren izena.

4

Hor Aita Patxi tribunaletan
mahaia bete militarrez:
"Esan eiguzu: zer egin dozu?",
orru batean hasarrez.
"Ni gudarien kaperaua naz,
ni ez nabil asmo txarrez,
meza ta otoitz, eta lagundu
inor badago negarrez."
Ezin ulertu zelan zagozan
batuta gorri zantarrez.



Gasteizko Karmeldarren komentua. Aita Patxiren espetxea 1937an.

「Zu nor zara?」

Gurutzea ez da norberak aukeratzen dauana, gehienbaten; sarri gogozkontra etorri ohi da. Datorrena datorrela, hartu eta eroateko moduan dago untzea: ondo hartu eta eroaten dan gurutzeak gizakia sendotu egiten dau, eta kristaua santutu. Gurutzeak neurtzen dau bakoitzaren maila eta nortasuna. Aita Patxi hasi da Kalbarioan gora. Pozalditxoak ere izan ebazan; esaterako: Bere Pasiotar Jantzi Santua lortu eban, hainbeste eskarien ondoren. Ahal eban guztian mosu beroak ezarten eutsozan maitasunez. Ez eban ezertarako ere kenduten. Eta halantxe agertu zan auzitegian, presoak sailkatzerakoan: “Egun baten komandantziara eroan ginduezan gudari talde bat, geure buruaren autorpena egiteko. Ni pasiotar jantzita joan nintzan, errezu-liburua eskuan nebala. Ez jaken gogoko izan nire portaera hau. Lau militar gizon egozan mahaian: batek itandu eta beste bik idatzi. Itaunketa isilduten zanean, nik errezu-liburua zabaldu eta otoitzari ekiten neutsan. Ez neukan bildur apurrik ere. Gogoan daukadaz epaiketa honetako hari nagusiak:

- Zu nor zaitugu?
- Ikusten dozuenez, pasiotar abadea naz.
- Zein batailoitan ibili zara?
- *Rebelión de la Sal* batailoian.
- Zer egin dozu?
- Gudariei espirituzko arazoetan lagundu.
- Erderaz ala euskeraz?
- Nik beti bietara.
- Hartu al dozu parterik politikan?
- Ez.
- Orduan, zer egin dozu?
- Pasiotar abade baten egitekoa bete.
- Ezer ere ez gehiago?
- Ez, ezertxo ere ez.

Nik epaiketa osoan begiak lurreran josita euki nebazan, aurrekorik ikusten ez nebala. Gudari lagunak esan eustenez, tribunalean egoan teniente batek, ni halan ikusi eta entzutean, zur eta lur eginda, handik alde egin eban. Eurak kontatu eusten honako hau ere: «Geuk entzun deusagu argi eta garbi militar arduradun bati esaten: Jaungoikoaren ministrari guztiak holakoak badira, konpon-duta gagoz!» Maisuaren portaera ikusita ere, ez ete ziran antzeko autorpen batzuk entzun?

Gasteizko Karmeldarren etxean 1937. urteko ekainaren 17tik 27ra egon ziran. Jaso daigun Aita Patxiren testigantza: “Luzaroago egon bagina, danok gaixotu edo hilgo ginan. Jaunak halantxe gura izan dau. Egin bedi bere nahia orain eta beti, eta Andra Mariak gorde gaizala beti bere babespe errukitsuan, Jaungoikoa eta Euskadigaitik baztarren barregarri gabiltzanok”.

*Gurutzebidean bidegurutzea,
bidegurutzean gurutzebidea.*

「Cardeñako prisionerua」

Ora in arte ere nahiko kalbario izan zan Aita Patxiren bizitzan, baina euskal lurraren gainean; hemendik aurrera gurutzea astunagoa eta bere sorlekutik urrun: Kalbario eta erdi. Urte luze eta latzak hortik zehar. Gurutze astunaren azpian haragia makal, baina barruko iluntasunak gogoa ere ahuldu, lurjota itzi. Holakoetan gogoa haustea edo jaustea ez da harritzekoa. Ekainaren 27an heldu jaken agindu gogorra: Gasteiz, Miranda, Burgos eta San Pedro de Cardena. A zelango Kalbario! Burgosko geltokian ordu eta erdi egon behar izan eben, bosnakako taldetxoetan bananduta. Aita Patxik gogoan dauka: “Nik etenbarik erreztatzen jardun neban lurrera begira eta inori jaramonik egiteke, Pasiotar Jantzi Santua soinean nebala. Gudari lagunak esan eusten gero: Burgosko kaletik hainbeste jente hurreratu zala, alkarri inotsela: «Ene, hor praile bat!» Batzuk harritu egiten zirala, baina gehienak amorruez inoela: «Praile bat, praile bat dago geltokian! Eskegi egin behar da»”. Burgostik 14 kilometrorra dagoan *San Pedro de Cardena* monastegira aldatzeko asmotan eroan ebezan. Hau beneditarrak IX. gizaldian jasotako monastegi entzutetsua da; geroago kartujoak eta kaputxinoak egondakoa; eta orain zistertarren esku egoan, Trapa sailekoak. Hainbeste kapitana, jeneral, sarjento eta teniente artean bat Emeterio Garzia Juarez zan. Arabarra zan, erredentorista erlijiosoaren artean nobizio izandakoa. “Gizakoaia eta bihotz onekoa zan. Pasiotar kaperaua nintzala jakitean, ardura haundiak hartu ebazan nire alde, eta gaixoen gela baten jarri ninduan, Jose Antonio Zamalloa euskal kaperauagaz eta osagile bategaz”. Hainbeste batailoikoen artean, 1.500 prisioneru ziran eta danak ezagututen eben Aita Patxi entzutez edo ikustez. Beti lez, Aita Patxi mezara. Berak mezea emoteko baimenik ezin izan eban lortu. Lan nekagarrietara behartuten ebezan prisioneruak; 8retatik 12etara eta 3etatik 7etara. Urruneko harrobietatik harritzarrak lepoz eroanez, bide barrigintzarako. Langile prisioneru baten testigantza dogu: “Aita Patxi eskulanetik libre itzi eben, baina berak geugaz batera gura izan eban lan egin, nekez eroan ezineko harriak hartuta. Bidean batuten jakozan lagunakaz errosarioa erreztatzen eban. Anarkistak eta, Aita Patxi bere borondatez euren arteko egin zala jakitean, harrituta inoen: «Abade danak honelakok izan balira, ez zan jazoko Espainian jazo danik»”. Behin batek kezka izandu eutsan:

— Aita Patxi, zergaitik ez zara libratzen, ahal izanda?

— Gudariak errudun badira, neu ere bai, euren antzera —Aita Patxiren erantzun garbia.

Aita Patxi zan danen zerbitzari: “Aita Patxik bere gain hartu eban gaixo eta zaurituen plater eta ontziak garbituteko ardurea, eurai aurretiaz jatekoa zerbiduz. Berak ez eban jango, danei jaten emon arte”. Hauxe bai abade zintzo, apal eta arduratsua! Presondegiko bakoitzagaz nahi izaten eban berba egin. Bakoitzaren osasunaren eta senideen egoeraren arduraz agertzen jaken beti. Behar eben guztirako ahal ebana egiteko prestatzen jaken. Halan eta guztiz ere, barru-bizitzan iluntasun bat bai! Ezin mezarik emon, Eleizama hain lohituta ikusi beharra, eleizgizon batzuen portaera lotsagarria; eta batez ere, Jaungoikoaren isiltasuna bere barruan... Bere burua askatu ahal izan eta besteen arduraz katigu geratu eta Jaungoikoa isilik. Ez al da nahiko gurutze, danik eta santuena ere lurragaz bat egiteko? Baina berak dinoskunez, izan eban *aingeru-bisitaldia*; gauetan ordu bi eta hiru emoten ebazan otoitzean belauniko gurutzaren aurrean: “Orduan bai argitzen jatala barru osoa!”

*Jainkoak ez dau gurutzetik askatzen,
gurutzean bertan dau salbatzen.*

I

O Aita Patxi, zer hasi zara
komentutik komentura,
Gasteiz itzita, jo Cardeñara
pizti batzuen modura?
Alde batetik gosea eta
bestetik a zer tristura!
Zeure buruaz ahaztuta, jarri
zara danen zerbitzura;
oraintxe sartu zara bigarren
aldiz nobiziadura.

2


Mila ta bostehun gudari lagun
gose ez zana, egarri,
zu Aita Patxi, zeure lanean:
eroan eta ekarri.
Ama on bat lez, ondora joanda
inor baegoan larri;
zu ikusita, harri ta orma
danak itaunka alkarri:
“Zorionean geugaz daukagun
aingeru kontsolagarri!”

3

lhesi joan zan komunista bat
ta bera asturiarra,
harrapatuta, laster batu zan
hango Junta militarra:
“Agiri dago, bere bizi-
dauka ordaindu beharra”.
Laster zinan Zu euren aurrean
bihotzean su ta garra:
“Ez, hori ez hil! Bere lekuan
neu hil naizue ta parra”.

4

Harrigarria izan zan zure
bizitza garbi zuzena,
orain eskeindu zure bizia,
hori izan zan azkena...
Horren aurrean nor ez zuzendu,
baita gaizto okerrena.
Platika gitxi, praktika asko,
hau da askok inoena:
“Jainkorik bada, sinisten dot nik,
baina Aita Patxirena”.



Cardeñako San Pedro monastegia. Aurrean Aita Patxigaz bertan preso egondako taldea.

「Hil neu horren lekuan」

Zintzoak beti emoten dau bere maitasunaren ezaugarria bizitzan; baina gitxien uste danean, gorengo maila joten dau. Ama zintzoaren antzera: seme-alabak arriskuan dirala, ezin da ezer egin barik egon; are gehiago, inoiz bere bizia ere jokutzen dau euren alde. Aita Patxi ere maisu trebea dogu ebanjeliozko bizijokoan, baina honako honetan *ordago* jo eban. Mariak bere Semeari bidera urten eutsanekoa ondo gogoan eukan. Jokaldi honek testigu danak itzi ebazan harri eta orma eginda, eta behingoan zabaldu zan aho-belarri, alde bateko zein bestekoan artean: “Aita Patxik bere burua jarri dauala, heriotzara kondenatuta egon dan baten orde”. Hara: asturiar komunista prisioneru batek ihes egin eban, baina behingoan harrapatu eben. Eta gehiagoko barik, heriotz zigorra ezarri eutsoen. Azken orduko espiritu-laguntzak eskeindu eutsoezan, baina holakorik ez eban onartzen. Aita Patxi gogora etorri jakon, eta bera bialdu eutson, eritzi guztietakoak onartzen ebela eta. Aita Patxi bera dogu kontalari: “Sarjento napar batek agertu eustan harako asturiar batek ez ebala nahi ez abaderik, ez prailerik. «Neu joango naz», erantzun neutsan; gaua bere ondoan emongo dot, eta Ama Birjinak bigunduko deutsa bihotza”. Esan eta izan, Aita Patxiren laguntza pozik hartu eban; ziur egoan bera ere maite-maite ebala. Eta gauean zehar, dast!, argi bizi bat bihotzera: “Nik errukarri haugaitik zeozer gehiago egin behar neuke. Sarjentoagana joanda, plausta: «Gixajo horren lekuan neu jarten naz. Horren lekuan neu hil naizue». Emeterio Garzia Juarez berak kontatzen deusku zehatzago:

— Komandante jauna, mesede bat eskatzera nator.

— Zer nahi dozu?

— Esteban Plagaro askatu daizuela, eta haren lekuan neu hil naizuela. Gizon honek umeak eta emaztea daukaz eta umeak aita barik eta emaztea senar barik geldituko dira. Ni baino beharrezkoagoa da munduan.

Nik harri eta zur eginda, erantzun neutsan:

— Burgosko Junta Militarragaz kontatu behar dot. Eurak baietzean badagoz, emongo jatzu eskatzen dozuna —eskerrak emonaz eta irribarrez aldendu ’zan nigandik Aita Patxi.

Komandanteak Aita Patxiren borondatea norainokoa zan jakin nahirik, Burgosko Junta Militarrek ontzat hartu ebala jakitera emon eutsan; eta orma ondoan jarri eban, fusilatzeke prest. Aita Patxik eskerrak emon ondoren, bost minutu belauniko otoitzean egon zan, Jaunari bizia eskeintzen.

— Prest nago, bota! —erantzun eutsan orma ondotik beso zabalik.

Nik fusilak prestatzeko agindua emon neutsen hiltzaileei. Aita Patxi irribarrez eta zoriontsu agertzen zan asturiar komunistearen alde bizia emotera joiala eta. Nik ezin izan nebazan gorde neure bihotz-ikara eta malkoak eta esan neutsan:

— Kendu zaitetz hortik, Aita Patxi!

Ez dago Emeteriorik, ez Zeledoniorik, hau ikusita, bihotza zartatuko ez jakonik.

*Bonbak eta indarkeriak gizakia hil egiten dabe
maitasunak, barriz, bizi barriaren jabe.*

「Langileekin langile」

Guda-burrukan irabazten dauanak, zoritxarrez eskubide guztiak daukaz galtzaileen gain; galtzaileak ez dira inor, irabazleen esku dagoz euren bizia eta etorkizuna. Aita Patxi eta gudari lagunak egoera lastimagarri honetan aurkitzen ziran. Ez urik, ez jantzirik, ez izen onik, ez gizaki antzik. Cardënan eta Mirandan egozan prisioneruak egoerarik txarrenera aldatu ebezan: batailoi bitan banandu eta talde bakoitzeko 600 lagun. Eta honeek bost konpainietan, 120 prisioneru konpainia bakoitzeko. A zelako egitekoa suertatu jaken! Ebrotik beherako errepide eta zubiak berregitea, trintxera barriak ebagitea eta mina-zuloak zabaltzea. Eta guzti hau errepublikarren aurrez-aurre, lehengo euren alderdikoak izan ziranen tiropean. Aita Patxi 2. zenbakiko langileen batailoian sartu eben. Uztailaren 25a zan, Santiago eguna. Arratsaldean italiar kamioi batzuk heldu jakezan eta eurretan estu-estu tolestu ebezan. Gaixoak eta zaurituak ezinean ikusita, Aita Patxi han zan lagundu nahirik, baina ez eutsoen itzi: “Zu zagoz geldi! Orain ikusiko dozu espainiarren borondate ona norainokoa dan”, esan eutsan purrustadaka komandanteak. Eta Mirandan danak sartu ebezan ganadu-garraiotarako erabilten diran trenean. Ez egoan ezertarako lekurik. Venta de Baños, Salamanca, eta Talaveran gauerako. Gehienak zutunik ibili ezinik, egarriz eta beroz itota. Egun bi hazur eta mamin kixkurtuta. Martiritza honetako lagunak dinoenez, Aita Patxi beroz eta hats iguingarriz barru guztiak iribatuta, bereak eta bost jasan ebazan bidean. Talavera de la Reinara heldu ziran eta Aita Patxik otoitz pixka bat egin nahi, baina komandanteak laster kendu cutsazan gogoak: “Errezau? Orain, prisioneru zareanean errezau? Zuok danok gorriak zaree. Ospa hemendik!” Eta isilik eta burumakur baztarrera. Han atzean geratzen ziran Angosto, Deusto, Gorbea, Gernika, Bilbo... eta batez ere, beragaz atzera eta aurrera ibilitako gudari anaien gorpuak. Aita Patxik danak daukaz gogoan, batez ere, mezan eta otoitzaldietan. Urte biko erbestaldi latza eta iluna hasten eban Ebrotik behera. Baina Maisuaren antzera, gurutzedun langileei gurutze astuna eroaten lagunduz. Ez eukan beste ametsik. Eta horretan bai gero ahaleginak egin, nor zein dan begiratu barik! Hauxe izango da Aita Patxiren misino-lekua 1937. urteko uztailaren 27tik 1939. urteko uztailaren 27ra.

*Fededunaren zeru ilunean
beti da izarren bat han urrunean.*

LANGILE ANAIEKIN

1

Zenbat euskaldun gudarik daben
 ondo gogoan Brunete:
 hotzez gogortu, beroz kixkaldu
 ta janariz ezin bete.
 Han zenbat jasan eben entzuten
 luzaro egon leiteke;
 lehengo lagunen aurka joteko
 langile onak ta merke...
 zu Aita Patxi, zer ete zara:
 falangista ala rekete?

2


Eguzkipean trintxeraginen
 sarjentoen agindura,
 egarriz ito beharrez eta
 non danik ere ez ura.
 Zuk laster hartu zenduan lana
 pozarren zeure kontura:
 hartu upela zokaz lotuta
 esklabu baten modura,
 urrun egoan iturrirantza
 ha zan ha abiadura!

3

Ur gozo eta freskagarria
 egon arren hain epela,
 laster gozatzen ziran lagun
 eztarri eta sabela.
 Eskerrak zu han egon zinala,
 zer izango zan bestela?
 Danen eritiz, zuk Aita Patxi,
 merezi dozu txapela.
 Urre gorritan ezin ordaindu
 Aita Patxiren upela.

4

“Honeek gorriok zelan ez dauke
 ez buztanik, ez adarrik?”
 Holantxe uste eben askotxok,
 eta ez umeak bakarrik.
 A zer lotsari! A zer tristura!
 Ez dago esan beharrik!
 Kardinal Goma jaunak ez eutsun
 esan horren gauza txarrik:
 “Jaunaren nahia halan zala ta
 ez egiteko negarrik”.



Aita Patxi besotik eskegita erabilten eban zakutoa.

Amarenak egiten

Griñon aldera heldu orduko, ondo konturatu ziran hango egoereaz: mandoz eta burdiz Brunetik pilaka ekarrezan gorpuk eta zaurituak. Giro barri honen erakusgarritzat, gogoan hartu honako hau: Chapinerian, olibo artean, sardina bana prestatu eutsen. Aita Patxik beste gose-egarri biziago bat eukan barruan: otoitz pixka bat egin nahi eta komandanteari baimen eske joan jakon. Sekulako purrustada latza jaurti eutsan: “Zu niretzat beste edozein zara. Hirurogei zigorkada merezi badozuz, harenbeste hartuko dozuz. Zoaz hemendik arin baino arinago, bestelan...!” Aita Patxik, ebanjelioko kontsejua betez, eskatu eta eskatu. Baina ogia eskatu eta egurra eskuratu. Testigu batek kontatzen deusku: “Gaeuz, danok oheratuta gero, Aita Patxi ikusi neban, burumakur eta bildurrez, komandanteagana hurreratzen, hirugarrenez baimen eske: «Ene komandante jauna, asko eskertuko neuskio, neure lagunakaz otoitz egiten itziko baleust». Eta betiko purrustada latza: «Alde zakidaz agudo hemenik, zoritxarreko sasikume hori! Esan deusut ezetz eta ezetz. Barriro bazatoz, asto zahar batek baino makilakada gehiago hartuko dozuz». Eta berbeari makilaz lagundu eutsan, Aita Patxiri burutik behera sekulakoak emonaz”. Eta Patxiren erantzuna? Ebrotik gora zein Ebrotik behera Aita Patxi beti bat: “Geuk, taldeko gudariok, geure artean bakarrik egingo dogu otoitz. Jainkoak parkatu deiola!”

Eta goizetik gauera trintxeraginen: Brunete, Jarama, Carabanchel, Casa de Campo... Han eskuratu eutsezan palea eta pikoa uztailearen 28an eta 29an eguzki galdatan kixkaldu behar! Aita Patxi dogu kontalari: “Gaueko laurak ziran. Ha zan egarria! Inguruetan ere ez zan ituririk; kilometro askotako bidea egin behar zan. Geure lagun egin zan alferrez batek itzi euskun ur bila joaten”. Handik aurrera Aita Patxi izan zan ura ekarri eta irribarrez danei zerbitzen eutsena, lehenengo gaixoei eta gero enparauei. Erromualdo Agirre langilea dogu testigu: “Aita Patxi zurezko upela lepoan ebalá, 40 eta 50 gradoko eguzkitan, egunean hiru-lau bider joaten zan 6 kilometrotara egoan ur-askara; eta nekearen nekez makurtuta, aldatzean gora ekarten euskun mama gozoa. Bidean moroak adarra jo eta irain baltzak botatzen eutsoezan. Baina haren poza, ur gozoa gudariei zerbitzen, eta bardin bestelakoei ere. Berarentzat bardin ziran gudariak eta soldaduak, bere karidadeak ez eukan kolorerik, ez mugarik. Moroa bazan ere bardin eutsan, egarria asetzekoan... Urte asko joanda gero ere ezin dot esan barik itzi: «Jainkoak ordaindu deizula hainbesteko on egitea! Bihotzetik, Aita Patxi!»” Aita Patxiren upeletik trago ederrak edan ebazan baten testigantza dozu hau ere: “Aita Patxiren birtute nagusia urkoaganako mugabako karidadea izan zan. Gure egarria asetzearren bide luze neketsuak egiten ebazan, upela lepoan ebalá. Mundu honetan ezin daiteke egin besteen alde, gizon honek egin eban baino gehiago. Guretzat ama bat izan zan”. Hamaika langile anaien izerdia txukatu eta euren bihotzak gozatu ebazan Aita Patxik! Beronikak Jesus Maisuari gurutzebidean lez.

Hainbesteren artean lau lekuko ekarriz burutuko dogu ataltxo hau:

- “Bere hartuemonetan begirune gehiago eukan eleizatik aparte ebiltzanakaz. Eleizarantz erakarteko-edo.”
- “Goizetan gaixorik egozanen txaboletara joaten zan; bere kontura emoten eutsezan esne trinkoa, beroa, botikak etabar, eta bere irribarre goxoz eta berba samurrez kontsolatzen ebazan.”
- “Behin baino gehiagotan ikusi neban Aita Patxi beretik emoten besteei. Batez ere, jakitez edo sinistez, danen artean errukarrienak zirudienei.”
- “Gaeuan, oherakoan, talde guztiak bisitatzen ebazan, eta banan-banan bakoitzagaz arduratzen zan, aita edo ama on batek bere seme-alabakaz ohi dauan lez.”

Amarik maitagarrienak besteko errukiz eta ondonahiez jokutzen ebala agirian geratzen da. Egunez eta gaeuz, beti zelán urkoari lagunduko asmatzen eta jokutzen. Hainbesteko gogorkeri eta laztasun giroan zer poza holako amaorde baten laguntza!

*Abadeak honelakoak balira,
orduan bai Eleizeak dizdira!*

AMARENAK EGITEN

1

Agur ume ta agur emazte,
 hau bizimodu gogorra!
 Hemen ez dago besterik ezer,
 dana zorri eta zorra.
 Eskerrak gure artean dala
 kaperau errukiorra:
 gau ta egun nor poztuko dabil
 etenbarik hona-horra;
 bere irudi salbagarria
 inoiz ezin jaku borra.

2

Zeuk buruari kendu ta emon
 zeure lagunei onenak,
 zeurerik ezer ere ez zeunkan,
 zeu ta dana besterenak.
 Zenbat ahalegin gozatu nahirik
 gudari anaien penak!
 Gehiago egin nahi ta ez itzi
 agintarien ordenak.
 "Eskerrak Aita Patxik egiten
 euskuzala amarenak!"

3

Han eta hemen sarri entzuna
 ekarri nahirik gogora:
 inor ikusi ezkerro triste
 laster zan bere ondora.
 "Ea mutilak! Hori da jite
 ta gudarien ganora!
 Arerioak bota gaitue
 geure herritik kanpora,
 baina Jainkoa geugaz dogu ta
 buru ta bihotzak gora!"

4

Zu Aita Patxi, ibili zinan
 beti ta nonahi abade,
 danen nagusi bihurtu zinan
 eginik danen mirabe.
 Zuk ez zenduan behar armarik,
 beti jardunaz xuabe,
 armadun danak hezi zenduzan
 batere armarik gabe;
 danen gainetik zeu izan zinan
 zeure buruaren jabe.



Zeamuriko parroki eleizea.

Egin-ahalak egiten

Bizitzako itsasoa beti dago olatuz astindua, behin gora eta behin behera; behin bareago eta behin harroago. Itsasoko ontziari lez, beti eragiten deutsoe gure ontziari ere. Ezin inoiz geldi-geldi egon. Itsasontzia txikia ala haundia izan, hor alde haundia dago. Ontzi haundia balantzaka jarteko, olatu montorrak behar dira. Aita Patxi honetariko bat zan. Egoan lekuan egoala, beti ez eukan gogo bardinez bizitzerik; barealdiak baino olatu harropuztuak gehiago suertatu jakozan. Baina jausi-jagika gurutzebidean beti aurrera, Maisua bidelagun eta erakusletzat hartuta.

Aita Patxik berak ere egarririk jasan eban, zurezko upela urez beteta, ugalez bizkarrera lotuta aldapan gora. Baina bere egarri biziena beste bat zan: Bere anai Langile martirien salbamena, zoriona. Egin-ahalak egiten ebazan euren alde. Moroak ugari ziran euren artean, eta biraolari hutsak ziran. Aita Patxik birao bat entzuten ebaneko: “Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa!”, esaten eban. Lagunak laster hurreratu jakozan: “Kontuz, Aita Patxi, horreek odol berokoak dira eta”. Bere erantzuna: “Nahi badabe, hil naiela, baina holako baten aurrean isilik ez!” Bere apostolutza ondo egin beharrez, *Goma kardinalagana* joatea lortu eban, bere abade-zerbitzuak behar dan lez betetzeko baimen eske. Txandako militar arduradunak berak erakutsi eutsan bidea: “Zu zeu joango zara Toledora eta horrela atonduko dozuz hobeto zeure arazoak”. Aita Patxiren poza! Ez joian bere askatasun eske, Langile Anaiei abade lez espiritualki hobeto zerbitzeko laguntza eske baino. Bere Langile Anaiei berbea emon eutsen batailoian jarraituko ebala, azken gudaria askatu arte. Goma kardinala ezaguna zan Aita Patxirentzat: Berak kondenatu ebazan euskaldun katolikuak, gorrien aldera jo ebelako; berak idatzia izan zan geroago Espainiako gotzain guztiak izenpetu eben deklarapena, Frankoren alde oso-osoan jarritz. Aurrez-aurre gudarien kaperaua eta bere aberria haustu eban Frankoren gudaroste osoaren kaperau nagusia. Zelan onartu Aita Patxik Gomaren pentsaerea? Baina bera zan hango eleizburua eta beragandik lortu behar eban —eleizgizon lez— gudarien alde jarduteko baimena.

Itzi deiogun Aita Patxiri topaketa honen barri emoten: “Lotsatuta nengoan; ez nintzan inoiz aurkitu kardinal baten aurrean, ez nekian holakoetan zer zelan egin ohi dan. Pasiotarren artean ohi danez, belaunikatu, eskuan mun egin eta esan neutsan:

- Jauna, ez dakit zelan egon behar dodan eleiz printzipe baten aurrean.
- Ez deutso ardura. Zatoz ondora eta jesarri zaitetz hemen kezka barik.

Nik jakitera emon neutsan nondik nora eta zetan ibilia nintzan, eta erantzun ere egin neutsan, egin eustazan itaun batzui. Ondo gogoan hartu neban esan eustan hau: «Jaungoikoaren borondatea da zu hemen egotea, Langileen batailoiaaren kaperau». Eta beste barik, meza emoteko eta gainerako kaperau eginkizunetarako baimen osoa emon eustan”.

Ez da berbaz esatekoa Aita Patxik gudari langileen artera eroan ebazan poza eta itxaropena! Hau ikusita, askok esaten eben aho-betean: “Abade danak honelakok balira, erlijinoa beste kontu bat izango litzateke”.

*Mitra buruan ala kupel astuna lepoan,
zer da haundiago Ebanjelioan?*

[Ama, ez dauke adarrik]

Ez da errez inoren zikinez norbere burua garbitzea. Eta holakorik asko egin izan da burruka zitalen ondoren, zeozelan norbere alderdikoan astakeriak onitxuraz zuritzearren. Irabazlea beti izan ohi da garbia eta ona; galtzailea, barriz, hondatzailea eta sasikumea. Txarrena zera: Eleizea bera ere ez dagoala honetan garbi: kondairan zehar, gehienbaten irabazleen alde agertu izan da. Hainbeste urtetan zehar, zer ez da esan eta egin euskaldunen izena eta egintzak txartzat agertzeko eta botatzeko! Zenbat gorroto eta alderdikeri sortu dan gure artean, hori dala eta! Orduan ugari erein zan txominbedarraren haziak emon dau bere frutu garratza zoritxarrez. Aita Patxik sarri gogoratzen dau, Nazareteko Maisu Haundiari ere holakorik asko jausi izan jakola, bere senide eta erlijinoko arduradunen aldetik. Eta aurrera Maisuaren atzetik.

Abuztuaren 13an Brunetetik Griñonera aldatu ebezan, 14 kilometroko bidean. Aita Patxiren autorpen mingarria dogu ondorengo hau: “Griñongo kaleetan ama mordoxkak han eta hemen, euren seme-alabatxoak eskutik hartuta, geuri begira. Umeak, euskaldun prisioneruak zirala jakinda, barrezka euren amei zarataka inotsen: «Ama, ez dauke adarrik!» Hau lotsaria! Eta jazoera mingarria. Zer entzun ete eben ume errukarri hareek, euskaldunak *buztandunak* eta *adardunak* zirala sinisteko?” Jesus Maisuak Kalbario-bidean amei esandakoa Aita Patxik gogora: “Jerusalengo alabok, ez egin negarrik Nigaitik, zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik bai egin negar. (...) Izan ere, egur berdean hau egiten badabe, igarrean zer egingo ete da?” (Lk 28-29). Etenbako eztropezuz beterik suertatu jakon Madril aldeko Kalbarioa. Hona hemen beste bat: Mezea emoteko eta abade-eginkizunetarako baimen-papera eskatu eutsoen eta berak ezin emon; baimen hori berba hutsez emon eutsoen eta, ez eukan ezelako agiririk. Akabo bere eginbeharrak! Abuztuko Andra Mari jaieguna ganean, Begoñako Amaren eguna. Aita Patxiren ahaleginak, gudari guztiak autortu eta jaunartzera joan eitezan! Berak ez eukan autortzerik, ez meza emoterik. Entzun deiogun berari: “Espainiar abade bat etorri zan gudariak autortzera. Eta esan eustenez, ia zenbat soldadu espainiar hil ete ebezan itanduten ei eutseen. Asko erantzuten ebanari parkamena ukatu egiten eutsan. Meza denporan igon pulpitora eta berba egitera ninoala: «Jatsi behera hortik», agindu eustan, eta halantxe egin neban”.

Abuztuaren 16an Jaramako frentera aldatu ebezan. Mendietara igon eta urriaren hasierara arte han egon ziran Kalbario gorrian. Aita Patxi dogu kontalari: “Gau eta egun zuloginen, trintxerak egiten jarduten genduan, errepublikarren aurrez-aurre. Izarratuepean lo egiten genduan. Etxeak eta txabolak espainiarrentzat izaten ziran. Hilabetetik gora egon ginan ezer berorik jan barik”. Esan beharrekoa da hau ere: Aita Patxik beste edozeinek beste lan egiten ebala pikoze eta palaz, nahiz eta horretarako behartuta ez egon. Eta gaez errezuak egiten eta anaiei laguntzen. Horra Julian Abasolo gudariak esana: “Jaramako egotaldian, iluntzetan Aita Patxi taldez talde ibiltzen zan deika: «Anaiok, goazen Jaunari laguntza-eske otoitzera. Hori errosarioaren bidez egingo dogu. Etorri, anaiok!» Eta bere inguruan poz-pezik batzen ginan eta gauero errezatzen genduan errosarioa. Aita Patxiren apaltasunez, karinoz eta santutasunez zeru pixka bat ikusten genduan”.

*Adar-buztandunak baino
adarbako biburriak okerrago.*

┌ Valdemoroko ospitalean ┐

Griñonetik Jaramarako bidea benetan neketsua abuztuaren 16an! Madril aldeko gurutzebideko bederatzigarren jazoera honen barri jaso daigun: “50 graduko eguzki kixkalgarripean, gosearen gosez indargetuta, gu gengoan egotekoak!” Angel Unjidos lagunaren testigantza hau interesgarria da: “Aita Patxik lagun barri bat ekarri euskun —Zornotzako Rikardo Bikandi— eta biori emon euskun prisioneru gaixo baten zaku astuna, eta bera beste prisioneru errukarri baten zakua bila joan zan. Nire eskaririk beroena haxe da: Jauna, Aita Patxiren zakua eroaten partetxo bat izan dogunok, zakudun nagusia izan dogun Aita Patxi santu haregaz partetxo bat izan daigula zure ondoan ere”. Jaramako arboladian jaso ebezan txabola antzeko batzuk; curen izen eta guzti. Aita Patxik bereari *Jesukristoren Nekaldia* ezarri eutsan, santu pasiotar bati dagokionez. Aita Patxi, han zein hemen, beti bere bidean: “Aita Patxi geugaz geunkan lanean eta danean. Santu-fama haundia hartu eban; langile gehienok hatakotzat geunkan, onegiten nekaezina zalako, bai gorputz eta bai espirituzko beharizanetan apartekoa”. Ibili eta ibili, Aita Patxi bera ere gatx gogor batek jota gelditu zan. Beragaz batera asturiar komunista bat ere gaixorik jausi zan. Eta Aita Patxi, bere ezinean, hari zelan on egingo: “Hau ez badaroe ospitalera, neu ere ez naz joango”. Bere autormena dogu: “Zutunik egon ezinik, lurrean luze etzunda nengoan, alde batean pikoa eta bestean palea. Azken batean, gutaz errukitu eta gaixo guztiok Valdemoroko ospitalera eroan ginduezan. Karidadeko Alaba erlijiosak ziran hango arduradun. Geure amak baizen gozatsu hartu eta zainduten ginduezan. Abuztuaren 25a zan. Biharamonean ezin mezarik emon, eta Gure Jauna eskatu neutsen, pasiotar erlijiosoa nintzala agertuz. Bost egunez Gure Jauna ekarri eustan kaperauak eta ondo baino hobeto egon ginan bertan. Seigarren egunean, ondo nengoala eta, mezea emon nahi izan neban; baina ez eusten itzi, prisioneru gorria nitzalako. Osagileak ziran honelakoak. Erlijiosen arteko bat gernikarra zan. Nire ahoz jakin ebazan Gernikan jazotakoak; bihotza samurtu eta negarrez hasi zan”. Beste hau ere gogoan hartzekoa da: “Gauerdian trintxeratik langile bat etxeratzean, neu lotan nengoala, gaueko hiru *Agur Mariak* ondora joanda erreztatu ei neutsazan, berak goizean esan custanez. Nik neuk ez neukan holakorik gogoan. Aingeru jagolea-edo izango zan”. Gurutzebideko bederatzigarren txanda honetan ezarri nahi dot, testiguak eta berak Aita Patxik hainbeste bider esandako hau, antz emon deiogun, langileak noraino geratu ziran gizatasunez bilostuta: “Bageunkan beste zeregin iguingarri bat ere, trintxeragintzatik aparte ere: moltzoka aldean geunkazan zorri mandoak kanporatzea”. Holakorik! Eurak zerjanik ez, eta zorriak euren lepotik apurrak jaten!

*Zorriduna errukarria,
zorriztoa kaltegarria.*

「Carabanchel」

Egunak aurrera eta gurutzebidean gorago. Pausoz pauso bizia emoten zerbitzuan. Gurutzean josi eben Maisua beti gogoan. Egurrezko gurutzean, nahiz gaixoaren gurutzean, nahiz egoera estularrien erdian, gurutzea beti gurutze. Carabanchel Alto hori ez jakon ahaztuko Aita Patxiri bizitza guztian. Hantxe josi eben benetako gurutzean.

1937. urteko irailaren 16an, goizaldeko 4etan, autobusetan pilatu eta Carabanchelera. Hemen emon ebazan Aita Patxik gainerako hilabeteak. Aldaketa hau ospatu behar zala eta, Aita Patxi komandanteagana, mezea emoteko baimen eske uste osoz. Halako erantzuna jaso eban: “Zu, prisioneru gorrien arteko kaxkarren hori, zu nor zara nigana etorteko? Nigana orduko, beste ate asko jo behar zenduzan”. Eta akordagarritzat arpegiko bi emon eutsazan. Aita Patxik mutik egin barik jasan eban dana. Zer gertatu ete zan gero? Dana dala, Bizkaiko gerraldian bere lepoan erabili eban 27 kiloko aldare-kutxa zorioneko hori zabaldu, eta ordubete baino lehen plaza ertzean mezea emoten egoan, batailoi osoa inguruan ebala. Eta berbaldi beroa egin eutsen aspaldiko partez, eroapen eta parkamen giroan dana sufritzera animatuz, gurutzeak orduan bakarrik daukala balio haundia, gaineratuz. Aduri langile lagunarena dogu ondorengo hau: “Guztitariko jentea gengoan prisioneruen artean: fededun eta hainbako, euskotar eta osterantzeko. Askoren aldetik ahokada lotsagarriak eta ziri mingarriak jasaten ebazan Aita Patxik. Baina berak dana isilik eta burumakur hartzen eban. Ez egoan ezer bere apaltasun eta sendotasun hesia apurtuko ebanik”. Handik laster Aita Patxi eurakaz berbetan egoan, ahal eban guztian zerbiduz. Pikaso komandantea jarri zan euren arduradun, Castro gaixorik egoalako. Hor doa Aita Patxi, mailaz mailako baimenak lortuta, beragana. Beste purrustada bat lepora: “Zelan zatoz zu nigana? Zoaz arin nire aurretik kuartelera. Emoten badeutsut ostikada bat zereko zerean... Bere aurretik jaurti ninduan, ostikada bakoitzeko ahokada berba zantarrak boteaz”. Hementxe, Carabanchel Alto deritxon trintxeretan hasi zan Aita Patxi prisioneruei *langile anaiak* deitzen. Beste batzutan *martiritzat* ere hartzen ditu. Eta han ebilen egun osoan anaiartean lanean eta zerbitzen. Zerbitzu berezi bat asmau eta bete eban langile anaien alde: *tabakorria zerbitzea*. Trintxeraginen ziharduenei banatzen eutsezan; eta atsedean hartuz, erretzen egozan bitartean, berak lan egitean eban euren orde. Jokabide honegaz guzti-guztiak egin ebazan adiskide haundi. Hutsik egiten ez dauan jokoa erabili eban: maitasunari maitatuz egiten jakoz bideak. Aita Patxik hemen izan eban lagun kontsolagarri bat: *Benita Albizuri*, Oblatas erlijiosen ordenakoa, Bizkaiko Axpeko alabea berau. Aita Patxiri bere ama Benita gogorazo eutsan, dinoskunik: “Haregandik behar nebana lortuten neban: mezarako ardaia eta ogi santua, eta gudariantzat jateko ugari. Benetan deitu neikio neure ama eta gudarien ama. Anai langile martiriei ahal dan guztian lagunduteko, aukera hau ondo baino hobeto etorri jatan. Zorritz beteriko nire eta gudarien erropak harek garbituten euskuzan, ia-ia dohan”. Jetsemani eta Kalbario gogorrean ere beti izaten da aingeruren bat, kontsolatzeko eta gogoa bixkortzeko. Eta Aita Patxiren dirua nondik norakoa ete zan? Hauxe da argitu ez dogun sekreto; askoren ustez, miraria. Hainbeste gudarien erropak garbitzea, jantzi barriak eskuratzea; gaur jateko pila bat, bihar botika zerrenda luzea, tabakorria etabar, dana dohan. Aita Patxik hauxe zirudian: baserrietan egon ohi dan denda zahartxo. Danetatik egon ohi da: jan-edari, jantzi, oinetako, botika, tabakorri... eta zer ez? Eta noren kontura? Berak bakarrik daki. Danen izenean hau esateko inoiz ere ez da berandu izango: “Jainkoak ordaindu deizula!”

*Besarkadaka eta ostikadaka,
gizona garbitu eta sendotzeko laba.*

1

Gau eta egun gelditu barik
jo ta ke ekin-ahalean,
nondik demontre zeunkan indarra
zure gorputz argalean?
Gogoia sendo, baina gorputza
egoera makalean;
han Valdemoron sartu beharra
gaixorik ospitalean,
monjak ere ezin igerri nor zan
hain itxura apalean.

2

Prisioneru gorria zinan
ta gudarien kaperau,
danak inoen: "ze ganadu ta
ze traste ete da berau?"
"Komandante jaun, entzun eidazu..."
Honek destaina ta birau:
"Sasikumea, alde nigandik",
ostikoka bialtzen dau;
Jesusen antza izatearren
isilik hartzen eban hau.

3

Bazenkian zuk zigor-lanetik
libre gelditzen zinala,
baina lehenengo hartzen zenduzan
pikatxoa eta pala.
Tabakorria banandu eta
atseden hartu daiala,
bitartean zeuk haren ordeztan,
ez galtzearren "jornala";
zigor mortalak umorez hartzen
ez zinan izan makala!

4

Jakin nahi neuke zelangoa zan
Aita Patxiren txilina,
Errosario santura deika
iluntzero ahalegina.
Taldea ederra alkartzen jatzun,
ai zure poz atsegina!
"Santa Maria, ora pro nobis"
amaigabeko ekina;
"Gorriak" holan ikusi eta
"baltzak" sinistu ezina!



*Benita Albizuri, Oblatas deritxoen erlijiosea,
Axpeko alabea, Aita Patxiren ongilea.*

Abade langilea

Gudako Kalbario-bidea azkenerantz doa. Gehienak, curak nahi barik, behartuak izan ziran jokatzera, batera edo bestera jokatzeko aukera barik. Eta *gorrien* aldekoak laster baltzitu ebezan, diranak eta ez diranak euren aurka lau haizetara zabalduz. Aita Patxiri ere horrela heldu jakon agindua: “Zoaz hara, hau egizu, zabaldu besoak, luzatu oinak”. Eta gurutze negargarrian ondo josita, lotuta gelditu zan; eta handik hona eta hemendik hara ondo zapalduta. Baina bere bihotzean beti Maisuaren eroapena, errukia eta parkamena, danentzat zerua.

Itzi deiogun berari kontatzen: “Gau baten banoa txilin txiki bategaz gudariei errosariorako dei egitera. Ez jakon hau gogoko izan komandanteari, eta Carabanchel Bajora, leku barrira eroan ninduen, ordu beteko bidean gauez. Gudariak triste ere tristerik jarri ziran ni eurakandik alden-duten nintzalako. «Ez negarrik egin, Jainkoak lagunduko deusku guztioi» esanda kontsolatzen nebazan. Zer egingo da, ba? Egin bedi Jaungoikoaren nahia. Errosario santua errezatu neban gudariekaz eta sukaldeko lagunakaz; eta Jaunaren eta Ama Birjinaren eskuetan itzi nebazan”. A zelango poza leku barriko Langile Anai Martiriak, Aita Patxi euren artean ikusita! Aita Patxi bere betiko gordelekura: “Lerro okerretan ere Jaunak eta Ama Birjinak zuzen idazten ei dakie. Nik apostolutza-esparru zabalagoa izango neban, Carabanchel Bajo eta Alto bien erdian neu nintzala”. Eta Aita Patxi “alto-bajo” guztietan bardin. Entzun lagun bati Aita Patxiri buruz: “Bera lanetik libre egon arren, behin batari eta behin besteari palea kendu eta jo ta ke bere orde zuloz; beti egoan lanean beste inor baino gehiago. Abadea eta langilea, biak batera eta benetakoak zira Aita Patxi: abade, geu kontsolatzeko eta Jaunaren bidean zuzenduteko; eta langile, geuri txandaka lagunduz”. Jose Maria Madinabeitiarena dogu ondorengo hau: “Aita Patxik kapilan errezatu ohi eban errosarioa. Behin Leon sarjentoari badinotso:

- Zuok, sarjento eta enparauok, zergaitik ez zatoze errosariora?
- Bai, joango gara, aurretiaz ekarten badeuskuzuz lo egiteko lastamarragak.

Aita Patxik benetan hartu eta hor doa hainbat kilometroko bidean, ostera bakoitzeko lastamarraga bat lepoan ekarrela, arnas estuka eta izerdi patsetan. Zortzirak inguruan alkartu ohi ginduzan errosariorako; lehenengotan geu langileok bakarrik; baina handik lasterrera, han ziran sarjento eta tenienteok ere. Gaueko bederatzietan lanera urteten genduan, eta Aita Patxik otoitzean jarraituten eban, goizeko bostetan gu etxeratu arte, noizean behin atsedenditxoak hartuz. Guk kapilan lo egiten genduan, eta Aita Patxi pulpitoaren barruan moldatzen zan. Oherakoan platera buru-aldean izten genduan. Goizeko txilin deia entzun orduko, Aita Patxi han jatsiko zan pulpitotik, bandeja eta guzti; eta ostera bakoitzeko sei katilu hartu eta minutu gitxitan danoi kafesnea zerbitzen euskun. Bakoitzari sorbaldan eragintxo bat eginaz «gosaltzera» dei egiten euskun”. Eta holantxe egunero, 1937ko irailaren 17tik 1938ko otsailera 2ra arte, bost hilabete luze gitxi gorabehera. Aita Patxik nonahi eukan pulpitoa, nahiz trintxerak egiterakoan, nahiz eleizakoan, beti isilean on eginaz.

*Ez arindu bako gurutzerik, ez gozatu bako negarrik;
horrela jokatu ohi dau
benetan maite dauan bibotzak bakarrik.*

「 Bizia jokatu 」

Bizia merke egoan orduan; huskeritxo bat nahiko zan 10 gizon garbitzeko: gudari edo komunista dala, beste barik jo ta behera. Aurretiz herria *koipea* ondo emonda badago eta epaituak ondo kakaztuta badagoz —orduan gorritz eta baltzez margotuak— dozenaka garbituta ere bardin. Kalbarioan lapur biren erdian hiltzen egoanak baekian honen barri: hamaika burla eta destaina, Jaungoikoa bera ere tartean sartuta. Aita Patxik Maisu ona eukan begiaurrean. Egunean zenbat bider egiten ete eban eskola-Maisuagana osteratxoa bihotzez! Bere jarkerak ikusita, ez dago zalantzarik.

Triskantza honen erdian Aita Patxik bost gizon bizirik atera ebazan, bera bitarteko jarrita, euren lekuan bere burua ipinita: “Neu ere euren errezkadan ipini nintzan. Kentzeko eta kentzeko handik, baina nik neureari eutsi neutsan: Ni hiltzen ez banozue, honeek ere ez! Zergaitik hil nahi dozuez? Jaungoikoari eskerrak bizirik itzi ebezan”. Gudariak hiltea zorriak hiltea baizen merke suertatzen zan. Behin baino gehiagotan inpernu bizi haretatik ihesi egin ebelako atxakia asmau eta beste barik garbitu ebezan hainbat. Esanda egoan: Ihesi edo bestekaldera joaten zan bakoitzeko, bere taldeko honenbeste hilgo ebezala. Aita Patxik lotsa eta bildur barik jokabide gaizto hau salatu eban; baina alperrik: “Horreek ez dauke parkamenik eta buruz behera doaz inpernura”. Holakorik lortuten eban bakoitzean, Aita Patxik ospakizun berezi bat egiten eban, Langile Anai guztien jaunartze nagusia antolatuz. Holako baten berak dinosku: “Eta han etorri zan hain gogor egin euskun kapitan hori ere neugaz autortzera eta jaunartzera”. Kalbarioan ere horrelako zerbait entzun zan: “Benetan, hau Jaungoikoaren Semea zan” (Mt 27, 56).

*Bizi barria sortzearren emoten dan bizia,
bori da mundu barriak behar dauan hazia.*



Igorreko Urkuzu auzoko baseleizea.

Gizon zakuduna

Zer da sendotasuna eta zer indarkeria? Sendotasuna, Ama Birjinak Kalbarioko gurutzeondoan agertu ebana, bere Semearen gorpua besoetan eukala. Hileta eta gorroto barik, azkenera arte irauten dauan maitasun-ekintzan agertzen da sendotasuna. Heriotzea bera baino ere indartsuago dan maitasuna. Eta indarkeria? Gizakiarena baino gehiago, abere-piztien da: *indartsuena alkate*. Nork arma gehiago, eta bera irabazle? Aita Patxik gurutzebidearen azkenera arte agertzen dauan sendotasuna harritzekoa da. Hainbeste indarkerien erdian maitatzen eta parkatzen, zerbitzen eta laguntzen irauten dauana, zer? Ataltxo honetan ere badogu zer ikasirik.

Otsailaren 2an hasita, Casa de Campo aldeko Casa Vacas izan eban apostolutza esparrua, 1939ko apirilaren 2ra arte: guztiz urte eta erdi. Maiatzaren erdi aldera Atotxako geltokian ikusten dogu. Leon izeneko sarjentoa eban buru, izenak adierazoten dauan tamainuko *erraminta* ederra berau. Halan ere, egoera lastimagarriak eraginda, sarjentoa komentu batera joan zan, bere eta langileen erropak garbitzeko laguntza-eske. Sekulako iskanbila atera ei eben euren artean:

- Ama nagusia, gure erropak garbituko al deuskuzue?
- Zein batailoiko jendea zaree?
- Langileen (trabajadorien) konpainia.
- Ez dot ezagutzen holako hori.
- Hara, trintxerak egiten diharduen prisioneruen erropak dira.
- Orduan, *gorriak* izango dira, ezta?
- Gorri nahiz berde! Erropak garbitu behar jakez. Gainera euren artean bada praile prisioneru bat ere. (Monjatxoaren bihotza samurtzearren-edo.)
- Halako piztia izango da bera!

Sarjentoa, ateari kolpe gogor bat emonaz, Langileen artera bihurtu zan txispaz armaturik: “Monjak ez deuskue erroparik garbitu nahi”. Aita Patxik, handik ebilela, hori entzunaz batera, badinotso:

- Izten badeustazu neu joango naz.
- Bai, baina eroaizuz soldadu jagole bi edo hiru, hatzamarka egin ez deizuen, bada ezpada ere.

Handik laster, han dator Aita Patxi irribarrez eta pozezko txaloak joz. Badinotse: “Anaiok, gorde bakoitzak dozuezan erroparik onentxoena eta besteak bota zaku biotara, monjei eroateko”.

Hurrengo egunean han etorren lepobeteko zaku haundiaren azpian, gudariantzako erropa garbik beterik. Zer *kili-kili* egin ete eutseen Aita Patxik monjatxoei, honelako aldaketa nabarmena eragiteko? Nork jakin? Eta horra Aita Patxi mandatari eta garraiolari bihurtuta. Zaku haruntz eta zaku honuntz, esku bategaz errosarioari eta besteagaz zakuari oratuz, karidadezko izerdiz ondo bustita. Jose Aduri lagunak dinosku: “Hamaika zorri eta uger eroan dau lepoan Aita Patxik monjetera! Saritzat ez euskun inoiz ezer eskatu, ez bidekoagaitik, ez garbikuziagaitik. Bera konponduten zan monjakaz. Beti agertzen jakun irribarrez gure aurrean: «Hemen dakartsuedaz jantzi-erantzirako erropa garbiak. Jaungoikoak eta Mariak lagunduten deuskue. Izan uste on Eurekan! Jaungoikoak erlijiosa on batzuk daukaz guri lagunduteko». Behin baino gehiagotan bera ikusten genduan gaixoen erropak garbitzen”. Komentuko Ama Benita dogu testigu zuzena: “Bide luzeak eginda helduten zan gurera Aita Patxi. «Praile zakuduna» deituten geuntsan; beti abarketak edo zapata zahar batzuk oinetan ebazala, kaltzerdi barik, sarri orpo eta inguruak odoletan. Berari begira egoten ginan harrituta, zelan ibiltzen zan zaku azpian makurtuta, erropa, janari eta harrapatzen eban guztia gudariantzat garraiatzen. Benetan maite ebazan bere prisioneru lagunak. Sarri erantzuten euskun: «Neure Langile Anaientzat dira, errukarriak zehatz hondaturik dabiltz eta». Bidean gora eta behera ikusten ebenak “hor doa zakuduna” esanaz alkar ulertuten eben. Asteroko eginbeharra: astelehenean eroan eta zapatuan ekarri. Erdi-hilik egozan prisioneruak Aita Patxiren esku bedeinkatueta aurkitzen eben bizipoza, Kalbarioko Ama Ederraren magalean bere Semeak lez.

*Gizon zakudun hau zer da: santu, zoro ala eskeko?
Dana dala, gaur ere bolako asko balego, hobeto!*

1

Leon sarjento ipurterrea
beti odol-irakinez,
gudamutilak zikin-hatsetan
eta zer egin jakin ez.
Monja-etxean atea jota
erregu apal eginez;
baina "gorriak" zirala eta:
"Hondatu beitez zikinez".
Ondo ornidu ebazan gero
erderaz edo latinez!

2

Haren ondoren Aita Patxi da
apal eskean doana,
lehoi zakarra baino gehiago
da bildots makal otzana.
Irribarrez ta pozarren dino:
"Anaiok, lortu dot dana:
erropa onak sartu zakuan
ta bota gauza ez dana".
Ze hauts edo hitz izan zenduan
sinisteko zuk esana?

3

Zu Aita Patxi, ez zagoz lotan
hasi zara hara-hona,
izen barria jarri deutsue:
"Horra zakudun gizona".
Zikinak haruntz, garbiak honuntz,
beti besteentzat ona.
Han ez zan beste ordain-saririk:
langileen zoriona;
hau nekelorra hartu dozuna,
garbi esanda "kristona".

4

Zaku haundi bi lepoz hartuta
a ze astotxo polita!
Handik aurrera langile danak
ondo ta garbi jantzita.
Agurtza deuna zan zuretzako
graziazko dinamita;
o Aita Patxi, monja guztiak
zeuri laguntzen jarrita;
zuk ez dozu, ez, inoiz ahaztuko
Axpeko Ama Benita!



「Atotxan kale garbitzen」

“Jaungoikoaren Semea bazara, jatsi zaitez gurutzetik; salbau egizu zeure burua eta gu. (...) Bere itxaropena Jaungoikoagan jarri dau; askatu daiala, ba, orain gurutzetik, benetan maite badau behintzat” (Mt 27, 40.43). Jesusek isilik eta bihotz eta beso zabalik amaitu eban bere oparia, geroago jasoko eban zintzoaren saria. Lurpean sartzeraino maite izan gaitu! Inork ez deutso bizia kendu, Berak emon egin dau, horretarako etorri zan: bizia emonaz, bizi barria eta betikoa sortzera. Harrezkeroko gizaldietan hamaika miloi izan dira, bere antzera, zapalduak, lurperatuak munduko indartsuen ostikopean, munduko errukarri eta baztertuen alde jokatzearren!

Euretariko bat Aita Patxi dogu. Mila aukera etorri jakozan arriskutik eta gurutzetik ihes egiteko; Langile prisioneruen artean ez egoan trintxerak egitera beharturik; baina eurakaitik beherengo mailaraino jatsi zan. Bere joan-etorriak ondo ekizan batek badinotso:

— Aita Patxi, zeure burua askatu ahal izan eta zergaitik zagoz hemen gure artean?

— Jaungoikoak nahi daualako. Ni ez naz etxeratuko, Langile Anai bat prisioneru dagoan artean, erantzuten eban bizi-bizi.

Horra gure gudarien kaperauari emon eutsen azken beharlekua: Madrileko Atotxa geltokia eta inguruko kaleak garbitzea. Casa de Campotik hara eroan ebezan eta trenbagoi zaharretan sartu ebezan. Ha izango zan euren hotela, eleiza eta dana. Biharamonean Erramu domekea zanez, Mezea emon behar eban. Modrego gotzainak emonda eukazan eskubideak. Non emongo, eta bagoian bertan.

Langile batzuk Villaverde Bajo, Madril inguruko baztar batera eroan ebezan, hango trenbideak konpondu eta etxe-hondarrak garbitzeko. Eta gose bat bai! Hau jakinda, han doa Aita Patxi, sarjentoa lagun dauala, Madril barrura jateko bila. A zelango ogi pila ekarri eta banandu eutsen Langile Anaietara! Eta ondoren, *maiatzeko lorak* atondu ebazan, 500 gudaritik gora lagunduten eutsoela. Komandanteak honetan egozala harrapatu, eta kristorenak esanda, eskuak lotuta Madrilera bialdu eban, Atotxako geltokia eta kale inguruak garbitzera.

Harritzekoa da Aita Patxik zenbateraino maite ebazan bere Langile Anaiak! Gudaketa azkenetan egoan. Espainian amaitu orduko, European zehar mendabal. haize hotz indartsua zabaltzen etorren. Mundu beteko gerra bildurgarria astear egoan. Frantzian eta Italian etabar lejinoa eritxon gudaroste odoltsua antolatu zan. Prisioneruen artean jentea berotuten ibili ziran militarrek, ahal ziran gehienak lejinoan izena emon egien. Egoera negargarri haretatik urten nahirik —inon ere txarrago egongo ez ziralakoan, eta soldata on baten esperantzan-edo— pila bat prestatu ziran. Aita Patxi bera ere bai. Harrigarria benetan! “Aita Patxi lejionario? Hori burutik ez dago ondo! Nor eta praile bat lejionario!”, inoen gudari batzuk harrিতuta. Zerk eragin eutsan horretara? Berak emoten deusku erantzuna: “Hara: nengoan lekuan ezin neban ondo bete neure kaperau zeregina, eta ia hor beste esparru horretan gehiago lagundu ahal deusedan inpernu gorrira joiazanei. Hainbat joan ziran, baina niri ez eusten itzi. Egin bedi Jaungoikoaren borondatea”. Agirian dago Aita Patxik betidanik eukan ametsa: Jesusen izenean martiri izatea. Gogorik ez jakon falta izan! Noraino heldu leiteken bat!

*Prisioneru egon, nabiz lejionario
Aita Patxiri maitasuna dario.*

「Itzaropenez」

U steak erdiak ustelak. Horrela gertatu ohi da bizitzan. Itxura baten, Jesus Maisuak Berak ere porrotaren trago garratzak danga-danga edan egin behar izan ebazan. Halan uste eben, ez bere arerioak bakarrik, baita lagunik urkoenak ere. Gurutzebide gogorra eginda gero, lapur biren erdian hiltera kondentatua izan zanak etorkizun laburra eukan. Baina Berak, heriotzearen porrota aitaututen eban bakoitzean, hirugarren eguneko berbizkundea gaineratuten eban. Jesusen bidea ez da gurutzean edo lurpean amaituten, Aitagan baino. Hagaitik beti izan zan *itzaropenaren gizona*. Ez eutsan inori aterik itxi; eta bai itxitako asko edegi.

Aita Patxik ere ez eutsan Maisuari gurutzeraino bakarrik jarraitu; berbiztu ondorengo Jesusen adiskidetasunean bizi izan zan. Hildakoa ez eban sinisten, hil eta berbiztu zana baino. Horregaitik zan baikorra, askea, errukitsua eta biziemoilea. Bere erbestaldiko gurutzebideak ere izan eban azkena; heldu jakon berari ere askatasun-eguna. Batek baino gehiagok lehenago ere emongo eutsoen askatasuna, baina *bestalderako*. Esate baterako, Pinillos jaunak, konzentrazinoko batailoien kargudun nagusiak. Azken egunetako baten, Aita Patxi Salestarren eleizan mezan egoan. Sakristira joateko agindua heldu jakon. Bai pozik joan ere. Albiste onen bat emoteko zalakoan. Aurreko kintakoak joanak ziran etxera; hurrengoa berea zan eta... Han aurkitu zan dalako Pinillos horregaz:

— Zu nor zaitut?

— Ni pasiotar kaperau bat, Langileen 2. batailoikoa.

— Banengoan, bai! Honeek dozuez Agirretarrak, traidoreak. Nire eskuan balego, zuk ez zenuke egundo hemendik urtengo, betiko kartzelan egon beharrekoa zara... —erretolika bitartean, Aita Patxi isilik eta burumakur. Amaitu ebanean, Salestarrak eta han egozan danak buru-eraginez oneritzia emon eutsoen.

Azken Gabonak gainean ziran. Egunak joan eta etorri, guda-giroa argitzen joian. Honen adierazgarri, 1938ko Gabon jaiak. Agintari nagusiak bertan zirala, a zelako gabon-kanta ederrak abestu ebezan gudariak, Aita Patxi tarteko zala! Eta bai besteok pozik entzun ere! Aita Patxi bera dogu kontalari: “Ondoren meza santua emon neutseñ danei. Dana zan poztasuna eta zorionak emon beharra. Gaur batzuk eta bihar besteak hasi ziran etxerantza. Bazan ordua hainbeste negar, odol eta zoritxar amaitzeko! Jaungoikoari eskerrak! 1934. urteko apirilaren 1a zan, hain zuzen ere. Nik uste neban laster nintzala neure komentu baketsu, maitagarrian. Baina halako burruka gogor luzeak buztana ere luzea ekarri ohi dau. Geu prisioneruon kontura egin ebezan konponketa eta garbiketa pila bat”. Behin, meza ondoren, Aita Patxi otoitz egiten gelditu zan belauniko. Eta adoretzu esan eban: “Otoi egin daigun gerran hildakoen alde eta Espainiako bakearen alde”. Castro komandanteak entzunaz batera: “Zeuok izan gerrea ekarri dozuenak, eta orain zuk eskatu bakea?” Eta Aita Patxiri emon-ahalako ostikadak emon eutsazan. Aspertu zanean, lurretik jaso eben, sudurretik eta ahotik odola eriola. Ez eban ezelango hasarrerik agertu. Kolpeka eta zartadaka joian Aita Patxi Jesus Gurutzekoaren irudia hartzen.

Halako batean heldu zan Aita Patxirentzat ere askatasun-eguzkia! 1939. urteko uztailaren 27an. Urte bi aurretik, egun berean heldu zan Chapineriara, Bruneteko gudalekura. Benetan urte bi luze eta gogorak. Gaez itzartu eta trenera, Bilbora bidean. "Hau poza!", dino Aita Patxik. Han geratu ziran gose, neke, irain, zigor, zorri etabar. Aldean zer ekarren berak? Aldare-kutxa eta platera (ertzean gudari batek pasiotar ezkutua marrazturik). Bidean errosario pila bat errezatu eben; eta biharamonean eguerdirako Bilbora. Besarkada beroz agurtu ziran gudari lagunak Aita Patxigandik. "Geltokira pasiotar erlijioso batek urten eustan eta Deusturaino lagundu. Probintzi burua lehenengo zala, alkarteko guztiak ondo etorria emon eusten maitasunez eta besarkada santuz. Gure Jauna eta Ama Birjina bisitatu ondoren, erantzi nebazan zorritz beteriko zarpatzarrok eta pasiotar jantzi garbi gozoz apaindu nintzan". Bere bizitzako 27, 28 eta 29. urteak gudaketan erre ebazan. Aita Patxi berak emoten deusku labur-labur batuta 1937. urteko urtarrilaren 28tik 1939. urteko uztailaren 28ra arteko bere zerbitzuaren barri: "Jaungoikoaren borondatea izan da ni gudarietaz ibiltea, bai Euskadin eta bai Langileekaz, euren espirituzko beharizanetan lagunduten, baita bizitzako hainbat arazoetan ere. Ondo hiltzen lagundu deutset, adore emonaz eta Jaungoikoaren eta Ama Birjinaren ardurapean ipiniz, sufrimentuak Jesukristoren gurutzeko heriotzeagaz bat eginaz. Horregaitik urten neban osorik eta bizirik hainbeste arriskuetatik. Bestelan mila bider hilgo nintzan. Jaungoikoak eta Ama Birjinak atera nabe bizirik".

*Gorputzez osorik eta espirituz osoago,
galdu-irabazia hor dago.*



*Gurutzeko San Paulo, Pasiotarren sortzailea,
Aita Patxiren eredu imitagarria.*

1

Inguru hotza ta latza, baina
Aita Patxi gori-gori,
zer egingo, ta bisitatxo bat
egin nahi deutsa Frankori.
“Askatasuna emon deiskula
anai langile danori.”
“Zer uste dozu, kaxkajo horrek,
zuk zer dozu kategori?”
“Nigaitik hauxe esaten eben:
«Goitik jota iagok hori»”

2

Norbait ihesi joan ezkerro,
haren ordeaz bost garbitu,
behin horrelaxe jazo zan eta
negarrez ezin kabitu.
Zu Aita Patxi, euren erdian
jarrita nork errenditu?
Zu ikusita, nagusi jaunak
egin ziran errukitu;
bakarra baina, zure biziak
hainbat bizi salbau ditu.

3

Madrilen sartu ta berehala
erratz haundi bat eskura,
Atotxan igon zenduan, Patxi
tokatzen jatzun gradura.
Bagoi zahar baten otoitz ta meza
ondoan ahal zan modura;
astiunetan aterik ate,
penagarria itxura;
zeure anaiak ase ezkerro
bestek ez eutsun ardura.

4

“Amaitu da, bai, guda amaitu”
pozaren pozez dearka,
eskerronezko meza emonda
“Jainkoak deiskula parka”.
Kalbarioko gurutz-lagunak
agurka eta besarka;
zuk Aita Patxi, bedeinkatuaz
anai guztiak bakarka,
ez dau hain errez inork onduko
zuk han jarri dozun marka.

Txorta bete mailuki

Ahalegindu gara Aita Patxiri pausoz pauso jarraitzen, trokazuloz trokazulo. Baina hain izan eban pauso bixkorra, eta hain ezusteko haundiak emon euskuzan, pitxi asko geratu dira sasi artean ezkutuan. Gudaldiko joan-etorrietan gudariak eurak, zelan ikusi eban Aita Patxi? Horixe da orain laburki batuko doguna. Udabarri azkenetan zelai eta bide bazterretan zenbat lore polit, zenbat mailuki gozo ikusgarri! Banan-banan hartuta ere hain dira gustagarriak! Ez dozu inoiz, mutikotan-edo, mailuki pila bat bedar luzeetan txortaka batu eta lagun artean banandu? Holakoren bat dozu orain eskeintzen deutsudan Aita Patxiren bizitzako lore eta mailuki txorta hau:

ADORETSUA

Aita Patxi, itxura baten hain maxkal eta makala, ezergaitik eta inoren aurrean ere errenditu ezinekoa zan, eragozpen haundienen aurreran ere, kaperau eginbeharretan batez ere:

- *Sabin Manzarbeitiak*: “Otxandioko erasoaldian santokristoa eskuetan ebala ikusi neban, zaurituei eta hilzorian egozanei mun egitera emoten, ikara-bildur barik, bere buruaz ahaztuta, besteak ihesi joiazan bitartean”.

- *Pedro Ipiñak*: “Itxura apal haren azpian gizon harrigarri bat agertzen jakun bere ekintzetan. Bere bizia arriskatzen eban, gitxitzat baleuka lez”.

- *Bizente Zabalak*: “Itxuraz gizon sotil, apal, irribartsua, eta bildurti samarra emoten eban. Baina zaurituei eta hilzorikoei laguntzea zanean, antzaldatu egiten zan. Zirt-zart egiten eban. Behingoan erabagia hartu, ausardiz jokatu eta lehoi baten antza hartzen eban”.

Aurreko orriarteak arakatuten badozuz, zeuk irakurri eta zeuk aztertu, norainokoa zan bere adore eta ausardia. Adibidetzat hauxe bakarrik: Duran tenienteak hartuemon zintzoak eta sakonak ebazan Aita Patxigaz. Honek mila eratara eta mila bider eskatu eutsan Langileak ez zirala horren txarrak eta lehen bait lehen askatasuna emotea bidezkoa litzatekela; gainera egoera lastimagarrian egozala. Tenienteak beti Frankoren eskuetara botaten eban arazoa. Aita Patxiri dast!, burutazino bat: “Frankogana joango naz”. Tenienteak harrituta:

— Baina zelan joango zara?

— Pasiotar jantzi honexegaz eta oinez.

— Eta salbakonduktoa?

— Ez dago salbakondukto hoberik pasiotar jantzi hauxe baino —eta esandako moduan jantzita ninoala, tenienteak atzera bihurtzeko agindu eustan. Eta danak, tenienteak, soldaduak eta gudariak zorotzat bota ninduen. Itzi baleust, itzi, neure jantzi eta guzti, oinez joango nintzan Salamancara, Franko beragaz berba egitera.

APALA ETA ESANEKOA

Adoretsu eta ausarta zan, baina ez burugogor eta setatsua. Ume-bihotzez agindua hartu eta beteten eban. Egundo ere ez agindutakoaren aurka. Behin eta mila bider jokatu eban baimen eske, belauniko eta negarrez, baina beti esanera. Gogorrean ere, beti erantzuten eban: “Jaungoikoaren nahia izan da. Egin bedi bere borondatea”. Dastatu daiguzan mailluki pare bat:

- *Juan Jose Duran* dogu berbetan: “Aita Patxiren birtuterik nabarmenenak karidatea eta apaltasuna ziran. Bata zein bestea ezingehiagoan. Nik neuk ez dot gizakume apalagorik ezagutu”. Hurretik ezagutu eban guztiak ere eritzi berekoak dira. Eta horra barru apal eta sotilaren ezaugarriak nabarmenena: ez eutson inork entzun inoren aurka ezer kaltezkorik.

EROAPENTSUA

Eroapena da egiazko maitasunaren eta santutasunaren frogarik ziurrena. Hor neurtzen da nor nor dan. Zenbat irain, destaina, belarrondoko eta ostikada! Zenbat birao eta agirika garratz jaso eban, eta Aita Patxi beti burumakur eta isilik; eta behin baino gehiagotan erasotzailearen aurrean belaunikatu eta parkamena eskatu. Horixe erakutsi eutsen Angostoko nobiziaduan. Entzun, ikusi eben batzui:

- *Juan Jose Aduri* gudari lagunak: “Aita Patxik hartu eban hamaika destaina eta burla; baita ostikadak, arpegikoak eta txistu iguingarriak ere. Eta berak dana onartzen eban, begiak lurrean eta bihotza zeruan ebazala. Handik laster: iraindu ebenak agurtuten ebazan eta janaria zerbitzen eutsen. Eta euren alde izaten zan eguneko errosarioa”. Gose, egarri, bero, hotz, zorri, sarna etabar luze batek sufriduazo eutsan gudaldian; Aita Patxik ez bakarrik bereak ondo eroan, besteenak ere bere kontura hartzen ebazan. Ispilutzat nahiko honako hau: “Sarna iguingarri batek jota, ez ekian zer egin aldetik kentzeko. Komandanteak ez eutsan baimenik emongo; osagileagana doa eta errekan garbitzeko baimena emon egiola eskatu eutsan. Osagileak baietz, salbakondukto eta guzti. Beste barik, han sartu zan errekan, Jainkoak daki zelan”.

DANEN LAGUNA

Laguna, berba hau gure euskeran gauza ederra da; lagunagana uste osoz joan leiteke, edozer eskatu, edozer arazo agertu. Zorionekoa holako *lagun* baten laguna! Horrelako laguna zan Aita Patxi. Holan autortzen deuskue bere gudari lagunak:

- *Jose Alberto Muxikak*: “Aita Patxi beti egoan prest, behar ebanari lagunduteko: ura, esnea, jantzia, janaria etabar. Mundu guztiari on egiteko jaio zala zirudian. Dana emon, egin, orde z ezer eskatu eta itxaron barik”.

- *Jose Luis Iturriagak*: “Aita Patxi niretzat lagun zintzo bat izan zan eta abade eredugarria. Unerik latzenetan ere seguru sentitzen ginan, bera gure ondoan baegoan”.

- *Luis Urbietak*: “Lehenengo unetik konturatu nintzan berangan lagun zintzo bat neukala; abade santu bat gainera”.

- *Frantzisko Maigomez*: “Inor burumakur eta pentsakor ikusten baeban, gudari-taldetxo bat antolatzen eban, eta beragana joanda, bixkortzen eta alaitzen jardungo eban, ahal eban guztia eginaz”.

- *Jose Maria Aspiazuk*: “Aita Patxik, on egiterakoan, ez eban inoiz politikazko bereizkuntzarik egin. Bere aurrean gizona besterik ez eban ikusten, zoritxarpean egoan errukarria; gorputzez edo espirituz laguntzaren preminan. Orduan Aita Patxi buru-belarri eskeintzen zan zerbitzera”.

PASIOTARRA

Aita Patxik ez eban inoiz bere nortasuna ezkutatu edo isildu. Eleiztar nahiz militar agintarien aurrean, beti emoten eban bere nortasuna-agiri bardina: “Ni Aita Patxi naz, pasiotar abade kaperaua”. Bere testiguak gogoan daukez ezaugarri batzuk: Bere pasiotar *jantzia* hain eban maite! Ahal eban guztietan erabiliko eban. Eta kolkoan erabilten eban *santokristo* bedeinkatua! Ezin dogu aurrera joan, testigantza bat edo beste ekarri barik:

- *Jose Maria Aspiazu*: “Behin bera eta neu bakarrik gengozala, Cardenako lotegiko ohe ertzean jesarrita. Aita Patxik isilean Jesusen gurutzeko irudia garbitzen ziharduan, bitartean aspaldian izandako pasadisuak gogoratuz. Halako baten barru-barrutik urten eutsan: «Hamaika bider santokristo hau egon da gudarien odolez gorrituta!»”

- *Pedro Ipiñak*: “Bere papar gainean, agirian, santokristo haundi samar bat eroaten eban. Zein osasuntsu, zein gaixo egon, danoi emoten euskun mun egiteko. Eta inork ez eban atzera egiten”.

Gurutzebidea zan beste era bat Jesusi eutsan maitasun gartsua agertzeko: gudari artean arotzak ere baziran eta, halako bati eskatu eutsan gurutzebideko 14 egotaldiak zurez egiteko. Halantxe eginda, kapilan ipini ebazan eta egunero gurutzebidea egiten eben berak eta lagunak. Brunete aldean egoala ere, bere oihal txabola ondoan, berak ipini ebazan 14 gurutzetxo, zuhaitz adarrez eginak, eta han ibiltzen zan batetik bestera, Jesusegaz bat eginda. Maiteminduak zuhaitzetan euren kuttunaren izenak ezarri ohi dabezan lez, Aita Patxik ere asmatu-ahalak asmatzen ebazan Gurutzeko Jesusen gomutaz.

ABADE SANTUA

Aita Patxik meza barria emonda laster urten eban gudazelaira, gudarien kaperau. Eta bere zeregin bakarra kaperautza izan zan; ez zan beste zereginetan nahastu. Eta bere eginbehar hau bai ondo bete ebalat! *Errosarioa, gurutzebidea, santokristoa, mezea, parkamen-sakramentua eta Gure Jauna emotea...* Hortik kanpo, erropa-zakua eta ur-upela lepoan hartuta segi aurrera.


- Amaitzeko, *Juan Jose Agote*: “Ez da nire burutik aldenduko euskaldun praile honen irudia; ni ziur nago egunen baten aldaretan izango dogula, Loiolako Inazio eta Xabierko Frantziskoren ondoan”.



Supervivientes del Batallón "Rebelión de la Sal"
 reunidos en el Santuario de San Feliciano,
 (Bilbao), para ofrendar una misa por las
 almas de todos nuestros compañeros fallecidos.
 Dedicamos esta foto al inolvidable
 aita Patxi, héroe capellán y compañero,
 y amigo fiel, servicial y Santo.

Sancto - Bilbao, 23 de Octubre, de 1977

José Miguel Sarasola.
 Loucaudante



En este día, Domingo 10 de Julio de 1977, los abajo firmantes que pertenecemos al Segundo Batallón de Carabineros, que es presente en los cuarteles de guerra de Madrid, los años 1934, 1938 y 1939, reunidos en el Santuario de San Pelayo de Deusto, Bilbao, hemos aplicado una mesa por nuestros compañeros difuntos.

La adjunta fe de feada en esta fecha, la abdicamos una misera y máxima gratitud a la memoria del peregrino de la Congregación de los PP. Pasionistas, Aita Patxi, fallecido con nosotros, - sacerdote santo de los tres, amigo compañero y hermano infortunado en aquellos años de horrores y sufrimientos de toda clase.

El alma, en cuanto puede, sea para unos hermanos nuestros abandonados y amarga corporal, el que siempre es un duelo de nuestras familias y de nosotros, nacional españoles.

Mas amor al hermano en la honra, más memoria
 Deacuerdo y esperanzas sea elvado pronto al cielo de los altarios.

Bilbao, 10 de Julio de 1977

ENCILIO HEREDIA

[Handwritten signatures and names:]
 Julio Gamunde Lopez
 Ramon Lopez
 Angel Upiado Barandaran
 Juan Garcia
 José Eguiguren
 Juan Carlos Baranda
 Juan Carlos Baranda

Bizirik dagozan Prisioneru Anaiak Aita Patxi, bil eta laster, eskeindutako omenaldian Deustun.

1

Zu Aita Patxi, nor izan zinan
jentea galdezka dabil,
zeure lagunak autortzen dabe
dana argi ta biribil:
"Itxura baten, gorputzez makal,
argal, zimel eta zurbil;
bihotzez bero, animoz bizi,
hartuemonean umil,
zeure bidetik urten baino lehen
nahiago mila bider hil".

2

Tratu txar asko, irain larriak,
bazan bai nor ahalegindu,
haren barrua ez zan garratzu,
ez inoiz ere sumindu.
Ez gorrotoz ta ez garrazkeriz
ez eban inor samindu;
danak maitatzen, danak zerbitzen,
nor ta zelan atsegindu,
haren ametsa: Jesukristogaz
ahal dan bestean bardindu.

3

Ez da dudarik, Aita Patxi hau
guk ezagutu doguna,
buru ta bihotz beti izan zan
uneraino euskalduna.
Baina danakaz bete ohi eban
kaperau eginkizuna,
danen gainetik, danentzat eukan
benetako maitasuna;
berba gitxitan, Aita Patxi zan
gizon guztien laguna.

4

Ahal dan guztian on egitea
Aita Patxiren bizitza,
behartsuekaz agertzen eban
osoko solidaritza.
Bihotz gogorak edegiteko
karidadea zan giltza;
berba batean dana esanda:
zerbitzaria da hitza,
hamaika frutu emona dogu
Arrietako haritza!

5

Ogi zuririk ez geunkan baina
ez jakun falta egurrik,
esandakoak egiak dira,
ez da inungo guzurrik.
Baina Aita Patxi gurekin bazan
ez zan ezeren bildurrik,
danei laguntzen eta zerbitzen
inork ezin emon hurrik,
munduan gitxi izango dira
halako ama samurrik.


6

Gurutzez eta errosarioz
bere burua zaindurik,
ez zan inor ha hondatzekorik
ez gizon, ez deabrurik.
Bardin abade, bardin langile
halako gizon modurik!
Hau ikusita, bere lagunak
inoen txit harriturik:
"Ez da posible! Gizon hau dago
Jainko-txispaz armaturik".

7

Danen gainetik nonahi ta beti
pasiotarra zan bera,
buru-bihotzez pasiotarra,
pasiotarra janzkera.
Guda-nekaldi latza sufriduz
Jesukristoren antzera;
Zirineok lez, gurutzedunei
bixkor joian laguntzera;
besterik gabe, Aita Patxi gaur
jaso leike aldarera.

Aita Patxi herri-misiolari



Aita Patxik erabilten ebazan zurezko goilara eta sardaxka.

..... Sarrera

Ez daukanak ezin dau emon ez daukanetik ezertxo ere; beterik dagoanak ezin dau gordeta euki hain ugari daukan hori. Are gehiago, bizitzari bagagokioz. Benetako misiolariak ez dihardu buruz dakianetik, bihotzez bizi dauanetik baino. Nazareteko Maisu haundiak lez, *egiten eta esaten* hasi zan. Berbarik ederrenak baino gehiago balio dau ekintza txiki on batek. Aita Patxik ere *platika gitxi eta praktika asko* eukan onbidean; aho txikia eta bihotz haundia; esanetan labur eta eginetan luze, euskaldun jatorrak lez. Misiogintza, bakoitzak egiten dau Jaunagandik hartutako dohaien arauera. Aita Patxi ez zan izan ekarri haundiko berbalduna. Bere gogoz nahiago eban isilik egotea; eta berba egiterakoan ere, berbak ondo neurtuta egingo ebazan. Herri-misiolaria dinogunean, ez dogu esan gura *sermolari trebea* zanik, ez eukan horretarako gaitasunik. Bere lagun haundi bi —Aita Martin Elortza eta Aita Benantzio Orbe— biak pasiotar gotzain misiolariak, Peruko misioetara joateko konbite egin cutsoen birritan. Aita Patxiren erantzuna: “Bialduten banaue, pozik joango naz; baina ni neu komentuko bizitzara eginda nago, eta ez dot uste gauza nazanik baso librean bizitzeko”. Geroago, beste lagun batzuk Peñaranda aldera deitu eutsoen, han basamortuko bizikerea egiteko. Aita Patxik orduan ere argi agertu eban herri-misiolari izateko eukan joera, Gurutzeko San Pauloren antzera: behin bakardadeko otoitz eta penitentzian, gurützearen oinetan, behin su eta gar herriz herri gurützearen oihulari errime jardunaz. Baina jarraitu deiogun bidez bidez, auzorik auzo: gaur gaixo artean pozemoile errukitsu, bihar San Pelitzisimoren bedeinkazioak emoten, etzi eta etzidamu autorlekuan orduak eta orduak, pekatari eta aldenduak onartzen eta Jaunaren errukiz bizibarritzen. Bateko Gaugurtzaileak zirala, besteko mezak emotea, aukerak bidean agertu-ahala emoten eban bere misiolari-erantzuna. Benetan, hartutako *gitxian* eskuzabalez jokatu eban. Eta egia esan, Aita Patxik landu eban lurraldea Nazareteko Jesus Maisuarentzat gogokoena izan zan: “Itsuak ikusi egiten dabe, herrenak badabiltz, legenardunak garbi geratzen dira, gorak entzun egiten dabe, hildakoak biztu egiten dira, behartsuei Barri Ona iragarten jake” (Lk 7, 22).

Hain zuzen ere, Aita Patxiren misiogintza hau bat-etorren, berak Pasiotarren Laugarren Botoz beragandu eban bizi-konpromesuaz: Lehenengo eta behin norberak gogo-bihotzetan Jesusen Nekaldia gogartu eta bizi-ardatz bihurtu, eta ondoren gaurko gurutzeratu barriei Jesus Gurutze-koaren Barri Ona iragartea eta gure artean dagozan bere “ordezko” horreek maitasunez zerbitzea. Aita Patxi goratzen dabenak ez dira jakitunak edo munduko haundiki-aberatsak; gaixoak, alboratuak, saminduak eta behartsuak baino. Honeek zalantza barik autortzen dabe: “Aita Patxigan Jesus Bera ezagutu dogu”. Aita Patxi *miragarri* bai, baina ez dala *imitagarri*, askoren stez. Halako edo holako ekintzak miragarriak izango dira, eta horreek egin beharrik ez daukagu, zintzoak izateko; baina ekintzetan berak ipinten eban zintzotasunean, maitasunean eta iraupenean eta, horretan bai dala imitagarri, bere antzera Ebanjelioa benetan hartu eta beteko bagendu.

1

Hiru bat urte guda-zelaian
egon ondoren etxera,
Zu Aita Patxi, nor ta zer zinan
aprobatzeko aukera.
Ongi etorri ta besarkadak,
baina zu beti zeurera:
Andra Maria eskertu eta
zuzen Jaunaren aurrera,
zu ikusita, danak dinoe:
“Hau da lehengoa berbera”.

2

Laster bihurtu zinan pozarren
zure lehengo Angostora,
zure baietza emon zenduan
maitagarrizko txokora.
Prailegaientzat maixuorde lez
heziketako arlorra;
danen aurretik danetan beti,
gero eta gehiagora;
ezin jarraitu ta hurrik emon
inork inondik inora.

3

Ni ordurako joan-barri nintzan
Gipuzkuko Gabirira,
laster batean agertu jakun
gu prailekion kabira.
Zuk Aita Patxi, ez euskuzun ez
begiratzen arpegira;
baina bai sartu zinan maiteki
gure bihotzen erdira;
zuk eginak ta zure esanak
ahaztutekoak ez dira.

4

Zorionean amaitu jatzun
amorruzko gudaketa,
orain gaixo ta zaharren artean
maitasunezko hizketa.
Arabaldeko herritxoetan
hamaika arineketa!
Denpora gitxi, zeregin asko
alperrik da barriketa,
kazariak lez irribarreka
etxera frutuz beteta.




Aita Patxiaren senitartea. Hor agertuten jaku Aita Eusebio, bera baino lehenago pasiotar egindakoa.

San Pelitzisimo eta biak

Aita Patxi etxean bertan egin zan unibertsala, San Pelitzisimori esker. Santutegiak beti izan dabe herritarren fede apal eta zintzoarentzat erakarpen itzela. Esaterako, nork ez dau ezagutzen gure artean Deustuko San Pelitzisimo? Nork ez ditu sarritan hartu *San Pelitzisimoren bedeinkazinoak*? Zenbat gaixoren burukopean egon dan bere irudia! Hortxe izan eban Aita Patxik hamabi urtetako apostolutza onuragarria. Hortxe onartzen eta osatzen eban *kristo bizi barri* ugari. Zenbat osatu ete dira Deustuko santutegian? Asko gorputzez eta gehiago espirituz. Osasuna, ogibidea, familiako bakea etabar luze bat, pertsona haina arazo eta korapilo bihotzean hartuta, Deustuko Santuaren aurrera. Entzutekoak izaten ziran Aita Patxiren gogoeta sutsuak eta otoitz biziak, gaixoen bihotzak jasoz; beti ere gogoan ezarriz Jesus Gurutzekoa eta Ama Atsekabetua. Hauxe izan zan Aita Patxiren santutasuna agirian ipini eban apostolutzatik bat: danak eske, edozein ordutan tirrin-hotsa, sarritan dei bi batera jasoz. Aita Patxi beti bare eta gogo oneko agertzen jaken, berak aurretiaz erabagita eukanez: “Danak onartuko dodaz arpegi alaiz eta gogo onez, ahal dodan guztian lagunduz”. Eta Santuari eskatuten eutsan: “Pelitzisimo santua, egizu zure bedeinkazinoak emoterakoan, ez daidala umorea galdu; eta osasunez neuri ere lagundu eidazu, edozein ordutan emon ahal daidazan zure bedeinkazinoak; eta zugana datoan guztiak lortu daiela gorputz-arimen osasuna”. Erabagi sendoa hartuta eukan: “Ez deusat San Pelitzisimori ezer ere ukatuko, berak ere lagundu deidan”. Hona hemen santu bi, nork baino nork indar gehiago egiten Jaunaren aurrean. Askok esan ere egiten eban: “Nork osatuten ete dau Deustun: aldarepean etzunda dagoanak ala bere ondoan tente diharduanak?” Testigu batek dinosku: “Nik ez nekian zer dan santua; Aita Patxi hiru bider ikusi nebaneko ulertu neban: haren autortu beharra, bedeinkazino emotea, jende apalagaz otoitz egitea, danen koitak entzutea! Beti apal, txeratsu, hara-honaka bixkor eta burumakur; egundo ere ez erremuskadarik, etenbako irribarretxoa ezpanetan ebalá”.

*Bideak ez dau egiten inor santu,
santuak egiten dau bidea santu.*



Aita Patxi Pelitzisimo Deunaren bedeinkazinoak emoten.

1

Pelitzisimo deuna izan zan
zure misino-laguna,
milaka askok gorputz-arimaz
lortu eben osasuna.
Bedeinkazino ta sakramentu
etengabeko jarduna.
Zu Aita Patxi, han ikusita
jendearen esakuna:
Pelitzisimo ala Aita Patxi
nor da osatzen gaituna?

2

O Aita Patxi, bai penagarri
zeure Angosto iztea!
Baina beti lez bete zenduan
Jaunaren borondatea.
Orain arte lez zure lekua
zerbitzari izatea:
morroien maisu, sarri atezain,
huskeriak egitea...
Zure errua —erru santua!—
beti baietz esatea.

3

Hilabeteko gogojardunak
gogoan ditut betiko,
zu ta ni biok batera ginan,
zer hoberik ikusiko!
Kanpoz isilik, barruz borborka
sarri otoitz belauniko;
kristau gudari bat bixkortzeko
leku bat berebiziko,
alkarren lagun han egin ginan
geure bizitza guztiko.

4

Gaixoak ziran zure lagunak
eurentzat lehenengo txanda,
iguingarriak zuretzat ziran,
edo minbiziak janda.
Zeure aukera izan zan hori,
zeu pasiotar izanda,
horren lekuko dira Basurto
eta Ibarrekolanda;
eurak gaixoak autortzen dabe:
“Guretzat Jesus izan da”.



San Pelitzisimoren eleizea barrutik.

「Gaixo eta zaharren ehiztari」

Aita Patxik bere bihotz-motorra beti eukan martxa onean, batez ere aldapan gora. Jesus Gurutzekoaren oinetan, Ama Atsekabetuaren ondoan berotu eta hartzen eban erregairik onena; ezin deutso geldi eutsi barruko taupadari. 1954. martian, Basurtoko ospitalera doa gaixoak bisitatzera. Hasieratik bat egin eban hango sufrimentu giroaz. Handik hilabetera barrero; eta uztailetik aurrera astero joaten hasi zan. Tuberkulosi gatxez jota egozanak autortzen eta gogoz berotzen orduak emoten ebazan. Handik Ibarrekolandako egoitzara, sendaezinekoen ondora. Errukarrienak irabazten eutsoen bihotza, eta ahal eban guztian euren ondoan euken, nahizta hats iguingarriz botalarria sentidu. “Jauna, egin bedi zure nahia”, hauxe zan Aita Patxiren betiko bihozkaidea. Gaixoei lagundutearren edozer egingo eban: loa galdu, jatekoa itzi, otoitzaldia eten... Jesus berbera balitz lez, goxo-goxo eta arduratsu zainduten ebazan. Sarritan gaixo baten aurrean ordu luzeak emongo ebazan, belauniko eta otoitzean.

Beste zerbitzu neketsu baizen atsegingarri batera ere jo eban, etxeko Nagusien aginduz: *Gaugurtzaileei* lagundutera. Enekuri, Laudio, San Salvador del Valle etabar herrietan, gaueko orduak emonda gero, ezer gertatu ez balitz lez, zintzoro erantzuten eutsan eguneroko lanari. Sarri ordu biko loa egin ondoren, barrero ere lanera.

*Bibotz-zabalak beti dauka zerbait emoteko;
ezer hartzekorik ez badauka, askoz hobeto.*

1

Autorlekuan, zu Aita Patxi,
zinan bihotz handikoa,
han agertu nahi izan zenduan
zelan dan Aita Jainkoa.
Praile, abade, monja ta gotzain
bardin gizon-andrazkoa,
milaka askok askatu dogu
zuregan gure kolkoa;
guretzat errez parkamena ta
zeuretzat gainerakoa.

2


Zu legezale zehatza zinan
zeure praile hezieraz,
askoren ustez, zorrotzegia
beti zeure bizieraz.
Baina "legea gizonentzat da"
Maisuaren esaeraz;
sakramentuak, meza etabar
jarri nahi gaixoen eraz:
a zer pekatu egin zenduan,
Mezea emon euskeraz!

3

Santu nahiz santa, danon bizitzan
atsekabe-atseginak,
zure bizitzan, o Aita Patxi,
izan ziran nekeminak!
On egin eta zigorra emon
Paulo Gurpide gotzainak...
Jaungoikoaren nahia dala ta
agur hasarre ta minak!
Danen gainetik beteko dozuz
Kalbarioko dotrinak.

4

Burua makur, ahoa isil,
bihotza maitasun beroz,
nork lurjoazo zuri zigorrez
edo ta beste jeneroz?
Zuk Aita Patxi, jarraitzen dozu
inguraturik bezeroz,
lagunik ere izan zenduan
eta onak harrezkeroz;
hor zeu onartzen ta bedeinkatzen
Antonio Añoveros.



*Antonio Añoveros, Bilboko gotzain txit agurgarria.
Aita Patxi esku biekaz bedeinkatu ebana, gaixoen zerbitzurako.*

Hilabeteko gogojardunak

Gaur egun sarri entzuten da: “Hirugarren mundua, Baztertuen mundua, Gaurko gurutziltzatu barrien mundua...” Lehenengo mundu honetan ere bada negar-sufrimenturik asko. Baina gehien-baten horrelakoak estaldu egiten dira, hobeto bizi diranen begi-bihotzak mindu ez daitezkan ere. Eta zelango atxakiak asmatu eta estalkiak bideratu? Aita Patxik laster aurkitu eban sufrimentuaren mundu hori. Eta bere burua osoan eskeindu eutsan betiko. Baina edozelan gauzatzeko arazoa ez da. Indar berezia behar da, gurutzedunen ondoan sartu eta euren alde gogotsu jokatzeko. Deustura etorribarri zan. Ni ere han nengoan abade eginbarri. Horra non aukera ederra biok alkar hobeto ezagututeko. Portugaleteko Jesulagunen gogartetxean *hilabeteko gogojardunak* 1954. urteko uztaila eta abuztuaren bitartean. Bai bera eta bai ni misiolaritza sendoa hasi aurreko gogoberoketan. Niretzat sakonak, oso mesedegarriak izan ziran. Ez nekian asko, nire ondoan egoan Aita Patxi kristonak sufritzen egoanik. Agirian ez jakon asko igerten, baina barruan iluntasun bat bai! Bere autorpena dogu: “Uste neban urre eta zidar aurkituko nebazala, baina bihotza harria baizen hotz eta gogor sentitzen neban”. Hilabete osoa ahaleginetan igaro eban, baina ezertariko poz eta gozamen barik. Haren erregu beroak Jaunaren aurrean: “Egizu, Jauna, Andra Mariaren bidez, maitatu zaidazala gero eta gehiago”. Halan eta guztiz ere, sekulako grazi-zaparrada gozo ugaria jaso eban, berak ez ekiala. Lehendik etorren ondo aztertua munduko burruka lekutik, orain basamortuko otoitz eta penitentzialdi honen eraginez, geldiezineko ekintza hasiko eban gizarteko zabor eta baztertuen alde; geratuten jakozan 20 urteak ondo beteak izango ziran Jaunaren aurrean. Bere ondoan biziteko aukera izan dogunok, badogu nori begiratu eta nori laguntza eskatu. Aita Patxi eta bion artean barru-barruko hartuemonak izan genduzan. Beragandik dakit *santua*, geu lez, amaren seme dala; eta Jainkoaren seme lez bizi nahi badau, bereak eta bost egin behar dituala, Jaunaren grazi-laguntza bereziak eutsita.

*Santuak ez dira santu jaioten,
Espiritua lagun, pausoka doaz egin egiten.*

[Errosarioa eskuan, Maria goguan]

Jaungoikoak aingeruren bati agindu badeutso, Aita Patxiren *Agur Mariak* eta *Santa Mariak* kontatzea, nahiko lan dauka! Gudarien kaperau zala, Aita Patxi beti eta nonahi errosario eta guzti: gaixo eta zaurituen ondoan, bidez bide doazela, zaku azpian makurtuta doala, bonba eta tiro arteko sutearen erdian... Bittor Telleriak dinosku: "Errosarioa, barriz, nonahi eta beti". Manzarbeitiarena dogu hau: "Barriketan jardun baino, errosarioa erreztatzea nahiago izaten eban. Carabanchelen Aita Patxik sukaldeko lanetan laguntzen euskun. Eta patatak zuritzean etabar errosarioa erreztatzen genduan. Sukaldea bera ere kapila zala zirudian". Aita Patxirentzat errosarioa, gose danarentzat ogia lez zan. Beste horrenbeste dinoe bere komentuko bizilagunak: "Gehienbaten, egunero 15 misterioko errosario osoa erreztatzen eban". Baserriz baserri ebilenean, 20tik gora izaten ziran sarritan. Autostopean hartzen ebenak baekien aurretiaz: "Nik banekian zer etorren, hartzen neban bakoi-tzean: «Errosario santua zeure etxeko hildakoen alde, edo beste beharizanen baten alde». Ez egoan zeresanari begira. Bardin cutsan aberats zein pobre izan hartzen ebana, gaztea zein zaharra. Danak batuten ebazan errosarioko katean". Beste baten autorpena dozu hau: "Bidez ginoazala, ez genduan berba asko egiten, errosarioa zan berbabide bakarra. Neuk ikusi dodanetik, ez da izango gizonik horrenbeste errosario errezatu dauanik, ezta ere beste inori hainbeste errezauso deutsunik". Behin erlijioso batek itandu eutsan:

- Ahozko errezuak lagunduten al deutsu Jaungoikoagaz bat egiten?
- Ez ba! Gehienetan misterioak hausnartzen dodaz, bestetan errezuan bertan gogoa jarritz.

Beretzat errosarioa erreztatzea, Ama Birjinagaz berbetan egotea zan, eta ezin ezelan ere aspertu. Eta apostolutza egiteko aukera on bat. Herri-misiolari batek herri-erlijiotasun bideetatik ibili behar. Entzun honako hau ere: Errosarioak zertarako balio leiken! Leku batetik bestera egon daitekezan kilometroak neurtzeko ere bai. Ez errosario-katetxoagaz; bidea egiteko behar diran errosarioz baino. Norbaitek batetik besterako bidea jakin nahirik itanduten baeutsan:

- Aita Patxi, hemendik hara zenbat kilometro izango ete dodaz?
- Gitxi gorabehera honenbeste errosario.

Ziurtatu nahi ebanak errosarioak errezatu-ahalean joan beharko eban.

*Maitale beroa ez da inoiz aspertzen;
"maite zaitut" esaten eta besarkatzen.*

┌ Zure zorrak neure kontu ┐

Aita Patxiren apostolutzako esparrurik ederrenetarikoa autorlekua izan zan. Gudalekuetan hamaika ipini eban Jaungoikoagaz bakean! Umeak eta gazteak milaka hurreratu jakozan Bilboko ikastetxe haundietan, batez ere. Deustun bertan eta herrietako autorlekuetan zenbat mila onartu eta baketu ete ebazan! Eta helduen artean, batez ere, gaixoak eta mila eratako nekeminez jotakoak. Eta kazari berezia zan, urte askoan Jaunagandik urrundutakoak Jaunagana erakarten. Telefonoz hartzen ebazan dei larri asko: “Aita Patxi, zatoz lehen bait lehen gurera, aita azkenetan daukagu eta ez dau inogaz autortu gura, zeugaz izan ezik”. Eta dana bertanbehera itzita, han doa hegaz urruneko baserrietara, errukia eta parkamena dariola. Holako banaka bat beragaz gudari ibilitakoak ziran; handik ekien Aita Patxiren barri. Komentuetako erlijioso gehienak beragana hurreratzen ginan; inguruetako abade eta erlijiosoak ere beragana jatorkoz Deusturaino. Eta erlijiosen komenturik erdiak Aita Patxiren bedeinkazinoz beterik dagoz. Parkamen sakramentua eskeintzen eban nonahi: autostopean, solo-baztarretan zaharrei, gaixoetxeetan, bidez bide doazela. Eta zenbat ordu autorlekuetan! *Autorlekuko martiri* deitu geinkio gehiegikerian jausteko zalantza barik. Apartekoa zan bihotzak edegiten lagunduteko. Batez ere urte askotako ugerrez bihotzaren ateko zerrailak gogortuak eukezanei. Urte askotan hortik zehar ibilitako batek neuri esana: “Ni 54 urtetik gora ibili izan nintzan bide onetik kanpo; etxeratu nintzanean, Deustura joan nintzan zakua hustuteko asmoz. Bete-betean Aita Patxi suertatu jatan. Bere santutasunaren barri entzunda nengoan. Oratu lepotik eta haren lagundu beharra! Berak hasi, berak jarraitu eta berak amaitu. Eta hemen dator untzea:

— Egindako danakaitik 3 Aita Gure.

— Baina, jauna, hau zer da, ba, nik... —ez eustan aurrera jarraituten itzi.

— Bion artean erreza daigun penitentzia eta zu zoaz bakean, gainerakoa neuk ordainduko dot, itzi neure kontu”.

Bere buruagaz hain gogorra eta inogaz hain errukiorra!

*Giza arrantzale nabiz ebiztari
horra Aita Patxi misiolari.*

「Gizonarentzat da legea」

Nazareteko Jesus datorkit gogora, Aita Patxi baztarrik baztar, gaixoz eta gatzaz jotako jendez inguratuta ikustean. Aitaren errukia eurengana hurreratzea eta Aitarentzat eurak zirala maiteenak agertzea, horixe izan zan bere apostolutza osoaren helburua eta ezaugarri bereziena. Gaixoaren alde bazan, ez zapaturik, ez ohiturarik, ez legerik, ez bestelakorik ezer: “Gizonarentzat da legea eta ez legearentzat gizona”. Nahiko izan zan horixe, askok burutik jota egoala esateko, dana Beelzebulen indarrez egiten ebala salatzeko. Dana dala, gaiztoa dala eta baztatu egin behar dala, Jaungoikoaren eta Lege Santuaren izenean, gainera. Aita Patxik gaixoagan Jesus Bera maitatzen eta zerbitzen dau; eta harentzat dana da gitxi, danen gaintetik gaixolari begira jokatu behar zan. Sakramentuen, bedeinkazinoen eta mezearen bidez, Jesus Bera eskeintzen jake gaixoei, eta Jesus ez dago lege-arauetan lotuta katigu. Norbera katigu dagoanean da eskandalugarri holako askatasunez jokatzea. Gudarien kaperautzan zelango askatasunez jokatu eban, meza eta sakramentuen ospakizunetan! Eta orain ere bardintsu, beharrianak behartu ezker. Jokabide horren oinarria honetan datza: behartsuak Ebanjelioan daben lehentasuna eta eurenganako errukia eta maitasun sendagarria. Eta maitasuna garbitu eta sendotzeko bidea beti bat: *gurutzea*. Horrela jokatu ebalako, Nazareteko Maisuaren antzera, Aita Patxik zelango arazoak izan ebazan! Baina beti erantzun bardina: “Jaungoikoak halan nahi izan dau. Neure onerako izango da”.

*Nekaldiaren Patxi, Patxiren nekaldia
biak bat eginda, a zer onaldia!*




*Igorreko parroki eleizea. Arratia maite-maite eban Aita Patxik.
Bardin Orozko, Zaratamo, Ugao, Gernikaldea etabar.*

Basurto eta Ibarrekolanda

Aita Patxi gurutzearen ondotik zuzen joaten zan gaixo eta zaharrei, baztertuei eta ezinduei lagundutera. Gurutzean hilteraino sufriduz maite izan gaituanak, sufritzen dauan gizakirik munduan dan bitartean, Berak ere sufritzen jarraituten dau. Eta Aita Patxik zelan edo halan lagundu nahi. Basurtoko ospitaletik laster heldu jakon Jesusen nekaldiko dei larria. 1954. urteko martian hasi zan Basurtora eta Ibarrekolandara joan-etorrika; orduak eta orduak emoten ebazan gaixoei Jesusen errukia agertzen: eurekaz otoitz egin, autortu eta Gure Jauna emon, eta euren nekeoinazeak gozutzen. Behin baino gehiagotan egon zan Aita Patxi hiltzorian egoan gaixo baten ondoan otoi eta otoi belauniko. Iguin eta nazka guztiak gaintituz, euren ondo-ondoan egoten zan, lagunik maitagarrienak bailitxakozan, eta gaixo bardina ezarriko ete jakon bildur barik. Bere eskaria beti bardina: “Jauna, lagundu eidazu, zerbitzu honetan santu egin nadin”. Bilboko denda askok ezagutu eben Aita Patxi, *gaixoen aldeko eskekoa*; goxoki etabar batuta, haren poza ume gaixoen ondora! Herritarrak eskuzabal agertuten jakozan, baekielako emoten eutsoen dana osorik —diru eta guzti— gaixoen eta behartsuen eskuetara joiala. Ospitaletako arduradun asko ere Aita Patxigaz zaletu ziran: Beragaz autortuten ziran eta bere kontsejuen gidaritzapean jarten ziran. Bilbo aldeko osagile ospetsuenak ere beragana hurrerutzen jakozan autortzera. Esaterako, Iraragorri anaiak, Arrospide, Pinies etabar luze bat bere lagunminak ziran, eta gotzainaren aurrean ere —behar izan zanean— bere aldeko testigantza sakonak agertu ebezan. Gero eta gehiago zabalduen joan zan Aita Patxiren izena, batez ere Bilboko eta Bizkai osoko gaixoen artean. Ziur egozan euren lagunaren erantzunagaz.

*Inoren gaixo-gatxak kentzeko
norbera bihotzez sano egotea beharrezko.*



Dimako parroki eleizea.

1

Indietatik etxeratu zan
berrogei urte bitarte,
kolkokadea nori hustuko
kezka Txomin Errekarte.
Deustura joanda, han Aita Patxi
zabalik bihotz-besarte;
erruki haundiz ez zan gelditu
ni guztiz baretu arte.
Han Jaunarekin topatu nintzan
nahiz lehen egon hain aparte.

2

Legea lege, gizona gizon,
bietan hau da nagusi;
azpikoz gora jarri ezkeru,
ordu hain bai itsusi!
Gizona minez edo ezinez
premina baten ikusi,
ordu hain lege bakarra hau da:
errukia erakutsi.
Zuk Aita Patxi, honetan ere
jarraitu zeuntsan Jesusi.

3

Beti zenbiltzan, zu Aita Patxi,
nor ete egoan gaixorik,
nonahi ta noiznahi izanda ere
ez egoan arazorik.
Gaixoen alde ez nekerik ta
ez urruneko auzorik...
Haren ondoan ez zan faltako
laguntza ta errezorik;
gaixo batentzat ez zan edonor
zu lango ama goxorik.

4

Nazareteko Maisuarena
zan eskola bakarrean,
begi-bihotzak beti jarrita
pertsone gaixo-zaharrean.
Bera ta biok burutik jota
eta lotu beharrean...
Itxurazale, lege-maisuak
egoera hasarrean,
baina horixe da lehentasuna
Aita Jaunaren aurrean.



*Deustuko Santokristo ederra, Ama Atsekabetuaren altzoan.
Hamaika otoitzaldi egin eban Aita Patxi bere aurrean.*

Apostolutzako atsekabe-atseginak

Kalbarioko bidea arantzaz josita dago; larrosa bihurtu nahi izan arren, arantzak beti dira arantza eta mingarriak; odol, izerdi eta negar malkoz bustita besarkatu behar. Aita Patxiren apostolu-grina hau askorentzat gogaikarri zan, etxe eta kanpo. Bere abiadureak, ondoan erdi-egonean egozanei, ezin geldi itzi. Eta, beti ohi danez, errezena jo eben askok: Aita Patxi salatu nagusien aurrean, bateko sakramentu eta besteko eskarmentu. Hori dala eta, nagusiak katea laburtuten hasi jakozan: ikastetxeetako ume-gazteak autortzea debekatu, erlijiosei berbaldirik ez egiteko agindu; ez daukala ez gatzik, ez berakatzik. Eta Aita Patxiren erantzuna: Jaunaren borondatea zala eta, bakez onartu eta salatzaileen alde 15 misterioko errosarioa eskeindu Jaunari. Handik lasterrera, hildakoen alde errosarioa eleizan errezatzea ere galerazo! “Halantxe gura izango eban Gure Jaunak eta neure onerako izan bedi!”

Basurtoko ospitalera astean birritan joaten zan, hilaren lehenengo bariku-zapatuetan eta jaiegun haundien bezperetan. Holakoetan gaixoei mezea ospatuten eutsen, Erromako Kultu-Kongregazio Sakratuaren baimen berezia eskuratu eban eta. Ekintza hau ez zan izan abade batzuen gogoko. Etxe edo talde-mezak ugaritzeak bere arriskuak eukazan; horregaitik lekuan lekuko parrokoaren baimena behar izan eban aurrerantzean. Gainera, Aita Patxi bere buruagaz hain zorrotz-zehatza izanik, gaixoen zerbitzurako zanean, neurri zabal haundikoa zan. Eleizgizon batzuk —ikusiezinez edo— azpijokoa egiten hasi jakozan, gotzaitagiraino helduz. Harako *Erandinon* jazo jakona: Parrokian gogojardunak egin ondoren, autortzak entzutera dei egin eutsen. Amaitukeran, euskaldun emakume batek bere premina haundi baten alde mezea emotea eskatu eutsan. Komentuko erlijiosak dana prestau eta bazkaltzera joan ziran. Aita Patxik, usterik onenean, euskeraz emon eban mezea. Gurpide gotzainagana jo eben. Honek debekatuta eukan euskera hutsean eleizbarrutian mezea emotea. Eta beste barik, salaketa zital bat medio, zigorra: “Ez dozu mezarik emongo, ez autortuko Deustuko santutegitik kanpo”. Aita Patxik hau ere onartzen dau bihotzminez: “Zeuri eskeinduten deusut, Jauna, sufrimentu mingarri hau, Zeuk nahi dozun arte”. Eleizbarrutiko arazo astunak eraginda, enbolia batek jo eban gotzaina, hiltzori larrian jarriz. Aita Patxiren ardurea bere alde otoi eta otoi: “Jesukristo lez izan nahi dot, Ama Atsekabetuaren bitartez. Gotzain jaunak min haundia emon deust, baina pozik daroat gurutze hau. Gotzaina gaixotu egin dabe. Bere alde otoi egiten dot, lehen bait lehen osatu daiten”. Gotzainaren aurrean aurkeztu ziran Pinies osagile haundia eta Pasiotarren Nagusia Aita Patxiren alde. Gotzainak baietz erantzun, baina handik aurrera meza bakoitzerako, lekuko parrokoaren baimena eskatu beharko ebala. Zeberio, Orozko eta Arratiako abadeak bere laguntza eske joan jakozan Deustura, baina Aita Patxik gotzainagana bialduten ebazan. Bere alde jarri ziran Pasiotarren Probintziko nagusia eta Basurtoko zuzendaria Pinies osagile jauna, eta Gurpide gotzainak berreskuratu eutsan gaixoei mezea emoteko baimena, parrokoen oneritziz. Ez daigun ahaztu hasierako izenburua: *Aita Patxi herri-misiolaria*. Begira zein bide eta aukera apalak erabilten dituan, eta hizlaririk onenak baino on gehiago egin. Misiolari izateko berbeak baino gehiago balio dau ekintzak eta ontasunak.

Handik laster, Gurpide gotzaina hil ondorengo gotzain Antonio Añoveros jauna dator Bilbora. Benetan gotzain jatorra, Aita Patxirentzat lez, beste askorentzat ere aita eta salbatzaile. Honi ere handik eta hemendik laster heldu jakozan Aita Patxiren aldeko eta kontrako eraginak. Aita Patxiri deitu eta arduraz jaso eban haren ekintza guztien barri zehatza gaixo eta ezinduen alde. Aurretiko zalantzak argitu eta garbitu ondoren, barrero deitu eta badinotso: “Zuk jarraitu gaixoen, zaharren eta baztertuen alde misio ekintza eder horretan zeure kontzientzipean, ez dozu inoren baimenik behar”. Aita Patxik, Jaunari eskerrak emonaz, arnas luzea hartu eta badino: “Hau poza!”

*Asko sufritzeak egiten dau hondatu
ondo sufritzeak santutu eta ondu.*

1

Esku batean Sakramentua
eta bestean makila,
Errosario santua lagun
bidez bide gaixo bila.
Baserrietan hara ta hona
dabil kazari abila,
loa ta jana sarri galduta
nekez dabil erdi-hila;
Jesukristoren alde gudari
hori dok hori mutila!

2


“Aita Patxi hau, hori ta beste”
bada gaur zer esana;
bateko behia, besteko ahuntza
hark bedeinkatu ebana...”
Batez ere zu joaten zinan
zahar eta gaixoengana,
bihotzak poztu eta garbituz
gero aingeruen Jana;
bakoitzagaitik egin zenduan
egin ahal zenduan dana.

3

Baserri baten amama gaixo
etxean bakarrik bera,
Aita Patxi han sartu ezinik
begira goiko aldera.
Behetik goraino jarri eutsoen
leihoraino eskailera;
Joxepa pozik autortu eta
Gure Jauna hartu gainera;
lapurreta on bat egin dau ta
pozik dator goitik behera.

4

Batzutan Aita Patxi ta biok
ginan misinoko lagun,
horra zergaitik ginan hainbeste
biok alkarren ezagun.
Sarri lurrean lo egin arren
goizaldean ez zan astun,
igarri barik goizean goizik
ihesi joaten jakun;
erdizka bizi garean askok
a zer maisua daukagun!



*Hauxe da Aita Patxik etxean bakarrik
deika egoan gaixoari, eskaileran gora igonda,
lagundu eutsan baserria.*

[Eleiz osteko haize hotza]

Nazino arteko guda soinu eta zalaparta nahastuak barru-barrutik eragin eutsan Eleiz-bizitza osoari. Lehen dana intzentsuz eta ur bedeinkatuz Jaungoikoari eskeinduta egoana, orain gauza bakoitza bere lekuan ipinteko ordua heldu dala eta goitik beherako aldakuntzak: Jaungoikoa bere lekuan eta gizona berean; bere burujabe sentitzen hasi da eta. Ez dau Jainkorik behar, bere martxa behar dan lez eroateko. Bere burua nahikotzat dauka. Aita Jainkoari mundua (semea) nagusi egin jako. Hortik Eleizeari sortzen jakon erronka eta eraso gogorra, eta Eleizeak daukan erantzun beharra. Ezin dau sakristian bere burua gorde; ezta plazara urtenda, batzuk bedeinkatzen eta besteak kondenatzen jardun ere. Zorioneko orduan Joan XXXIII.ak Vatikanoko Bigarren Kontziliarako deia zabaldu eban mundu osora 1962. urteko urriaren 11an: *Eleizea gaurkoratu behar dogu*. Letra ederrik eta liburu galantik idatzi da hori dala eta, baina letrak hazur-maminez jantzi eta haize barriz arnastu behar ziran Eleiz-zokondo guztietan. Eta hor izan dira kontuak!

Pasiotarren Kongregazioak ere —Eleizako beste alkarte eta erlijioso Familia guztiak lez— XXXIX. Kapitulu Nagusia eratu eban 1962. urteko urriaren 30an: San Paulo Gurutzekoaren karismea gaurko egoerara eta girora bermoldatu beharra egoan eta, gaurko gurutzeratuen zerbitzura egokitzeko. Jesus Bihotzaren Probintzia euskaldunak ere orma zaharrak bota eta barriak jasotzeari ekin eutsan: Teoloji etxea Urretxun 1951. urtean; Eubako mintegi barria 1955. urtean eta Angostoko Nobiziadu etxe barria 1968. urteko irailean. Aintxinatik etozan eta oraindik indarrean egozan ohitura eta arau asko baztatu egin ziran. Esaterako, jatorduetan berba egin eitekean, eta Aita Patxik isilean jarraituko dau; askok behingoan kendu eben praile-jantzia, eta Aita Patxik heriotzera arte jarraituko dau lehengoaz; gauerdian otoitzera jagitea kendu zan, eta Aita Patxik lagunen bategaz edo bakarrik jagiten jarraituko dau; lehen Nagusiarentzat zan beti lehenengo lekua eta izendapen ohoretsuak ezarten jakozan, orain gazteak beste eritzi batekoak dira: orain danok gara bardinak. Askatasuna, Giza Eskubideak, giza-izatearen duintasuna, bizitzak berak daukan balioa eta edertasuna etabar, baztartuta egon ziran balio askok lehenengo lekua hartu eben eta haize barriak indartsu astindu ebezan baztarrak. Orbel asko eroan ere bai, baina makal samar egozan zuhaitz askotxo bota ere bai, sustriak aidean erakutsiz. Zer egin? Nagusiak ere isilik dagoz, eurak dauke erantzunkizuna Jaunaren aurrean. Aita Patxik bere lekua gorde eban: beste jarrerak errespetatu, baina bere konpromesuak gogotsu betez jarraitu. Betiko zintzotasunean iraunez, profeta baten salaketa maitekorra egiten dau, inoiz baino otoitz eta penitentzi gehiago eginez: “Dana dala, neu naz pekatarririk haundiena”, inoan. Nobiziaduko etxe zaharreko tresnak barrira aldatzerakoan, hor dabil Aita Patxi bere lastamarraga zaharra lepoan hartuta habi barrirako bidean. Bere ustez, Kontzilio ondorengo aldaketak krisialdi gogorra sortu eban erlijioso bizitzan eta eleizgizonen artean, gehienetan nasaikerira eta barrikeri hutsera eroanez. Laburrean esanda, orduan agertu zan *Eta* ere; hasieran gizalege barruan, baina gerora gogorkerira emonaz. Nahastealdi honetan, *gogorbideko* eleizgizon asko Frankoren aldiko Eleizearen aurka jarri ziran, ekintza bizieta joz; eta hainbeste izan ziran Eleiza osoaren eta Vatikanogaz bat eginda dagoan erakunde osoaren aurka, Eleiz-bizitza barrutik zapuztu ebenak. Egoera honen aurrean Aita Patxik irakin egiten eban. Berak beste inork baino gehiago sufridu eban Eleizearen aldetik, baina ez zan hori bide egokia Eleizea gora jasoteko.

IV. atala

Behin baten, auzo batera joan zan gaixoak bisitatzera. Domekea zanez, eleizara doa eta meza-bitartean autorlekuan egoan. Meza emoileak sekulakoak bota ebazan Eleiza ofizialaren aurka. Mezearen azkenean Aita Patxik, lotsa eta bildur guztiak azpiratuta, aldarera igon eta ausardiz jardun eban: “Ez egin jaramonik honela Eleiz Amaren aurka berba egiten dabenei; pekatu eta guzti, geure Ama da eta beragaz bat eginda bizi behar dogu”. Alperriko kastu asko eginda gero, barriro ere eskera bialduten dabe. Gasteiz, Durango, Donosti, Bilbo, Laudio etabar arakatu ebazan, bide bātez ahal ebazanak sinismenean sendotuz, autortuz eta otoitz eginez. Hainbat urteen buruan, gudari lagunak ere bisitatu ebazan kristau fedean indarbarrituz. Aita Patxi burugogortzat jo dabe askok. Buru edo zerbait gogortu behar, hainbeste arrisku eta aldaketen artean, bere betiko ametsa betetzekotan: “Nik santu izan nahi dot... Dana ahal danik ondoen egiteko botoa dagit”. San Inazioaren antzera: “Besteak bigunago, ni gogorrago; besteak zenbat eta gitxiago hobeto, nik zenbat eta gehiago hobeto”.

*Inor santu izan nabian bada,
nork santu egin ez da falta.*



Sandaliak, Aita Patxiren oinetakoak, negu zein uda, botz zein bero.

ELEIZ OSTEKO HAIZE HOTZA

1

Bilbo itzita, aldatu behar
Arabako Angostora,
asko ebiltzan, zu Aita Patxi
zelan botako kanpora.
Diranak eta ez diran danak
ipiniaz hankaz-gora,
"Eleiz osteko haize hotzetan"
zer frutu eta zer lora!
Horra zergaitik zuk jo beharra
sarritan Kalbariora.

2



Gaixoak poztu, zaharrak lagundu
ta lehortu anpuluu,
han eta hemen zu izan zinan
gixajoen makulua.
Askatasunez jardue zenduan,
hori zan eskandalua...
Horra hor: eginaren pagua
ate ostean palua;
baina zuretzat Jesus gurutzan
zan betiko ispilua.

3

Halako baten hor Vaticano
Bigarren Kontzilioa,
danen gaintik ipini nahirik
goren Ebanjelioa.
Dana aztertuz, non dagon gatxa,
non betiko balioa:
kontua ez da Jantzi Santua,
ezta errosarioa;
lehen eta orain ez dozu izten
Jesusen Kalbarioa.

4

Lehengo Eleiza gaurkotutea
egin beharra zan hori,
azalez barri, baina barruz zahar,
hau jazo jaken askori.
Espirituak emoten deutso
Eleizari kategori;
Aita Patxiren antzera beti
begira Jesukristori,
atxaki hutsez ez inork bota
errurik Vatikanori.



Barrero Angostora

Aita Patxik 12 urte emon ditu Deustuko alkartean: etxe-bizitzan danen zerbitzari; nagusiarentzat aingeru bat, danetarako prest, ezetzik emoten ez dakiana, bere esana agindutzat hartu eta betetzen dauana... Santutegian bera zan bedeinkazinoen arduradun eta autorle zintzoa, mezak emoten eta laguntzen ase ezinezkoa. Inguruko gaixoetxe, gaugurtzaileen talde, erlijiosen komentu etab. dala, beti egoan nor bialdu: Aita Patxi. Bildurtzen hasita egozan, beragaz gehiegikerian jausiko ete ziran.

1966. urtean Angostora izendatzen dabe. Harlosa astuna lez jausi jakon bihotz gainera, eta ilunaldi luzea erakarri ere bai bere barrura. Berak dinosku bere Egunerokoan: "Hau tamalgarria! Bilbo aldeko gaixo eta zaharrak itzi behar izan dodaz. Baina ez bedi nire gogoa egin, Aita, zeurea baino", esan eban Jesus Maisuak Jetsemaniko gau ilunean lez. Handik geroago ere bardin: "Egun osoan daroat arantza hau bihotzaren erdian, baina beti egin nahi dot Jaunaren borondatea". Saminak samin, ez eutsan inoren kontra inork txistik ere entzun; bere ahalegin dana Jaunagaz bat-eginda bizitzea zan. Baekian guzurrezko salaketa batzukaitik aldatu ebela Deustutik. Baina, halan eta guztiz ere, barruko zurrunbiloak ez ziran ezertarako azaleratu, sufrimentuak daukan on guztia beraganatuz. Angostora, zertara? Ez eukan han helburu eta egiteko jakinik bat bera ere. Ezebezkeri batzuk eskeindu eutsoezan: Nobizio gazteei Kongregazinoko barriak emotea, Caranca eta Astulez herritxoetan domeketan mezea ospatzea, egunero Villanañetik *karteru* egitea... Era askotako mila guda-zelaietan ondo hezitako gudari ausarditsu batek egunak holan emon beharra!

Aita Patxik 59 urte daukaz eta gorputzez zertxobait nekatzen hasita dago, baina bihotza beti sutan, Espirituaren hauspoak putz eginda. Hain estu egin jakozan bideak zelan barrero zabaldu? Baucan bere *giltz sekreto*a: aste betean otoitz eta penitentzi egin, Nagusiengandik baimena lortzearren. Esperientziz ekian lehenengo kolpean ez ebala lortuko, eta bere erantzuna: "Jauna, gurutze hau ere zure eskutik hartzen dot eta oso pozik gainera, Ama Atsekabetuaren bitartez". Handik lasterrera, barrero ere ekin eta ekin. Bere barruko larriak eragiten eutsan: "Neuk eroaten ez badeutset, Gure Jauna hartu barik geldituko dira. Barrero esango deusat Nagusiari eta ukatuten badeust ere, bakean jarraituko dot". Azken baten, ikutu berezia egin eutsan ateko sarrailan. Gaixoak bisitatzera joateko baimena eskatzen deusa: "Iretargiraino joango nintzake, eurai lagundu eta Gure Jauna eroatearren". Eta Nagusiak oraingoan baietz erantzuten deusa. Eta Aita Patxi pozaren pozez dantzari: "Hau poza! Orain ere, betiko lez, Jesusen Bihotz santuak irabazi dau. Gora Jesusen Bihotza". Eta Aita Patxiren perrotsa Orduñatik Laudiora, Orozkotik Zeberiora, Ugaotik Bilbora. "Andra Mariak lortuten deust berebila, behar dodan bakoitzerako", dino pozez zorutzen. Askoren ustez Bilbotik Angostora bota eben, gotzain, abade eta bestelango banaka batzuen bakerako. Holakorik entzuten baeban, horra bere erantzuna: "Jaungoikoak gura izan dau ni honelan ibiltea". Eta txistik ere ez gehiago. Hurrengo baten Deustura joan zan, eskatu eutsen banaka bat autortzera. "Ez gehiago agertu hemen", hasarre bizitan uxatu eben handik. Aita Patxik orduan ere ez eban galdu bakea: "Egin bedi zure nahia, Aita, eta ez nirea; lagundu, arren, dana zeure eskutik hartzen eta santu egiten, Andra Maria lagun".

*Ezina, ekinaz egina,
min askoren frutua, atsegina.*

┌ Nik erbiak habian harrapatzen ditut ┐

Egia esan, Aita Patxik ez eukan berbaldietarako dohai haundirik. Hagaitik joten eban ekintzetara. Eleiz zabal haundietan berba asko egiten da, eta lautik hiru galdu ere bai errez. Hagaitik Aita Patxik bihotzetik bihotzera, aho-belarri berba egiten eban; eta batez ere ekintza neketsu eta apalen bidez. Eta horrelako berbaldirik ez dago. Horrelako berbak ez dira belarri batetik sartu eta bestetik urteten dabenak, bietatik sartuta eta zuzen bihotzera doazenak baino. Lehenago gudalekuetan lez, orain ere errosarioa eta santokristoa ditu bere arma bakarrak. Bata zein beste sarri atera eta erabilten ditu: etxean, bidean, gaixoen ondoan, autorlekuan, pulpitoan etabar. Herri-misioetan sarri izan genduan alkarregaz jokatzeko aukerea: Igorre, Zeanuri, Dima, Orozko, Zeberio, Muxika, Mendata etabar alkarlanean ibili ginan Jaunaren lurraldea landuten. Nik berbaldietara joten neban bitartean, Aita Patxik ere han ziharduan jo ta ke: gaixoak eta etorri ezinean egozan zaharrak bisitatzen eta sakramentuz janaritzen, berbaldi samurrak eginaz. Tabernetara ere sartu ohi zan, kanpaiei entzungor eginda, geldi egozanak eleizaratu nahirik, bizkarrean ikutuz eta berba goxoz dei eginaz. Behin baino gehiagotan ikusi neban nire berbaldi denpora guztian, eleiz baztar baten belauniko otoitz eta otoitz, nik erein ahala hazi Jaunak graziz bedeinkatu egiala eskatuz. Eta azkenean zelango egotaldiak, jardunaldiak autorlekuan! Holakoetan lo gitxi egiten eban eta gehienetan lurrean; jan ere gitxi eta azkar. Hainbat bider etorri jakun gauez abadetxera, egun guztian ezertxo jan barik. Zergaitik? Eta asti barik ibili zalako. Arrantzualdian arrantzaleak ez dauka astirik ezertarako. Aita Patxi benetan misiolaria zan. Barruko dei biziak horretarako jasoten ebazan, eukazan dohaien arabera jarduten eban: isilean, otoitzean eta penitentzian. Gaixoak, zaharrak, ezinduak eta baztatuak ziran bere aukeratuak, Nazareteko Jesusenak lez.

Behin, misio-lanak amaituta, afalondoko barriketalditxoan, eguneko joan-etorriak zelan joan ziran aztertzerakoan, irribarrez badinosku: “Zuk ekin zarataka, erein ugari eta sendo Jaunaren Berbearen hazia, eta nik otoitz egingo dot, erne eta garatu dedin. Nik neuk erbiak habian sartuta gero harrapatzen ditut”.

Honako hau entzunda, zeuk atera kontuak: “Behin Arratiako baserritxo batera gaixo bat autor-tzera doa. Bakarrik dago etxean eta ate guztiak itxita, beste danak solo-lanetan ziharduen eta. Gaixoaren *gelako leiboa* zabalik ikusten dau eta bai entzun ere bertatik gaixoaren zotinak. Auzotar bati eskaileratxo bat eskatzen deutso eta hor doa eskaileran gora, gaixoa autortuten; jaisten da behera eta biharamonean dakartso Gure Jauna”. Hori da gaixoari on egin beharra! Bizia jokatuko eban, eurotariko bat salbatzearren.

*Lotsabakoentzat da mundua,
irabazten dauanarentzat zerua.*

Autostopeko prailea

Aita Patxik ez ekian bizikletan, ez kotxea erabilten; astotik gorago ez eban igon. Halan eta guztiz ere, ez dira misiolari asko izango bera beste kilometro kotxean ibili danik. Eta... eskua jasota, beste barik: *autostopean*. Ez genduan Aita Patxi nor izan dan zehatz agertuko, berak autostoperako eukan joera azpimarratuko ez bagendu. Bizkaia eta Araba aldean bere izenez baino gehiagok ezagututen eben *autostopeko prailea* izenagaz. Eta errosario bi edo hiruko *gasolina espiritualaz* ordainduta. Madril aldean kaperau ebilela ikasi eban bideak bixkor eta merke egiteko aukera hori. Kontuak atera: hainbeste urtetan zenbat kilometro ibili ete zan horrela, zenbat errosario errezatu kotxeko lagunakaz, zenbat autortza eder entzun bitartean, zenbat gaixo eta aldenduengana heldu? Jainkoa bakarrik testigu! Liburu mardula idatzi leiteke *autostopeko prailea* dala eta. Han-hemen baebazan kotxedun lagun zintzoak, beti eroan-ekarteko prest eukazanak. Baina gehienetan ezezagunak ziran, parean jausten jakozanak. Bere ustez, Andra Maria eta San Pelitzisimo ziran unean uneko kotxea eskuratzen eutsoenak. "Nik Andra Mariaren esanetara lan egiten dot, eta gero berak lagunduten deust behar dodan guztian." Ustebako kotxegidarien artean danetarikoak suertatzen jakozan: gotzainak, abadeak, erlijiosoak, kamioizaleak, gazteak, atzerritarrak, protestanteak, ateoak.

Kotxean sartu eta agur bero baten ondoren, apal-apal jardungo eban: "Ondo baderitxazu, errosario santua errezatuko dogu zeure familiko hildakoen alde, eta Ama Birjinak lagundu deigun", hain apal eta benetan esaten ebanez, gatx egiten jakun ezetz esatea. Hainbestek dinoenez, beragaz autortzen ziran, ondoren jaunartuz, gidatzen eben artean.

Autostopa otoitz-eskola bihurtu eban, eta eleizatxo ibilkor. Ez eban, beste barik, autostopera joten merkeago zalako; gaixorik edo hiltzorian egozan gehiagoren ondora bixkorrago heldutearren baino. Eta gidarici eurei on egitearren ere bai. Zenbatek otoitz egin ete eben aspaldiko partez Aita Patxigaz! Eta autortu eta jaunartu barriz! Baziran egunak 10 eta 20 bider autostopa egiten ebana, eta bakoitzeko errosario bat, kontuak atera! Ondorengo hau *Zirarda gotzainagaz* gertatu jakona dozu:

"Mundakatik Billbora ninoan behin neure gotzain zereginetara. Hara non praile bat, aterkin zahar baten azpian bide ertzean. Laster antzera emon neutsan, berari buruz asko entzunda nengoan eta. Eskua jaso eta berehala gelditu nintzan:

— Egunon, Aita Patxi!

— Zer? Ezagututen nozu ala?

— Bai, neu ere abadea naz eta.

— Nongo abadea zaitut, ba?

— Egia esan, Indautxuko parrokian lan egiten dot, baina bertan ez daukat ardurarik.

— Ez jataz gogoko hara-honaka dabilzan abadeak. Nahiago dodaz alkarregaz bizi eta lan egiten dabenak.

— Jakin daizun, gotzaina naz.

— Hori da adarra jo nahia! Non dauka, ba, dagokion eraztuna?

— Kotxea gidatzen dodanean, eraztuna eskuz aldatuten dot —eta eraztuna erakutsi neutsan.

— Ene! Jakin izan baneu, jakin, ez nintzan sartuko. Eta paparreko gurutzea ere badarozazu. Gelditu beite, mesedez, ezin neikio gotzain bati denporarik galduazo. Gainera, ez naz duin gotzain bategaz joateko.

Nik baretu neban, gotzainok ere on egin beharra daukagula esanaz, eta noizean behin errosarioa errezatu beharra ere bai. Eta Deustuko komenturaino eroan neban".

*Zein eleiza, zein autostopa,
on egiteko aukera nonahi topa.*

1

Behar zan eta ondo etorri
Vatikanoko Batzarra!
Baina harekek atera eutsun
bihotz-hondoko negarra.
Haren atxakiz nasaikerira
betiko joera txarra...
Ez errezena, bai zuzenena
hor dago zure indarra;
hala nahiz hola, maitatzea da
betiko lege bakarra.

2

Hara bialdu, hona ekarri,
beti gauza bat buruan:
gaixo ta zaharrik zure preminan
ba ete dan inguruan.
Bardin auzoan izan ta bardin
urrun bateko lekuan,
euri nahiz edur, ez dau ardura,
egunez nahiz gau orduan;
bizi diranak leku askotan
dauke ondo akorduan.

3

Gaixo artean ebilen Jesus
zuk Aita Patxi gogora,
eta Berak lez gaixoentzako
beti daukazu denpora.
Gogoan dauke baserri baten
hurreratzean ondora,
gaixo bat deika, etxeko danak
joanak ziran kanpora;
Gure Jaun eta guzti joan zinan
eskailera baten gora.

4

Zuk bazenduan beste izen bat:
"Autostopeko gizona",
zeozegaitik Bizkai osoan
herriak berak emona.
Asti gitxi ta zeregin asko
etenbarik hara-hona;
errosario ta sakramentu
hango kirieleisona!
Hauxe izaten zan ordaintzeko
Aita Patxiren txanpona.



Dimako San Roke baseleizea.

Misiolari haundi baten azkena



Ezkutua: "Jesukristoren pasinoa" adierazten dau, Aita Patxiren espiritualitatearen ardatza.

Sarrera

Aita Patxi ez zan egundo gaixorik egon; ondoezak eta gora gitxiko makalaldiak bai. Batez ere, buruko minak joten eban sarri. Itxuraz gizon makala emoten eban, baina nekaezineko gizona zan ekintzetan, beti sendo eta kementsu. Behin baino gehiagotan izan eban burutapena minbiziaz hilgo zala. Azken urteetan nahiko zeregin emon eutsoen orpoetako harrakalak; hotzez eta beroz gogortuta euki arren, ez ebazan ezergaitik ere aldatuko. Eta osagileak sandaliak kentzeko aginduko ete eutsan bildur bat bai! Izan ere, Aita Patxiren ibilerak ez dira txantxetakoak: basoz baso, sarri lupetz artean, izotz edo edurtzetan egun osoak, eta beti orpo gorritan. Noizean behin bisitatzen eban afoniak eta katarroak, ahotza galtzeraino. Ezin berbaldirik egin, ez autortzarik entzun. Beti lez oitizera joko eban: "Jauna, emoidazu osasuna, oraindik zeregin asko daukat eta". Beti eukazan gogoan bere gaixoak eta zahar-ezinduak. Ez eban beretzat eskatzen, urkoaren laguntzarako baino.

Gitxien uste eban baten, ikaragarritzko aginetako minak astindu eban. Baina hori baino gatx gogorrago baten seinalea zan. Iraragorri osagileak ondo ezagututen eban Aita Patxi, herritarrak ziran gainera. Berak autortzen dau: "Bere azken gaixoardian nigana hurreratu zan, sukarrez eta ondoezaz zehatz jota; handik gitxira hilgo zan, leuzemia gatxez". Agiri danez, bere apostolutzan gehiago ezinez, barruz ere lurjota gelditu zan. Luis Manuel Pinies osagile famatuak, Aita Patxiren lagunminak eskeintzen deusku testigantza eder hau: "Aita Patxi etenbarik lanpetuta bizi izan zan eta erruki barik eraso eutsan bere buruari. Berak izan eban leuzemiak 5 edo 6 hilabete irauten dau normalki; ez dator goizetik gauera. Eta berak egun gitxi barruan jo eban hondoa. Misiolari jainko-zale gartsu hau ez zan geldi egotekoa; leuzemia eta guzti lanean jarraitu eban hainbat denpora hara eta hona. Dana jasan eban gaixoenganako maitasunez, Jaunaren eta urkoaren izenean lan eta lan egin nahiez. Dinodan hau dinot, Aita Patxi ondo baino hobeto ezagutu nebalako". Aita Patxi bera ere konturatu zan gorputzak ez eutsala lehengo bestean erantzuten, ez eukala jateko gogorik, eta nekez eta minez ebilela lanean: "Badira zortzi egun, eztarria kedarrez lez zakartuta daukadala. Ez dakit noiz hilgo nazan baina, Jauna, zeure eskutik gogo onez hartzen dot bialdu nahi deustazun heriotzea, bildur, estularri, oinaze eta guzti, Andra Maria lagun".

Egoan moduan egon eta topera dabil: monjak, herrietako gaixoak, ezin ditu ahaztu. Baina danak igerri deutsoe ez dala lehengo Aita Patxi. "Uztailaren 21an egin eban misiolari-ibilaldia benetan neketsua izan jakon: danak aurkitu eben lurjota, haustuta, hustuta, beste mundura joanda lez." Aita Patxi lango misiolari batek daukan dana emon behar dau, azken arnasaraino.

*Emonak emonda gero ere gehiago emon gura,
hori da eskailera ederra mundutik zerura.*

Azken etxez aldatzea

Bizikizun arrunta da honako hau: zenbat eta gehiago hatxurra dantzatu, soloa zabal haundiagoa egiten da; zenbat eta gitxiago erabili, orduan eta soloa txiki exkaxagoa. Bata uzta ederrez jantzita, bestea sasi-bedarrez josita. Aita Patxiren misio-esparrua gero eta zabalagoa joan zan. Angoston egonda, zelan erantzun batera hango eta Bizkai aldetik etorkiozan konpromesu dei guztiei? Eta ezetz esatea mingarri egiten jakon? Gaixo eta ezinduen zerbitzua hobeto bete ahal izatea zan, Angostotik Deustura aldatu nahiaren errazoi bakarra. Bere barruan borborka eukan maitasun garrak ez eutsan bakean izten. 1969. urtean Pasiotarren Kongregazinoko Jeneral Nagusia Euskalerrira etorri zan. Aita Patxi luzaro egon zan beragaz eta Probintziko Nagusiagaz batera. Eske eta eske; mesedez izteko Deustura aldatzen. Erromako Nagusiak badinotso: "Idatzi eidazu Erromara aldaketa horren arrazoiak argituz". Bai pozik eta azkar egin ere. Baina Erromako erantzunak ez eban bere guraria bete: "Oraindik ez dago argi zure arazo hori". Eta Aita Patxi bere betiko babeslekura: "Egin bedi Jaunaren nahia. Niri bardin deust".

1973. urtean Deustun ospatuten zan Kongregazinoko Kapitulu nagusia. Teodoro Foley izan zan autatua Jeneralzarako. Han doakio Aita Patxi eskean. Nagusi barriak ondo baino hobeto ikusten eban Aita Patxiren misiolaritza gaixo eta ezinduen alde. Eskuak buru gainean ezarriz, bedeinkatu egin eban maitekiro. Jeneralaren deia hartuta, Probintziko Nagusi barriak jakitera emon eutsan Aita Patxiri: "Aurtengo irailean aldatuko zara Deustura". Baina Jaunak lehenago aldatu eban morroi zintzoa bere Etxera, bere ondora. Aita Patxi hil zala jakitean, Aita Jeneralaren zizpurua: "Hil jat nire aingeru jagolea. Egunero otoi egiten eban nire alde gauerdian".

*Azaleko olatuak olatu,
sakoneko bakea zaindu.*



Larrea'tar Koldobika, Bilboko gotzain agurgarria buru dala, Aita Patxiren santutasunaren aldeko testigantzak batu eta Erromara bialtzeko erabagia hartu zan ospakizuna. (1990. urteko ekainaren 14an.)

Azkenengo autostopa

“Ez deust ardura heriotzea gaur nahiz bihar etorri. 38 urte honeetan egunero hiltzeko prestatzen izan naz. Jaungoikoaren nahia betetea, besterik ez dot nahi: Berak nahi dauan arte bizi, ez gehiago, ez gitxiago.” Gure herri-misiolaria azkenetan dago. Ezina heldu jako eta bakez onartzen dau. Angostotik Deusturako bidean, Ugaon gaixo baten etxean emon eban azkenengo eukaristia: “Jesarleku zabal baten jesarrita, esku biak aldare mahaian ebazala, bere bizitzako azken oparia, Jesukristorenagaz bat eginda eskeindu eban”. Handik Artaganeko pasiotar monjen komentura doa egoera lastimagarrian. Ez gosaririk, ez besterik ez eban hartu. Hantxe emon eutsen azken bedein-kapena, etxe ondoko ormarrian jesarrita. Ahal eban moduan jo eban Irarragorri bere adiskide osagilearen etxera eta behingoan konturatu zan, azken larrian egoala. Azken baten heldu zan, bai, Deustura, eta gaixoen gela berezian oheratu zan. Uztailaren 28an eta 29an inon diranak egin eutsoezan, gatzaren hatzaparretatik askatzeko. Baina gatzak gogor ere gogor oratuta egoan, eta hiltzian aurkituten zan, Jesusegaz gurutzean bat eginda, Andra Maria Atsekabetuaren beso artean bakez. Abuztuaren 1an Oliadura santua emon eutsoen, Alkarte osoa inguruan ebala. Aurretik baretasun osoz egin eban erlijiosoen hilburukoa: “Ordua heldu bada, goazen heriotzara adore haundiz” (Makabeotarren erronka gogoratu). Dardar eragiteko unea! Ondoren danei txarto eginen parkamena apaltasunez eskatu eutsen, eta berari zeozetan kalte egin deustoen guztiei bihotzez parkamena eskeinduz. Zerurako uste osoz beterik berba egin eutsen. Bere gauza danak nagusien eskuetan itzi ebazan, bere nekeak eta otoitzak Kongregazioaren alde eskeinduz. Horra bizitza osoan egin ebanaren laburpen zoragarria! Betikoa: Zelango bizitza, halango heriotza.

*Hori bizitza bete-betea:
sandaliak soinean dituala biltea!*

1

Jaungoikoaren borondatea
ahal dan ondoen onartu,
zu Aita Patxi, gurutz-orduan
horrek zinduzan indartu:
"Ordua bada, goazen aurrera,
nahiz heriozpean sartu...
Hantxe nau Jaunak besarkatuko,
hantxe betiko alkartu;
Jesus Jaunaren gudari batek
ezin dau ihesa hartu".

2

Zu Aita Patxi, beti zenbiltzan
ezin gehiago topera,
bihotz handia, pauso txikia,
jo behar autostopera.
Barruan dozun lapur gaiztoak
eroango zaitu lurpera;
gaixo maiteak deika dozuz ta
ezin itzi bertanbehera...
Jaunari Fiat! fedez esanda,
jarri zinan esanera.

3

Azkenean hor, zu Aita Patxi,
Basurto ospitalean,
maite zenduzan gaixo artean
egoera makalean.
Zeure anaiei parkeskatuaz
espiritu apalean,
nahiko lan egin dozu munduan
jo ta ke ekin-ahalean,
o Aita Patxi, hartu atsedean
Aitatzoren magalean.

4

Zeuk Aita Patxi, sarri esana
on egiteko sugarrez:
"Zeruan ere jarraituko dot
danei on egin beharrez".
Ondo dakizu munduko barri,
sarri gabiltz zoritxarrez.
Ez zara gauza zeu bizitzeko
hor goietan irribarrez,
lagun eiguzu, alkartu arte,
ahal dozun beste indarrez.



┌ Basurton gaixo artean gaixo ┐

Basurtorako bidea ondo ezaguten eban Aita Patxik: hantxe hasi eban gaixoen eta ezinduen aldeko apostolutza. Hasieran hilean behin eta gero astean birritan, eta eskatzen eutsoen guztietan. Han ibiltzen zan gaixoz gaixo danen bihotzak jaso, eta Autortza, Jaunartze eta Oliadura sakramentuz indarbarrituz. Eurentzat Jesus Beraren irudia zan: orain Aita Patxi bera ere Basurtoko gaixoen artean gaixo, eurekaz bat eginda, hilzorian. Goitik behera ezereztuta egoan. Ahaleginak ahalegin, ezin gaxari atzera eragin. Odol-analisiak egin, seroa ezarri eta lehenengo odol sartzea ere bai. San Pelitzisimoren eleizako mezatan emon eban Aita Patxirentzat odol preminaren barri, eta behingoan agertu ziran 60tik gora. Ez eben gehiago zabaldu nahi izan Aita Patxiren egoeraren albistea, gehiegizko jendetza inguratuko ete jakon bildurrez. Azken orduetan dagoala ere, banaka bat hartzen izan ebazan, eta eurekaz batera otoitz egin ere bai. Aita Patxiren gela berean suertatu jakon gaixorik egotea Gregorio Asategi durangarrari. Ondo gogoan ezarrita daukaz Aita Patxiren azken orduak: “Egunero etorten jakon gizon bat, eta belaunikatuta hartzen eban Aita Patxiren bedeinkazinoa. Bere larrialdian «Agur Maria Sortzez Garbia» esanaz deituten eustan eta jagita ezpan ertzak igurtziten neutsazan. Aita Patxik *eskerrik asko* gozo bategaz erantzuten eustan”. Gregoriok ez dau inoiz ahaztuko Aita Patxigaz gela berean egindako egotaldia! Bere argazkia beti aldean daroa; eta erakusten dauan bakoitzean mun emonaz, malko eta guzti esaten dau: «Aita Patxi santua da». Eta Aita Patxiren bedeinkazinoa hartzera hurreratzen zan hori Rikardo Badiola dogu, eta hil baino ordubete lehenago hartu eban azkenengoa. Berea da autormen hau: “Ez, ez nintzan autortu orduan; eskatu izan baneutsa, ziur nago autortuko ninduala, bere egoera larri eta guztiz ere; bera horretarako bizi izan zan eta. Bere ohe ertzera hurreratu nintzakon, bere azken berbak jasoteko, sarri egiten genduanetz”. Basurton Aita Patxi zainduten eban Kontxi Villar, Karidadeko erlijioseak emoten deusku testigantza eder hau: “Bere bizitza osoa izan zan heriotzarako gertatzea. Ez eban egundo agertu heriotzearen aurrean bildurrik. Heriotz-aurrean beragaz berba egiteko aukera ederra izan neban. Bizitza barruan berez datorren jazoera arrunta bailitzan hartu eban. Berarentzat dana zan Jaunaren nahiaren agerpena”.

1974. urteko abuztuaren 6an hil zan, Jesus Jaunaren Antzaldatze egunean, arratsaldeko 2:30tan, pasiotar anai batzuen erdian. 64 urte ebazan. Azken bidaiako autostopean Andra Maria bera izango eban gidari, Tabor mendiko zorionezko betiko tontorrean sartzen. Zorionak Jesus Maisuaren gudari zintzo adoretzua! Bizi zaitetz behingoz bakean!

*Azkenengo autostopa zerura,
betiko bake eta bizi lekura.*


Aita Patxiren hiletak

Aita Patxik eskatuta, ala Nagusiak gurata ez dakit, neuri suertatu jatan Aita Patxiren hiletetan mezaburu izatea. Alde batetik zelan ezetz esan? Eta baietz esanda, nondik oratu edo zelan agertu santu baten bizitza? Ezinekoa da holongo gizon baten barri, dan bestean emotea; ezta hurrik emon ere. Aita Patxi berari laguntza eskatu eta zati bitan banandu neban berbaldia: Jaunak berari ixuri eutsazan dohaiak eta Jaunak bere bitartez egindako harrigarriak. Arratsaldeko 7retan izan zan hiletamezea, jendetza ikarragarritz eleiz eder haundia beterik egoala. 37 abade ginan aldarean alkarmeza emoten eta beste hainbeste jentartean, aldarean lekurik ezagaitik.

Meza ondoren, bere gorpua Deustuko Ibarrekolandako kanposantura eroan genduan eta han lur emon, Pasiotar Alkartearen panteoian. Behingoan zabaldu zan Bizkai osoan Aita Patxiren heriotz-albistea. Ezagutu ebenak izan eben nahiko zeresan. Zer esan eta zer egin: etenbako jente iladak sortu ziran herrialde guztietatik Deustuko kanposantura: zaharrak, gudari lagunak, adin eta maila guztietakoak. Hantxe, Aita Patxi gogoan hartuta, otoitzean, argiak biztuz, lorez apainduz, eskari beroak eginez hainbeste beharrizanen alde.

Baina ez zan leku egokia Deustuko kanposantua jentea atzera eta aurrera ibilteko; jentearentzat urrun eta bidea arrisku haundikoa zan. Handik eta hemenik eskatu eta eskatu hasi zan herria, Aita Patxi Deustuko San Pelitzisimoren eleizara aldatzeko. 1982. urteko irailaren 5an, hil eta 8 urtera, eleiz eta herri-baimen guztiak eskuratu ondoren, bere gorpu-hondarrak Deustura aldatuak izan ziran, ia isilean eta haundikeri barik, bere jokabideak gogoratu. Domekea izan arren, 30 abade ziran aldarean meza emoten, eleizea dana beterik. Eta harrezkero bere erlikiak hor dagoz Deustuko eleizan, sarreran ezkumaldean bere irudiaren atzekaldean. Ez jako egundo falta argirik, ez lorerik, eta gitxiago isilean eta agirian egiten jakozan otoitz eta eskaririk.

Aita Patxi eta bere hiletetara etorri zan kristau herriak ondo merezi ebezala eta, ondorengo bertsotxo honek prestau nebazan hiletetako berbaldian tartekatzeko.



Aita Patxiren irudia, San Pelitzisimoren eleizako sarreran, ezkerraldean. Jai eta astegun etenbako jende-kateak dirau bere aurrean, batez ere gaixoak.

1

Hil da gure gudaria,
Jesusen mezularia;
Erreinuaren alde eabilen
giza-ehiztaria.
Herri-misiolaria,
errukian ugaria;
O Aita Patxi, opa deutsugu
betiko saria.

2

Gaixo ta zaharren maitale
pobreei on eginzale;
Jesus Berak lez jokatu dozu
ta horregaz bale.
Gaur baserri eta kale
hemen gaituzu eskale:
zeure bitartez, ez daigun gero
inork emon kale!

3

Zeuk esana da behinola:
Maitasunaren eskola,
zorionbide ederragorik
inon ez dagola.
Malko, izerdi, odola
ez dira galtzen inola,
horra zelan zuk goiko atean
sartu dozun gola.

4

Jesus Maisuaren jarrai
beti erantzun zeuntsan: Bai;
orain zeruan bere ondoan
zagoz pozetan blai.
Badakizu zer dogun nahi:
jarraitu zure bideai
gero zeruan danok batera
egin ahal daigun jai.



Gaur egun San Pelitzisimoren erlikiak Gurutzeko Lehen Martiri Nagusiaren oinetan.

Handic



urtena

Zuk jarraitu niri

Aita Patxi errezu askoko kristaua izan zan. Hainbeste santu eta santa jakoz gogoko: Gurutzeko Paulo, Gabirel deuna, Santa Gema eta Pasiotar dohatsuak lehenengo lekuan dirala. Gogoan daukaz sarri eta urtero ospatuko ditu euren bizitzako egunik gogoangarrienak, eurekaz bat eginda lez bizi da. Zer esanik ere ez, danen artean Maria eta bere senar Jose dohatsua. Baina halan eta guztiz ere, danak jakozan lagun eta gidari Jesusengana helduteko; Jesus egoan bere buru eta bihotz erdian. Sarri inoan berekautan: “Halakoak eta holakoak Jesusen izenean hau eta hori egin baeben, nik zergaitik ez?” Hori zan santuengandik etorkion erronka bizia. Jesus Gure Jaunagaz hain adiskide egin zan, Beragaz bat eginda bizi izan zan. Angosto, Cardeña eta Carabanchel izan ziran Jesukristoren espirituz gehien markatu eben lekuak. Batez ere Jesus Maisuaren alderdi bi honeetan agertzen jaku gorengo mailan: Aitaren borondateaz bat eginda bizi nahian. Beti dauka aho-bihotzetan: “Egin bedi zure nahia, zeure eskutik hartzen dot dana, Jauna...” Eta bigarrena arerioei parkatzera-koan: “Jauna, parkatu egiezu niri zeozetan kalte egin deustenei eta emoiezu zeruan lehenengo lekua”. Ezertan kontra jartzen bajakozan, kalte edo min emon baeutsoen, euren alde otoitz eta penitentzi egingo eban, euren onerako errosarioak eta mezak eskeinduz. Sufrimenturik haundietan Jesusegaz hartuemonik estu eta maitekorrenak izan ebazan. Jesus Gure Jaunagaz topo egiteko leku eta ekintza bereziak eukazan: Jesusen Bihotz Sakratuaganako eraspina, Sagrario ondoko egotaldi luze ugariak, Gau Gurtzaileen arteko esperientzi gozoak eta, batez ere, Eukaristia. Bere zerbitzurik gozonenarikoa mezea erasotea zan. Hamaika mila meza eraso ebazan! Eta eguneroko mezea, barriz, bere bizi-ardatza zan, zeru beteko eguzkia. Entzun testigu batzui: “Mezea emoterakoan, Jesus Berbera zirudian”. Beste batek: “Nire ustez, Jainkoaganako eta urkoaganako maitasunaren maitasunez, Jesus Beraren irudi bizi bihurtu zan”. Bizitzako azkenaldera sarri jarten dau bere Egunerokoan: “Ene Gurutzeko Jesus maitea! Zure antzeko izan nadila... Zure antzeko izan nahi dot danetan, Ama Atsekabetuaren bidez. Ezarri eidazuz nire bihotz hondoan zure Nekaldiko oinaze eta zauriak, Gurutzeko Paulo Santuari lez”. San Paulo Apostoluaren berbak datorkioz oso egoki: “Bizi naz, baina ez ni; Kristo da nigan bizi dana” (Gal 2, 20).

Aita Patxi praile-prailea zan

Hilbarritan danak dira aintzagarrri: Hori izan da gizon ona! Aita Patxiri ere beste honenbeste jazo ete jako? 25 urteko bitartea nahiko haundia da bere nortasuna gora ala behera doan igerteko, bere bizitzari buruz gure eritzia aldatu ete dan aztertzeke. 25 urte geroago bere irudia gogoan hartuta zer? Atal batzuk arakatzera nahiko izango dogu antzemoteko.

Danen gainetik Aita Patxi praile-prailea zan: bai komentu-bizitzan, bai gudarien kaperautzan. Bere janzkeran eta jokera guztietan horixe nabaritzen jakon lau alderdietatik. Harro sentitzen zan danen aurrean horrela agertzean. Gabirian eta Angoston hartutako bizimoldean ezertxo ere aldatu barik iraun eban heriotzara arte. Gudaketatik etxeratu eta gero zer? Zera: *Aita Patxi, beti Aita Patxi*. Ale batzuk ekarriko doguz aurrera, laburrean bada ere.

Behin emondako baietza urtero barriztuten eban, ezkonbarrien antzera. 1964. urteko ekainaren 20an gogoratzen dau egun ha: "Jauna, ez deusut ezertzo ere ukatu nahi. Pasiotarren Jantzi Santua hartu nebanean emon neutsun berbea gaur barriztuten deusut, udabarriko azken egun honetan".

Aita Patxiren *menpekotasuna* gehiegizkoa ere bazan. Eta ez bakarrik nagusien esanetan. Ezingehiagoan zan zehatza nagusien esanak eta gogoak betetzerakoan. Sarri esan ohi eban: "Nagusiaren agindua, Jaungoikoaren agindua". Nagusiak eurak ere kontuz ibili beharra euken Aita Patxiri aginduak emoterakoan, dana benetan hartu eta betetzen eban eta. Hor orri artean behin baino gehiagotan ikusi dogunez, noiz behinka bere gogoz kontrako aginduren bat etorten jakon; mutik egin barik onartzen eban; ondoren bere gogoag agertzen eutsen, baita aldatzeko eskatu ere uste osoz. Lortuten ez baeban, bihotzez gaineratuten eban: "Jaungoikoak halan nahi izan dau. Neure onerako izango da". Aginduak agindu, egundo ez eban ahotik txistik atera nagusien aurka, ez agirian, ez bakarrean. Nagusiak nasai egoten ziran, Aita Patxi etxean baegoan, hara zein horra zerbait egitera joan behar zanean. Berba erdi bat esatea nahiko zan: belauniko bedeinkazioa eskatu eta pozik eta bixkor zeregina betetzera joango zan.


Baina gehienbaten agindu beharrik ere ez zan izaten: berak danei aurrea hartzen eutsen etxeke zeregin apal eta arruntenetan: etxea txukundu, telefonoko deiak jaso, gaixoak zaindu, platerak eta etxe zokondoak garbitu, autortzak entzun, bedeinkazioak emon, gaixo-egoitzetako mezak emon etabar luze bat. Bazkari eta afalosteko berbaldietatik kanpo, ez eutsan inork berbarik aterako; behar zanean ere, keinuz edo baztar baten berba erdika esan eta isilean.

Pobretasunean eskekoen pare, baina bere borondatez, eta eukan guztia besteei opatu, eukan apurra ondo zaindu eta erabiliz, eta behar-beharrezko ez ebana besteei emonaz. Bai komentuan eta bai gudaldian Aita Patxik dirua erabilten eban eskuarte. Baina hartu ahala banandu egiten eban nagusien baimenez, emoileen borondatea betez.

Garbitasuna gordeten ardura haundiz jokatzen eban. Telebistan, irratian eta antzekoetan asti gitxi edo bape ez eban emoten. Berak inoanez: "Denpora asko alperrik galduazoten dabe eta ganorabakokeriak erakusten dabez". Begiak beti lurrean erabilten ebazan, barruko bakea eta garbitasuna kentzekorik ez ikustearren. Behin lagun batek zirikatatu nahirik badinotso: "Begira, Aita Patxi, zelango neska polita!" Begiak lurretik jaso barik erantzun eutsan: "Gorputzez baizen arimaz ederra bada, zoragarria izango da Jaunaren aurrean".

Pasiotar zanez, Jesusen Nekaldiko laba gorian berotuta, penitentzi-bideetara joten eban adorez, orduko ohiturak jarraituz: jatorduetan kopaurik gozoenak izten ebazan; urteko aldi batzuetan frutarik ez eban jaten, Jesus, Maria edo Kongregazinoko santuren baten omenez. Jesus Maisuaren erakutsiz, grazi bereziak jaritxi nahi diranean, otoitzez eta penitentziz ekin behar jako lanari. Askoren gogoan dagoz Aita Patxiren *esnesopa-katilukadak*. Eta ahal dala, etxeko ogirik gogorre-nagaz beteta. Astean hainbat aldiz astinduko eban zigorrez bere gorputza: Jesus zigortuari begira, bere burua hezitzeko eta bere gain hartzen ebazan pekatarien zorrak ordaintzeko. Gaueko loa sarri galduten eban, gaixoan ondoan egoten edo eurei zerbitzen ibiltea suertatzen jakonean.


Guzti honen sustraia barruko laba gorian egoan. Etxez kanpo otoitzez holakoa bazan, etxean areago: gauerdian ordu beteko otoitzaldia, meza aurretik ordu erdi, beste hainbeste meza ondoren; egunaren barruan lau aldiz koruko otoitzaldiak eta arratsaldean Jesusen Nekaldiari buruz ordu beteko gogoeta; eta amaitzeko errosario santua. Hortik aparte, zenbat bisitaldi Gure Jaunari eta Andra Mariari! Ahal eban guztian gurutzebidea belauniko.



Aita Patxiren penitentzigailuak: diziplina eta zurdatzatza. Beragaz autortzen ziran hainbesten pekatu-ordainez.

Aita Patxik martiri hil nahi

Maitalea burua emonaz bizi da, daukan eta dan osoa, ordezkoaren zain egon barik. Eta emotea da bere bizi-ardatza eta bizi-errazoibidea. Azkenean bizia bera ere emon nahi. Aita Patxiren bitzta martiritzaren harian ulertzekoa da. Hiru-lau aldiz jokatu eban bizia beste batzuen ordez. Baina ez zan izan hori egiteko kapaz zan borrororik, antza danez. Carabanchelen jaso eban Gurutzeratuaren abisua: "Asko ere asko sufriduko dozu. Neure antzeko egingo zaitut". Sarri agertzen da bere otoitz eta gogoeta artean, martiri izan nahiaren txinparta hau. Meza barria emoterakoan ere, kasuila gorria erabili eban eta ez zuria besteen antzera. "Martiri hilgo nintzala ezaugarritzat egin neban". Ez dago dudarik: "Martiri izan nahi dot". Errusiara joateko ere eskeindu zan, martiri hiltarren; baina ez zan hori Jaunaren bidea: "Hil, noiz hilgo ete naz? Ez dakit. Martiri hilgo nazala eta nago, eta hauxe eskatzen deutset Jesus Jaunari eta Andra Mariari". San Pelitzisimoren inbidi bat bai! "Benetan eskatzen deusut", inotson behin baino gehiagotan, "Neu ere zeure antzera martiri hil nadila. Zure bedeinkazinoak emotearren, beste dana itzi daidala, eta zure martiritzan parte izan". Jaunak, ostera, odol dana batera ez, baina eguneko odol tantatxo bat eskatzen deutso. Izan ere, bere bizitzako burrundadeari begira, martiri baten sugarrez dabilenaren antza dauka. Batez ere, Araba eta Bizkai aldean bigarren apostolutza-aldia hasi ebanetik gora: 1950etik 1974ra. Aita Patxi harrigarri agertu jaken gudalagunei, errukarri batzuen alde bizia eskeintzerakoan; ez ete da harrigarriago, 25 urteetan gau eta egun gaixo eta behartsuei oso-osoa emonda jokatzea? Dana dala, gozoko martiritza bat ere badala dinoe eleizjakitun askok. Inor izatekotan horra bat: Aita Patxi.



Deustuko San Pelitzisimo burretik. Aita Patxik ere barek lez martiri bil nahi leuke.

HIL ETA 25 URTERA

1

Nor zer izan dan ezagutzeko
neurri ona da geroa,
santu-artean jartzen da sarri
ha lehenagoko eroa.
Maitemindua beti izaten da
eroa edo beroa.
Munduarentzat exkaxa dana
San Pedroren bezeroa;
Jainkoak Berak esan behar dau
bakoitza dan jeneroa.

2

Gaztetan Jaunak buru ta bihotz
hain zinduzan liluratu,
handik aurrera ez zeuntsan inoiz
Berari ezer ukatu.
Pitxi eder hau aurkitu eta
dana beragaz trukatu;
Jesusekin zu behin ta betiko
osoan zinan fidatu,
hau behin gertatu ezkeru, zelan
Jesus ez danik maitatu?

3

Bidera urten eta autostop
ez eban behar dirurik,
guk dakigunez, ez eban inoiz
erabili erlojurik.
Kilometroak errosarioz
banan-banan zenbaturik,
Jainkoa eta gaixoak baino
ez eukan beste konturik;
gure artean ez da agertu
holako gizon modurik.

4

Bedeinkatua izan dedila
gure Aita Jaungoikoa,
Aita Patxi hau emon deuskuna
bere bihotz betekoa!
Beragaitik gaur Zuri goresmen,
kantu esker onezkoa;
eta egizu zure ondoan
gutziz zorionekoa,
laster santutzat autor daigula
zaindari bihotzekoa!

5

Dana emon ta dana jokatu
eta ahal bada hil martiri,
Aita Patxiren bizitzan ez da
hauxe besterik agiri.
Euren lekuan bera jarrita
bizia salbatu biri...
Gaztetan jaso eban konbite:
"Zatoz ta jarraitu Niri";
harrezkero nork ta zerk eragin
atzera Aita Patxiri?

6

Zure ametsa beti izan zan:
"Bizi Jesusen antzera".
Gaixo ta zaharren zerbitzuan ta
Aitatxoren esanera.
Fede-bidean su ta gar baten
beti onetik hohera;
zu Aita Patxi gogoz zenbiltzan
ahal zan bestean topera,
ondo zenkian goiko tontorra
ez dala hartzen kolpera.

GEHIGARRIAK



J. M. Zirarda gotzainaren testigantza

Mila eratako testigantzak jaso doguz liburuan zehar; gehienak Aita Patxi beragaz bizilagun izan ziranenak, bai komunitateetan, bai gudalekuetan. Beste batzuk hur-hurrekoak: gaixoenak, aldenduenak, zaharrenak, gotzainenak, hau da, noizean behin beragaz hartuemonak izan ebenen testigantzak. Danen artean berezi bat dakartsut gaur aurrera: *Jose Maria Zirarda Gotzain* jaunaren testigantza ederra. Bilboko gotzain Administratzaile zanean, asko ere asko entzun eban Aita Patxiri buruz; berak behin autostopean hartu eta Deustura eroan ere egin eban. Aita Patxi hil eta lasterrera, bere aldeko testigantzak batzeari ekin eutson, horren ardurea hartu eban batzorde batek. Testigantzak beharrezkoak dira, Erromara bialdu, eta han ondo aztertu ondoren, Aita Santuari baderitxo, norbait dohatsu izendatu eta geroago santuen sailean jartzeko.

“Aita Patxik fede-bizitza harrigarria eroan eban, batez ere Eukaristia inguruan kokatua; bere apaltasuna eta karidadea miragarriak izan dira; gizon-emakume guztien alde apostolu-garrez beterikoa, batez ere, behartsuenen eta baztertuenen alde. Bizkai herri osoak santutzat euki dau, Eleiz-bizitzatik aldendu askok ere bai. Ahoz-ahoz zabalduten izan dira herrialde osoan Aita Patxik egindakoak, behartsuen eta gaixoen aldeko zerbitzuan. Aita Patxik gudaldian egindakoak benetan harrigarriak dira. Eta guda osteko alkarbizitza nahastetsu eta larrian Aita Patxiren bakezko espiritua eta ebanjeliozko maitasun eta parkamen erakutsiak dizdiz egin eban bera ibili zan leku guztietan. Horregaitik, Aita Patxi maitagarria hilterakoan, Bizkai herri osoa eraginda sentidu zan. Eta harrezkero kristau asko eta asko dira beragana laguntza eske doazenak, gorputz-arimen onerako grazi bat edo beste eskatuz.

Hau holan dalarik, eta Euskalerrriak gaurko egoera zapuztuan honelako bake eta karidade eredu on bat beharrezkoa dauala gogoan harturik, Aita Patxi aldaretara jasotea, Ebanjelioaren harian, eredugarri on bat litzatekela uste dot. Beraz, apaltasunez, baina uste osoz jotzen dot Aita Santu Goren horregana, Aita Patxi Pasiotarraren bizitza aztertzeraz emon daiala erregutuz, bera aldaretara jasoa izatea egoki eta errazoizko ete dan erabagiteko.”

Dana dala, Aita Patxiren kontua aurrera doa aldaretarako bidean. Eleiz-legeak kristau zintzoen kanonizaziorako jarrita daukan prozesua martxan dago: Eleizbarrutiko gotzainaren oneritiz eta aginduz, hasiera emon jakon Deustun 1989. urteko azaroaren 15ean, batzorde eragilea eratuz eta baliozko testigantzak batuz. 1990. urteko ekainaren 14an burutu zan Deustun bertan. Gaur egun Erromara bialduak dira aukeratutako testigantzak, eleiz arduradunak aztertu eta behar diran pausoak emon daiezan.

Eta testigantza eder honen ondoan ezarri gura izan dodaz, Aita Patxi hil eta lasterrera albistarietara bialdu neban “Agur, Aita Patxi” bertso saioa.

Agur, Aita Patxi

1

Bertso barri batzuek
gura neukez jarri,
zeruko Aita ona
egidazu argi.
“Aita Patxi hil jaku”
esanaz alkarri,
pena haundiagorik
ez da hartu sarri.

2

Arrietako Libon
jaio ta hazia,
beragaz izan eban
Jaunaren grazia.
Pasiotarren legez
ondo ikasia,
oraindik ez da galdu
santu-errazia.

3

Hirogeitalau urte
kumatik hobira,
bitartean emon dau
mila jirabira.
Ekinaren ekinez
ez dago begira,
jenteak dinozanak
guzurrak ez dira.

4

Atsedean barik ekin
bide gogorrean,
zer ete eukan harek
bihotz-motorrean!
Zeruan sartzen bada
neke-zigorrean,
Aita Patxi han dago
goiko tontorrean.

5

Bide biren artean
beti gogorrena,
maitasunez eginda
hau aukerarena!
Errezena ez ei da
gehienbat onena,
hori da jokatzea
kristau sinismena!

6

Begiak lurrean ta
bihotza zeruan,
Jaungoikoa besterik
ez eukan goguan.
Haxe zabaltzen eban
bere inguruan,
guztiak indartuaz
sinismen beruan.

7

Aita Patxiren grina:
Errosarioa,
nonbait ondo ekian
bere balioa.
Dana zan otoitza ta
bedeinkazioa,
alper askoren ordezt
erremedioa.

8

Beti ebilen Patxi
pekatari bila,
beragaz autortuak
ia zenbat mila!
Ez zan, ez jakituna
bai gizon umila,
bere jakituria
Jesus-Gurutzhila.

9

Gaixo minduak ziran
bere urkolagun,
euren bila ebilen
beti gau ta egun.
Hortxe galdu ebazan
bizi ta osasun,
berbaz barik egitez
maisua non dogun!

10

Gerratean gizon bat
ei zan hil beharra,
“Agur andra, umetxo”.
Ai, haren negarra!
“Neu nago horren ordezt”
Patxiren dearra;
otoitz egin ondoren:
“Jo neure paparra!”

11

Anaiarteko gudan
Patxi zan kaperau,
bertan egindakoak
dar-dar ipinten nau.
Euskal anaiekaz
zer negar, alarau!
Bere lagun ziranak
gogoan dauke hau.

12

Jainkozale izan zan
euskaldun gainera,
biok bene-benetan
ta biok batera.
Bat edo beste behin be
ez eban aukera,
honezkero zeruan
badakie euskera!

13

Jokatu dozu, Patxi,
joko ederrian,
zenbat on egin dozun
zeure aberrian!
Ez ahal zendun ereingo
leku okerrian,
frutu emongo al dau
gaur Euskalerrian.

14

Ekin ahalean ekin,
ahal dan dana bota,
astebete baino lehen
hiltzorian jota.
Zure jokabidea
agirian dago ta:
jo ta su ibilita
ondoren Golgota.

15

Hatzamarra jasota
bidertzean eske,
norbaitek eroango
arin eta merke.
Gaur zuri eske gagoz
txofer eta beste:
horruntz eroan gaizuz
ahal dozu hainbeste.

16

Zorionak gaur zuri,
gure Herriko pitxi!
Zeugaz poztuten gara
ta ez gero gitxi.
Nahiko egin dozu ta
hortik ondo bizi!
Agur ta laster arte
Gure Aita Patxi!

Zoro ala santu?

Urruneko Jainko haundia geure ondora etorri zanean, batzuk zorotzat jo eben, beste askok deabrudun eta iraultzailatzat, gizaki *normaltzat* ez behintzat. Bere senideak ere behin, egoan lekuan oratu eta etxera ekartera joan ziran, burutik egiten ebala eta. Santuak ere ez dira *normalak*; normalak geu gara, %90ok, erdipurdiko gizaki eta kristauok. Normala hori da: besteen edo gehien-goaren modukoa izatea. Hortik gorakoa *anormala* da. Egia esan, Aita Patxi santu berezi eta bitxia da. Bere ondoan bizi izan ziran askok dinoenez: “Bitxikeriak eukazan, baina ondo aztertu ezker, santutasun haundi baten ezaugarriak ziran”. Gudalekuan ezagutu eben ondoen Aita Patxi, hainbeste arrisku artean, euren ondo-ondoan gau eta egun; euretariko askoren bihozkadak dozuz: “Zenbat on egin leiken abade santu batek!” Beste batek: “Bai, beste abadeen artean apartekoa zan. Aita Patxi bestelakoa zan”. Gudari lagun batek ez dauka zalantzarik: “Beti izan dira santuak Eleizan. Nik neuk ezagutu dot bat: Aita Patxi”. Eta beste hau: “Aita Patxi langorik, bera bakarrik”.

Baina beste asko ziran Aita Patxi burutik jotako gizontzat eukenak. Santua beti izan da eztabai-dagarri mundu pekatariaren erdian, bestelan Maisuaren jarraitzaile on baten ezaugarri nabarmenena ez leukean izango. Zelan izan daiteke gizartean gatza eta argia, oker dabilen askori min emon barik? Eta min hartuta, errua norbere begietako gatzari ala inoren lepora botatzea da errezena? Dana dala, San Paulo Apostoluaren txatala dogu erakusgarri: “Jaungoikoak ez ete dau mundu honetako jakituria zorotzat agertu? (...) Jaungoikoaren zorakeri dirudiana, gizonak baino jakintsuago da; Jaungoikoaren makaltasuna dirudiana, barriz, gizonak baino indartsuago (...) Gizarteko zoroak aukeratu ditu Jaungoikoak, jakitunak lotsarazoteko” (1 Kor 1, 20.25). Santuak dozuz munduari lotsea galdu deutsoenak, munduko jakitun eta indartsuen aurrean burua makurtuten ez dabenak. Nor litzateken santuak baizen *lotsabako*, munduko *lotsabakokerien aurrean* gogor jartzeko! Nor legoken Aita Patxi baizen maiteminduta Jesus Jaun Gurutzekoagaz, maitasunak bakarrik eragiten dituan zorakeriren batzuk egiteko!

Goazen Aita Patxiri jazo jakona kontatzera. Diktadura osteko demokrazi-giroko ekintza bat zera izan zan: diktadura-ezaugarri eta izen guztiak desegitea, eta herri giroko izen-ezaugarriak ordezkatzeari. Horretarako Euskalerriko mendi, politikari, kultur gizon-emakumeak eta eleizgizon ospetsuak aukeratu ebezan. Hainbesteren artean, Deustu aldean, *Aita Patxi* izena aukeratu eben askok eta halan eskatu Udaletxeari, inguruko kale bati ezarteko egokitzat erizten eutsoen eta. Halako erremuskadea sortu zan inguruetan! Batzuentzat santu goralgarria zan bai, baina beste batzuentzat zoro mesprezugarria. Izan ere, sasoi horretan euskaldun askok fede eta eleiz-loturak zehatz eten ebezan, gizon askeak izan guraz-edo. Halan eta guztiz ere, indartsu agertu zan Aita Patxiren aldeko eskaria eta halan ezarri eutsoen kaletxo bati bere izena. Orduko EGIN Egunkarian idazlan bat argitaratu zan, Aita Patxiren aurkako destainaz beterik. Behingo baten jaso eban erantzuna, *Zoro ala Santu?* izenburuz. Hor jarri deusut, santuen zorakeriz apurtxo bat kutsatu zaitez.

Zoro ala santu?

1

Aurtengo urtarrilak
hogeita hirua,
inguruan ez dago
lotako girua.
EGIN egunkariak
bota dau tirua:
“Aita Patxi ei zala
benetan zorua”.

2

Aita Patxiri emon
plaza edo kale,
ni neu ez naz agertzen
gauza horreen zale.
Baina zergaitik ekin
jo ta tiro dale?
Mila askoren ustez
santu zan ta, bale.

3

“Egunero barau ta
gorputza zigortu”,
horigaitik gizon bat
zorotzat autortu?
Hor esanda nor garan
sasi ala ortu...
Mundura zertarako
ete ginan sortu?

4

Aita Patxi ei genduan
praile limosnari,
zer ez eutsan lagundu
gaixo, pobreak!
Atrakorik ez eukan,
on egin ugari;
barriketak itzita
jarraitu berari.

5

Beti ibili ei zan
autostop eginaz,
beti errosario
ta Ama Birjinaz.
Autostopak badira
txandako sorginaz!
Errosario ordez
mihinari ekinaz.

6

Bakoitzak ditu bere
santu, martiriak,
eurak goratu nahirik
a zer intziriak!
Besteenak behera ta
non dira niriak?
Atxaki asko ditu
gure inbiriak.

7

Eginak egin eta
esan asmau-ahalak,
bazzarrak nahastuteko
ez gaituk makalak!
Batzui on egin eta
besteei tripalak;
nahiko zeregin dauka
Bilboko Udalak!

8

Euskadin mila dira
kale eta plaza,
noren izena jarri
ezin emon traza.
Gizonen baloreei
zeinek jarri taza?
Gizonak neurtu ezin,
hauxe da demasa!

9

Ez dauka edozeinek
zentsun ta ganora,
behar dan lez neurtzeko
santuen balora.
Pentsamentu bat zapla
sortu jat gogora:
ze alde ete dago
santutik zorora?

10

Munduaren erdia
dago erdijota,
bada beste erdia
nork zorotzat bota.
Eguraldi txakurra
aspaldi dago ta,
ondo zaindu daigula
gaineko kaskota.

11

Kristauok Jesus dogu
bakarrik Maisua,
zorotzat bota eben
bera be, gaixua.
Badaezpadan, emonda
dago abixua:
prest daukala San Pedrok
atean pixua.

12

Berean zintzo dana
beti dabil bero,
alperrentzat beti da
zoro edo ero.
Batzuentzat mila da
besteentzat zero;
beti besteak zoro?
la geu garan gero!

13

Aita Patxi izan da
zoro edo santu,
bakoitzak bera nor dan
horrela esan du.
Geurea agertzeko
ez da ez berandu:
ona izan zinalako
zuri bertso-kantu.

14

Ez da bat txaloak jo
ta txaloak emon,
Aita Patxi, gaur biak
dozuz hemen bertan.
Kale-plazak baino zuk
gorago dozu igon,
gaur zeruan zagoz ta
bihotzez ZORION!

Aita Patxi: gaixo, zahar eta behartsuen zaindari

Aita Patxiren bizitzako liburu osoa zeharkatzen dau espiritu eta aukera orokor batek: gaixo, zahar eta behartsuak; hau da, *gizarteko gurutzadun barriak*, eta Aita Patxik eta eurak alkarregaz izan eben hartuemon estu eta maitekorra. Eurak izan ziran Aita Patxiren ametsa eta ardura nagusia. Kasu batzutan badirudi eurakaz maiteminduta egoala, eurak izan ziran bere bihotzeko pitxirik ederrenak, baliotsuenak. Badirudi eurak barik, bere bizitza norabide barik gelditzen zala. Nondik edo zergaitik sortu ete jakon grina eta joera hori? Ez da ahaztu behar bera ere jatorriz behartsuen artekoa zala, nekez eta lorrez irabazitako ogia jandakoa. Gainera gurasoengandik ikasi eban eskale eta behartsuen aldeko bihotz-zabaltasuna. Sartu ere Pasiotarren Kongregazioan sartu zan: Gurutzeko Jesusen oinetan biziz, bere nekaldiko iturritik edanez, hango bizi-indarra kristau herrian zabaltzeko karisMEA eta eginbeharra botoz bere burua bizi guztirako konprometidu ebal. Eta Gurutzeko Jesus maiteak sufritzen jarraitzen dauala gaurko eta betiko gurutzeratu barriengan. Eta Aita Patxik eurengan bat egiten dau Jesus Beragaz. Are gehiago: Aita Patxik Jesusen antzeko izan gura dau, eta Jesus Maisua beti ikusten dau herriz herri dabilenean gaixoz, behartsuz eta pekatariz inguratuta; berak ere Jesus izaten jarraitu nahi dau, Jesusentzat maitagarrienak izan ziranak, maitasun eta ardura haundiz zainduz. Azkenik, ez daigun ahaztu meza emon-barritan gudalekura joan behar izan ebal. Zenbat negar, neke, zauri, odol eta heriotz begi-aurrean! Gudaldiko gurutze-esperientziak Aita Patxi betiko markatuta itzi eban. Era guztietako neke eta oinazeak jasan behar izan ebazan, bai beragan eta bai gudari lagunengan. Handik geroago, Bilboko gaixoetxeetan, San Pelitizisimoren bedeinkazioak emoterakoan; eta herrietako gaixo, ezindu eta zaharren aldeko zerbitzuan besterik ez eban egin: Jesus eurengan zerbidu, ahal ebanik ondoen. Hamaika lekutan bete eban Aita Patxik Simon Zirenetarraren eta Beronikaren lekua, etenbako munduko gurutzebide luzean! Eta Aita Patxik berak inoanez, zerura joanda gero ere gaixo, zahar eta behartsuei lagun-duten jarraitu nahi dauala: “Zeruan ere jo ta ke ekingo deusat lanari. Ez dot lan egingo munduan bizi nazan artean bakarrik, zeruan ere jarraitu nahi dot. Jaunak nahi badau, zeruan ere ez naz geldi egongo; orduan aukera gehiago eukiko dot baztar guztietatik ibilteko on egiten”. Halan izan bedi! Gainera, autostopik egin beharrik ere ez! Geldi eta ezer egin barik egonean dagoan Aita Patxirik ezagutu al leike? Nork daki zer zelan izango dan? Dana dala, hiletetan esan ohi dan *requiem eternam* hori ez da Aita Patxirentzat izango! Eta handik ere inori laguntzekotan, lurrean bizi zala maiteen izan ebazan gaixo, zahar eta behartsuei. Hau jakinda-edo, zenbat gaixok eta behartsuk jarri ohi dabean Aita Patxiren irudia burukopean edo hur-hurrean, bere laguntza eske. Azken atal berezi honen osagarri lez, gaixo, zahar eta behartsuen zeruko zaindari dan Aita Patxiri opatuten deusodaz ondorengo bertso honeek.

Aita Patxi: gaixo, zahar eta behartsuen zaindari

1

Gaur Aita Patxi gogora daigun
pasiotar euskalduna,
santua dala gure Eleiz Amak
garbi autortzen deuskuna.
Zaharrentzako ta gaixoentzako
izan zan bihotz-biguna,
euren ondoan emonaz sarri
pozik gaua ta eguna.
Batzar askotan deitzen deutsoe:
Zahar ta gaixoen laguna.

2

Gaixo ta zaharrei laguntzea zan
Aita Patxiren amesa,
Jesus onari eginda eukan
euren aldeko promesa.
Euren ondora heldu orduko,
berba samur ta erreza,
erruki haundiz agertu nahirik
Jesus ez dala jueza;
etxeratuta kezka bat beti:
gehiago lagundu eza.

3

Txori-erbien atzetik azkar
ibiltan da kazaria,
Aita Patxi hau askoz pozago
gaixoen zerbitzaria.
Sakramentuak fedez emonda
zer bake ta pozkaria!
Aita Patxigaz etorkela ta
Jesus ta Ama Maria.
Gaur Aita Patxi goraldtu geinke:
Zahar-gaixoen zaindaria.

4

Diruzalea ibili ohi da
egarriz ondasun bila,
Aita Patxi hor gaixoak zaintzen
egarriago dabila.
Oinez denpora galtzen dala ta
autostopan berebila...
Sartu ta behingoz errezu baten
etenbako iskanbila;
errosarioz ordaintzen eban,
benetan praile abila!

5

Nondik etozan Aita Patxiren
hainbeste arineketa?
Jesus beti zahar eta gaixoen
alde ikusten eban eta.
Kalbarioko Jesusen garrez
eukan bihotza erreta,
horren testigu argiak dira
Basurto ta Gurutzeta;
hoba gehiagok bageunkaz bere
bihotza eta kasketa.

6

Bardin joango zan txabolara
eta bardin jauregira,
gehienbatean hor-han-hemengo
urruneko baserrira.
Bekokietan ikusten eutsen
Jesus Jaunaren dizdira.
Lege guztiak erabiliaz
Ebanjelioko neurrira;
Jas! Aita Patxik egindakoak
gogoz hartzekoak dira.

7

Zaharra zahar zan ta gaixoa gaixo,
 beste ezerk ez dau balio,
 bere laguntza eskeintzekoan
 ez zan inor arerio.

Besteak beste, lehenengo hau da:
 Jesusen Ebanjelio.

Hark gurutzean agertzen dauan
 parkamen ta amodio;
 Hari begira jokatzten eban
 eta a zer erremedio!

8

Geure arteko santu bat zelan
 ezagutu barik bizi?
 Gaixo ta zaharroi ondo jatorku
 horrelako aitabitxi.

Bizi zinala gaixo ta zaharrak
 ez ei eutsuen zor gitxi!

Orain zeruan zagozan horrek
 ez bertanbehera gu itzi:
 guk beti zeugaz kontaktzen dogu,
 gure lagun Aita Patxi!

9

Mundu harroak zorotzat bota
 eta zinduzan baztatu,
 baina gaixoak ta baztatuak
 zeu jainko-gizontzat hartu.

Jesus Beraren lekuan gagoz,
 ez dogu zetan kaxkartu;
 Oi Aita Patxi, zeure antzeko
 izan gaitzezan, indartu;
 gero zeruan gazte ta sendo
 zeugaz gaitzezan alkartu.

10

Pelitzisimo deunak deituta
 bere laguntzat Deustura,
 behingoan hasi jakozan heltzen
 gaixo ta zahar zenbat-gura.
 Aita Patxik hor ipinten eban
 jausten jakona eskura;
 hamaika gaixo osatu ziran,
 agur neke ta tristura!
 Hor santu biak gaixoen alde
 eginda dauken postura.

11

Gaixo ta zaharrei laguntzea zan
 Aita Patxiren pozgarri,
 euren ondoan egotea zan
 santu honen ezaugarri.
 Hortarakoxe Bizian Gora
 dogu hemen martxan jarri;
 inor baino lehen behar zaitugu
 zahartzaroko lagungarri;
 gaixo ta zaharrok autortzen dogu:
 Aita Patxi santu barri!

12

Azken orduan entzun neutsuna
 nahi neuke hemen kontatu,
 gaixo ta zaharrak jakin dagien
 ta behar dan lez jokatu:

“Hara zerura joan naitenean
 nik badakit zer eskatu:
 gaixoen lagun jarraitu nahi dot,
 eta ez eidazu ukatu,
 gaixo ta zaharrak izan dagien
 norengana hurreratu”.

AITA PATXIREN

ERAKUTSIAK

JESUSEN JARRAI

Hauxe da bere helburua: Aita Patxi gogo beroz jarraitu eutsan Jesusi bere bokazino-bidean, orduko sasoiari eta bizi-giroan. Jakina, aldian aldiko eta lekuan lekuko kultur giroak ez dira bardinak; baina bakoitzak bizi behar doguzan barru-eraginak eta jarrerak, eta erabili behar doguzan jokabideak, bardintsuak izan behar dabe Jesusen jarraitzaile izatekotan. Horreek betikoak dira eta guztiontzat bardinak. Hagaitik gagoz danok santutasunera deituak. Aita Patxiaren erakutsi nagusienak batuten ahalegindu naz eta eurretatik ahal dogun onurarik gehien ateraten lagunduteko asmoz bidetxo bat eskeinduten deusut.

Erakutsi bakoitzeko pausoak honako honeek dozuz:

- 1) Sarrera erara jarrita, kristau bizitzako alderdiren bat argitzeko, gai bat labur-labur azalduta.
- 2) Ebanjelioko ataltxo bat, gai jakin hori argitu eta kristaukiro oinarritzeko.
- 3) "Aita Patxi" liburu honetako orrialdeak, bere erakutsiak jasoteko.
- 4) Geure erantzuna bilatu eta maminduteko itaun bi.

Bakarrean nahiz taldeka erabilteko aukera egoki bat deritxat.

1. Gurutzetik bizira

Bakoitzak bizi dogu geure bizi-egarria, eta iturri-bila gabiltz, egarria non aseko. Jesus gure Jaunak ere baeban bere egarria, eta bizi-bizia izan ere: Aitaren Erreinua iragartea. Horretara jo eban buru-belarri, gurutzean hilteraino. Eta Bera bihurtu jakun kristauontzat bizi-iturri.

Aita Patxik gaztetatik aurkitu eban iturri zoragarri hori: Jesusen Gurutz-ondoa. Zelango bete-kadak Ama Atsekabetuaren ondoan! Jakina, Kalbarioko iturriak odola dario; bertatik edan-ahala, Aita Patxi irakiten jarten zan, bizi barriz eta adorez beteten zan. Eta iturri sakratu horren barri emoten ez zan aspertuten, batez ere sufritzen egozanen ondoan. Ez eban oker izenpetuten: Aita Patxi nekalditarra. Iturri eta egarri horreen barri jakiteko, irakurri zeuk:

- Ebanjelioa: Joan 7, 37-39.
- *Aita Patxi*: 15; 18; 44; 54.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zeuri zer dinotsu gurutzeak? Iturri bihurtu jatzu? Zelan?
 - 2) Zenbat leku emoten deutzazu Jesus Gurutzekoari zure bizitzan?

2. Jesusen lekuko

Jesus Gure Jaunak bete ebazan bere egitekoak, eta Aitarengana bihurtu zan. Baina, joan aurretik, geugaz geratu zan. Eta gure artean geratu dan Jesusek —fede-esparruan bizi da eta— agiriko lekukoak behar ditu, bestelan ez da sinisgarri. Kristau zintzoak dira bere testigu: eurak ikusiz eta entzunez, Jesusengan sinisten dogu.

Aita Patxi horixe da: Jesusen lekuko. Bera ikusiz eta entzunez, zenbatak esan eben: “Nik sinisten dot Aita Patxik sinisten eta maitatuten dauan Jaungoikoa”. Horra hausnartuteko lagungarri batzuk:

- Ebanjelioa: Lukas 24, 44-48.
- *Aita Patxi*: 42; 57.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Kristau guztiok Jesusen lekuko gara, bakoitza geure lekuan eta zereginetan. Argi al daukagu egi hau?
 - 2) Jesusen lekuko batek ezaugarri jakin batzuk behar ditu. Izendatu eizuz hiru.

3. Burua ukatzea, salbatzea da

Sarritan kristau bizitza eta bidea ezetz eta ezetz esanaz agertuten dogu; horregaitik-edo agertu izan da luzaroan hain astun eta ilun. Hau edo hori ukatu, baina zertarako eta zergaitik? Hau argi daukanak errezago izten dau, itzi behar dan guztia, nahi dauan helburua lortutearren. Halan erakusten deuskue jokalaria eta ekintzaile guztiak.

Eta hauxe da Aita Patxiren erakutsi eder bat: bizitza gogorra; etenbako nekea eta ardurea. Baina zcin pozik! Hain maite eban Jesusen maitasunari erantzutearren eta bere Izenean Aitaren Erreinua zabaltzearren. Eta hau bardin komentuko bizitzan, zein gudarien kaperautzan, zein gaixoen zerbitzuan. Ikusi eizu zeuk:

- Ebanjelioa: Mateo 16, 24-26.
- *Aita Patxi*: 59; 61.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zer sentitzen dozu zerbait zeure buruari ukatu behar deutzazunean?
 - 2) Neure buruari ukatuten deutzat zerbait urkoari eskeintzearren? Merezi al dau?

4. Egin bedi nigan zure nahia

Hauxe bai dala maitasunaren ezaugarrikerik ederrena! Jaunagan uste osoa jartea, geure ona bilatzen dauala sinistea, geuk geure begiz ikusten dogunaren gainetik bere esanean fiatzea... Ez gero bere eskuetan dana itzi eta norbera nasai biziteko! Zer eta zelan ondo egin erabagita gero, topera lanean jarri, nahizta sarri uste genduanaren aurka urteñ gauzak.

Aita Patxiren bizitzan txitean-pitean agertuten jaku jarrera hau. Eta zelango bakea lortuten dauan! Kasu askotan, nagusien erabagiak onartu bai, baina bere ustetan bide zuzena zan hori lortuten jarraituko eban. Momentuz erabagi hori horrela agertutea Jaungoikoaren borondatetzat hartzen eban. Hor dozuz lagungarri batzuk eta zeuk jarraitu:

- Ebanjelioa: Mateo 26, 36-46.
- *Aita Patxi*: 88; 94.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Ba al zoaz gero eta gauza gehiago Aitaren eskuetan izten?
 - 2) Zer kostatzen jatzu gehien bere eskuetan iztea? Zer egin?

5. Zerbitzea, haundi izatea

Nork ez dau nahi haundi izatea? “Jaungoikoa Bera bestekoak izango gara”, horra gizonaren ta aingeruen tentaldi nagusia. Berezkoa dogu egarri hau, umetatik heriotzaraino. Santuak eurak ere haundi izan nahi dabe, eta horretarako eskailerarik egokiena aukeratzen dabe: Ebanjelioko eskailera luze zuzena.

Aita Patxik ondo ikasi eban horren barri; hagaitik dana itzi eta gogo betean erabagia hartu eban: “Nik santu izan nahi dot”. Eta komentuan nahiz kalean, beti ikusiko dogu zerbitzeko prest, danen morroi; zerbitzurik neketsuenetan. Aurrean jartzen deutsudazan lagungarriak ez deutsue besterik erakutsiko:

- Ebanjelioa: Mateo 209, 20-23.
- *Aita Patxi*: 45; 50.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zergaitik da zerbitzea haundi izateko bidea?
 - 2) Zerbitzari dan batek jarrera jakin batzuk daukaz, zeintzuk?

6. Maitatzea da nahiko

Gizakia maitatzeko egina dala, sarri entzundako dotrina da. Dotrina bai, eta bizitza? Jaungoikoak bere antzeko eginak bagara, eta Jaungoikoa maitasun hutsa izanik, gizaki egin-egina maitasunez bizi dana da. Eta maitasuneaz egina ez dan ezertxo ere —danik eta egintzarik onena izan da ere— hutsa da, ez dau ezertarako balio, norbere burua engainatzeko ezik.

Aita Patxik ez eukan beste biderik: Platika gitxi eta praktika asko. Maitasunezko ekintzak ziran bere erakutsirik ziurrenak. Horixe agertuten dabe ondorengo lagungarriok:

- Ebanjelioa: Lukas 10, 25-28.
- *Aita Patxi*: 20; 48.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jaungoikoa ala lagun urkoa maitatzea, zein egiten jatzu errezago?
 - 2) Zelan lortu geinke behar dogun indarra, maitasun-bidean gero eta aurrerago egiteko?

7. Baietzaren gizona

Gure gogo guztiz aldakorra da; barrutik eta kanpotik haize-eraso gogorak jasaten doguz, behin batera, behin bestera erabiliz. Gizakiaren heldutasunaren ezaugarri bat hortxe datza: Emondako berbeari eustea; bai gizonen eta bai Jaungoikoaren aurrean. Ez da, ez, burugogorra izatea, bihotz-sendoa izatea baino. Gaur egun zein errez aldatzen eta trukutzen diran berbak, lagunak, bideak, erabagiak...!

Aita Patxi setatsua eta burugogorra izan zala ere badinoe batzuk. Santu gehienak izan dira. Jesus Bera ere moldagatxa izan zan, menderatu-ezina. Egi-bidea, zuzentasun-bidea bat baino ez da. Jakina, hainbeste eraginen artean sendo irauten dauanak, zer-esanik eta zer-eginik sortuten dau inguruan; batez ere, norbera buruarin bada. Nahi badozu, horra lagungarri batzuk, sakonduten jarraitu daizun:

- Ebanjelioa: Joan 15, 18-21.
- *Aita Patxi*: 88; 104-105.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jaunari nahiz urkoari emondako berbeak ze indar dauka zure inguruan?
 - 2) Burugogorra eta gogo-sendoa, ze alde dago bien artean?

8. Jesukristoren antzeko

Pertsonari asko eragiten deutsa bere bizitzarako aukeratu dauan ereduak: kiroletan, janzkeretan, eritzietan etabar. Baita kristautasunean ere. Begira, gu guztion eredu eta nagusi bakarra Jesukristo da. Sinisten dogunez, bat zuzen edo oker dabil, Jesusen bidean eta bidez kanpo badabil. Hori da Jesusi jarraitzea. Bestelako errezu, meza, sakramentu eta penitentziak horixe dabe helburu: Jesusi jarraitzea.

Aita Patxik gaztetatik egin eban aukera: Jesus eta Bera bakarrik. Jesus eukan beti bihotz-erdian eta begi-aurrean. "Jesusen antzeko izan nahi dot", esan ohi eban sarritan. Lagunartean sarri entzuten zan: "Jesus Bera dirudi". Nahi badozu, ekin sakonduten:

- Ebanjelioa: Mateo 8, 18-22.
- *Aita Patxi*: 33; 53.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jesusi jarraitzea ala gauza onak egitea, zein da zure bidea?
 - 2) Jesusi jarraitzeak zer eskatzen deutsu?

9. Ni gaixorik egon nintzan eta zuk...

Zer dan ona, zer dan hobea eta zer txarra, nork esan behar deusku? Kristau gareanontzat Jesus da maixu bakarra. Beti ere sasimaixu asko izan ohi da gure artean. Jesus gure maixua beti ikusten dogu gaixo, zahar, elbarri eta ezinduen artean; eta eurak jarten ditu lehenengo lekuan Aitaren Erreinuko mahaian. Are gehiago: Jesus maitatu eta zerbidu nahi badogu, behartsuak, gaixoak eta bazturtuak ipinten deuskuz bere lekuan; eurekaz egiten doguna, Beragaz egiten dogula, gaineratuz.

Aita Patxi horretan ere Jesusen jarraitzaile sutua dogu. Zenbat gaixo, zahar eta aldendu zerbidu ete eban, euren alde ahal eban guztia eginaz! Bere bizitzan zehar hauxe da bere grina eta ardura nagusia. Jesus Bera ikusten, maitatzen eta zerbitzen eban gaixoengan. Baieztatu nahi badozu, jarrai sakonduten:

- Ebanjelioa: Mateo 25, 31-46.
- *Aita Patxi*: 50; 81; 115.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jesusen lekuan gaixoak eta behartsuak daukaguz; eurak zerbiduz agertu behar dogu Jesusen lekuko garala. Zer sentiduazoten deusku honek?
 - 2) Ogi Santuan ala gaixo batengan da errezago Jesus sinistea eta maitatzea? Alkarren kontra ete dagoz presentzi biok, ala alkar osotuten ete dabe?

10. Bizia jokatu

Badira bizia jokatu daben gizon-emakumeak, bihotz-bihotzez maite dabezan gauzak eskuratzearren: diruzaleak, haundigurakoak, gerralariak, kirolariak etabar. Eta Jesusen jarraitzaileak ere bai: batzuk bizitzan zehar topera bizi diranak, beste batzuk bizia kólpean emoteraino joan diranak... Gitxiegi egiten dogunok errez esaten dogu: Hori gehiegikeria da. Maitasuna da bitsuen neurri.

Aita Patxi gehiago ezinean ebilen bere zereginetan. Boto bat ere eginda eukan: "Jaungoikoaren aurrean onena dana beti egiteko botoa egiten dot". Eta martiri hilteko gogo bat bai!, beste batzuen orde z bere bizia eskeintzeraino. Hau sugarra, askoren epelkeria berotzeko! Zeuk ikusi daizun, horra lagungarri batzuk:

- Ebanjelioa: Mateo 217, 21-23.
- *Aita Patxi*: 47; 55; 58; 59.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Testu biak irakurri ondoren, zer sentitzen dozu: Bildurra? Damua? Gogo barria?
 - 2) Inori txarrik ez egitea nahiko ete da ona izateko? Eta on egitea zer?

11. Kristau gudaritza

Jesukristogandik sortu zan Eleizea, kristau alkartea. Alkarte bizia eta adoretsua agertu jakun, Espirituaren eraginpean. Jesusen esanera, "lurreko gatz eta munduaren argi" izateko sortua eta bialdua da. Txarraren eta onaren artean etenbako burrukea izango da munduan. Halan ere, kristau herria sarritan agertu izan da epelkeriaren gorrinak jota. Eskerrak santuei! Eurak izan dira, eta ez haundikiak eta jakitunak, Eleizea bizibarritu dabenak, Espirituaren laguntzaz.

Horretariko bat Aita Patxi dozu. Pausoz-pauso bere bizitzako haria jarraitzen badogu, etenbako gudaritza baten jokaten dauala ikusiko dogu: bildur barik, abangoardian, bizia emoteko beti prest. Ez dauka astirik alperrik galduteko; ez dau lotsarik, behar dan lekuan arpegi emoteko. Ondoren daukazuz hainbesten artean argibide batzuk:

- Ebanjelioa: Mateo 5, 13-16.
- *Aita Patxi*: 39; 52.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Kristaua Jesukristoren aldeko gudari da; zelan eta zetan?
 - 2) Gudaria beti dago prest, joan behar dan lekura joateko eta burrukatzeko; zuri, non suertatu jatzu gudaketa hori egitea?

12. Andra Mariaren seme leiala

Jesus maite badogu, Berak maite-maite dituan pertsonak eta gauzak maitatu behar doguz. Eta maite dituanen artean maiteena askogaitik bere ama Maria da, duda barik. Besterantza ere bardin: Mariak ere inork baino gehiago maite dau bere Seme Jesus. Mariagan dagoan dana Jesusena da eta Jesusentzat. Horregaitik, Maria maitatzean, Berak Jesusengana zuzenduko gaitu. Beragaz batera, Jesusen jarraitzaile bihurtuko gaitu.

Hori da Aita Patxik erakusten deuskuna. Mañuko Andra Mariagandik jaso eban Pasiotar izateko deia, eta bere aurrean emon eutsan Jesusi baietza. Hazten joian neurrian, hazten joan jakon Mariaganako maitasuna. Gabirel santua hartu eban eredutzat; bere antzera, maite-maite izan eban Ama Nahigabetua, Kalbarioko Ama. Eta nork zenbatu haren errosarioko kate luzea? Goazen argi bila:

- Ebanjelioa: Joan 19, 25-27.
- *Aita Patxi*: 78; 90.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zer falta edo sobra jako zure Ama Birjinaganako debozinoari?
 - 2) Gaur berton, zertarako deia egiten deutsu Mariak?

13. Arbolea bere frututik ezagutzen da

Jesus ez ebilen azaletik; frutua gura dau. Hortik gainerakoa ondo dago: lorea, orriak, keriz-pea... Baina fruturik ez badakar, itxuraz ederrena bada ere, Jesus ez da konforme. Izan ere, barrutik sano dagoanak bizitzako joan-etorrian emoten dau ezagutzera. Holakoarentzat on egitea ez da ordu edo egun seinalatuetan lege edo ohitura batzuk betetzea; bidez-bide doala egiten dau on; gauza danak dira onak maitasunez diharduanarentzat: eleizako zein kaleko, bakarreko zein alkarteko arazoetan.

Ikusten dozu Aita Patxi? Komentuan lez guda-lekuan, errezuetan zein eskulanetan: nonahi eta noiznahi frutu garbi eta ugaria emoten Jainkoaren aintzarako eta urkoaren onerako. Sakonago ikusi nahi badozu, irakurri eta hausnartu:

- Ebanjelioa: Lukas 6, 43-45.
- *Aita Patxi*: 65; 66; 67.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zetan emon zeinkela, uste dozu, frutu hobea eta gehiago?
 - 2) Zerk galdu edo ondututen dau gure bizi-frutua?

14. Nire uretik edango bazendu...

Nork ez dau nahi frutu onak emotea? Emotea esan dogu, gero; ez hartzea. Hartu, Jainkoak eta urkoak gugandik hartu behar dabe. Ez da dudarik: guk geurez bakarrik ezin dogu hain frutu gozo onik emon; nahitaez Jaunaren grazi-laguntza behar dogu. Ez da noizean behin zerbait ona egitea; etenbarik on egin behar da. Non aurkitu horretarako lur onuratsua eta behar dan giroa?

Aita Patxik badaki honen barri: Haren ibili beharra! Haren on egin beharra! Nekaezina zan eta, eginda gero ere, gehiago eta hobeto egin nahia. Nondik hartzen eban indarra? Harrigarria da berak darabilen bizi-martxa! Jakin nahi badozu, eutsiz testu batzuk:

- Ebanjelioa: Joan 4, 11-15.
- *Aita Patxi*: 25; 77; 78.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zeintzuk dira zure indar-iturriak?
 - 2) "Zulobako ontzia" behar dozu; bestelan, iturritik bizitzara orduko ontzia hustu leikizu. Zer zulo mota dira hemen kontuan hartzekoak?

15. Gizonarentzat da legea

Legearen maitasuna ala maitasunaren legea? Zein da kristau jokabidea? Gizona legearentzat ala legea gizonarentzat? Dana dala, dana da gizonaren onerako; horregaitik, giza-bizitzak eta kristau bizitzak ere joko-legeak behar ditu, baina ez dago legerik giza-bizitza osoa eta beti zuzendu dagikenik. Gizakia bera zelan aurkituten dan ikusita, halan erabili behar da legea. Legea lege da eta gizakia gizaki; baina legea dago gizakiaren zerbitzura.

Aita Patxi baino legezaleagorik! Zehatzegia behar bada. Gogorregia ere bazala dinoe batzuk. Baina pekatarietakaz, gaixoekaz eta aldenduekaz lege danen gainetik jartzen zan, maitasun eta erruki-legeak aginduta. Egundo ere ez nasaikeririk bere buruaren probetxurako; urkoaren onari begiratuta beti. Euren buruagaz nasaiagoak ziranak hartu eben estu sarritan, eta azpikeriz salatu ere bai agintarien aurrean. Gai honek merezidu dau pixka bat gehiago sakondutea:

- Ebanjelioa: Lukas 13, 10-17.
- *Aita Patxi*: 80.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Lege-maitasunak ala maitasun-legeak eragiten deutsu gehiago?
 - 2) Urkoa epaituterakoan, legez ala errukiz jokatuten dozu bizitzan?

16. On eginaren pagua, ate-ostean palua

Ikusi nahi ez dauana baino itsu txarragorik ez ei dago. Gauzak ez dira hartzen eta erabilten diran modukoak, ikusten dituanak uste dauan modukoak baino. Hobeto esanda, ikusten dituanaren betaurrekoen kolore eta tamainukoak. Gu kristaontzat; gauzak Jesusek ikusten eta erakusten deuskuzan erakoak dira. Jakina, orduan ez da jokatuten txandako ohiturearen erara, edo eta gehiengoaren eritzira. Egiaren alde jokatutea —berbaz nahiz egitez— gatxa da eta arriskutsua. Sarritan hartuko dozuz belarrondokoak. On-beharrez jokatu, eta izen txarrez gelditu; kontzientziz hau edo hori egin, eta eskandalugarritzat bota eta salatu. Erramuz txalotu eta bariku santuz gaiztotzat lotu.

Hemen dogu, bada, Aita Patxi erakusle ona. Santutasun bideak hartu nahi ta zorotzat bota; zerbitzari-amantala jantzi, eta lelotzat hartu. Eskerrak bere maixu bakartzat eukan Jesusen jokabideak argitu eta sendotuten ebela! Orduan ez egoan ezer, ez inor, atzera eragingo eutsanik. Zeuk ikusi:

- Ebanjelioa: Lukas 23, 13-19.
- *Aita Patxi*: 83.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Esker txarraren aurrean, Jesus maixua gogora ekarten al dozu?
 - 2) Jasoten dozuzan kalte eta irainak, zelan daroazuz?

17. Apostolu baten egarria

“Bakoitzak bere zoroa bizi dau” dinogu, norbait buru-belarri bere arduren arduraz gau ta egun lanpeturik ikusten dogunean. Jesus Berari bagagokioz, beste hainbeste esan daikegu: jateko astirik ere ez. Eta betikoa: langile finari soloa haundiagotu egiten jakon neurrian, alperrari txikia-gotu. Santuen bizitzan ere martxa bardina: Ebanjelioko arda gorriak eraginda, egin-ahalakoak egiten dabez. Ez da harritzekoa Jesus zorotzat hartua izatea!

Aita Patxi ere Jesusen gatzak jota agertuten jaku: ez jan, ez edan, ez lo, ez egon patxadaz. Jo batera eta bestera aspertu barik. Egin ebana eta egin gura izan ebana kontuan hartu badeutsaz Jaunak, a ze frutu ugaria batuko eban! Liburuan zehar ez da besterik somatzen: errosarioa, autor-tzak, bedeinkazioak... Zeuk atera kontuak:

- Ebanjelioa: Lukas 10, 1-9.
- *Aita Patxi*: 89.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jesusen egarri bizi hau gogoan hartuta, zeuri zer dirautsu?
 - 2) Aita Patxik bere erara erantzun eban. Eta zuk, non eta zelan?

18. Arda barria zahagi barrietan

Gizakia berez da aldakorra. Hobeto esanda, gizaikiak berak aldatuten dau giroa eta ingurua. Azal-mazalak aldatutea da gauza bat: lanbidea, tresneria, janzerak, ohiturak; eta beste kontu bat zera: lehen dana zan pekatu eta gaur ukatu; lehen dana zuri eta gaur dana baltz; lehen danak katolikuak eta gaur danak katilukoak... Eleizbidean ere holakoren bat jazo jaku: dana dago hankaz gora. Erljioso eta abade-bizitza ere ez da hortik aparte gelditu. Vatikanoko Kontzilioaren atxakiz, hamaika aldrebezkeri egin da baztarretan! Onik ere asko ekarri dau; baita txarrik ere. Ez Kontzilioak, haren atxakiz bakoitzak bere erara hartu eta erabili dogulako baino.

Aita Patxi ere goitik behera eraginda geratu zan Kontzilioaren inguruko olatu-artean. Bere bizi eta haragi eginda eukazan jantzi, ohitura eta bizi-arau asko bertan behera baztartuta ikustean, behin baino gehiagotan negar saminak egin ebazan. Praile, abade eta monja artetik ikaragarritzko iheskadea. Berak, danak errespetatzen ebazan, baina berean jarraitu eban, nagusien baimenez. Barritasuna baino gehiago barrikeria ikusten eban inguruan. Arda barria bai, baina zahagiak zaharrak. Azkenean bat eta beste hondatu. Zeuk aztertu eizu:

- Ebanjelioa: Lukas 5, 36-39.
- *Aita Patxi*: 85; 86.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zetan ikusten dozu —Eleiz bizitzan— “arda-zahagiak” hondatuta?
 - 2) Zahagia —zu zeu— barriztuteko, zer egin?

19. Haragia makal baina gogo sendo

Diru-egarriz dabilena ez da hiltzen eta hondatzen daukan diruaren diruz, gehiago nahi leukenaren egarriz eta ametsez baino. Jesus Bera ere arin amaitu zan, Aitaren Erreinua iragarteko ahaleginez; ahal eban guztia eta ahal ebanik eta ondoen eginaz. Baina Berak Pedrori esana, Beragan ere egi bihurtu jakon: “Espiritua sendo dago; haragia, barriz, makala da” (Lukas 14, 38).

Aita Patxiri ere bardin jazo jakon: makal sentitzen zan, baina gogo beroak gehiago egiten eutsan; eta eginbeharrak gitxitu beharrean, gehitu. Hegaz egin nahi, autostopean ibili, baina oinak narraz. Berak ere ez eban uste izan hain arin hilgo zanik. Santuen ondoan alperrarentzat ez da giro; zerbait asmatu beharrean aurkituten da bat, norbere burua zuritzeko. Goazen ispilura:

- Ebanjelioa: Lukas 12, 49-53.
- *Aita Patxi*: 93; 95.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Jesusen atzetik zure abiadea ikusita, azkar ala astiro zabiltz?
 - 2) Zetan daukazu bixkorrago ibili beharra?

20. Ordua heldu bada, prest nago

Munduko martxa guztiak dauke hasierea eta amaiera; onak zein txarrak izan, bixkorrak zein motelak. Kontua ez da —ez leuke izan behar!— nor bidé luzeago egin, nor urte gehiago bizi; nor bide zuzenagoak eta urte beteagoak egin baino. Jesus ez zan urte asko bizi izan, baina nor urte eta bizi beteagoak? Bideak norbere ametsak baino lichenago amaituten dira. Bizi dan artean hazi ona ereiten bada, joanda gero ere, frutu onak emoten irauten dau.

Aita Patxik ere eskubete lan egiteko eukala, sentidu eban azken geltokira heldu zanaren seinalea. Azkena jo arte jardun eban, tantaiak lez zutunik hil zan. Heriotzearen aurrean ere tente: “Ordua heldu bada, aurrera! Prest nago”. Hori da lurreko bizitzaldiari koroia jarteko adorea! “Zelan bizi, halan hil” da esaerea. Fedez eta maitasunez hurreratu zakioz:

- Ebanjelioa: Lukas 23, 39-46.
- *Aita Patxi*: 97.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Zure urteak aurrerago eta beteago doaz? Urtez lez onegitez? Zerk ardura deusgu gehiago?
 - 2) Bizitzan aurrerago eta gaixoak, ebakuntzak, heriotzea gero eta hurrago. Bazoaz Jainkoagana zabalduten, bere eskuetan zeure burua izten?

21. Ahal danik eta ondoen, ahal danik eta gehien

Maitale zintzoa ez da inoiz nahikotuten, maitalearen alde jokatzeko orduan; bere buruaren onari bakarrik begira bizi danaren legea ezaguna da: “Ahal danik eta neke gitxien eta ahal danik eta irabazi gehien”. Bihotzeko indarrak zuzendu eta batera erabilteak neurribako ahalbideak daukaz. Egintza txiki zein haundi izan, ezkutuan zein agirian izan, danetan jarten dau bihotz osoa, borondate guztia; ez dau ezer erdipurdikorik egiten. Egiten dauanak baino gehiago balio dau horretan ipinten dauan maitasunak.

Aita Patxi borondate haundikoa zan; egitekorik gatxenak ere bere gain hartzen ebazan. Jakina, honela jokatzuten dauan batek badauka bihotz-erdian zerbait, sakonean bilatu dauana eta bizitzako ardatz bihurtu jakona: Jesus Gurutzekoaren maitasunezko misterioa. Gurutzeko San Pauloren antzera, gorputzez ezin dauanean, espirituz bizi da gurutzearen oinetan, Ama Birjina Atsekabetuaren ondoan. Horixe izan zan aurkitu eban pitxi baliotsua eta horixe beraganduten galdu eban beste guztia.

- Ebanjelioa: Mateo 13, 44-50.
- *Aita Patxi*: 17; 22; 103; 106.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Aurkitu al dozu zure bizitza osoaren ardatza dan pitxia?
 - 2) Ahal danik eta ondoen, ahal danik eta gehien. Zer deritxazu jokabide honi?

22. Parkamenaren eta errukiaren testigu


Badira gizatasun aberats helduaren ezaugarri batzuk. Punterengo bat: parkakor eta errukior izatea. Gogorkeria, harrokeria, gorrotoa, azpijokoa etabar, gehiago dira abereenak, gizakiarenak baino. Batez ere, gu kristauontzat. Gure Jainkoa Aita errukitsua da; gugana jatsi dan Jainko-Semearen jokabidea eta agindua garbia da: “Parkatu alkarri; errukior izan bata bestegaz, ez inor epaitu; zeuok alkarregaz zareen neurrikoa izango da Aita zeuokaz ere”. Espiritu Santuak eraginda dabilzanak errukiz beterik agertuten dira, errukarrienak dabez maiteenak.

Euren artean Aita Patxi. Zeu ere konturatuko zinan liburuko orrietan zehar. Bere buruagaz gogorra, baina urkoagaz biguna, errukitsua; batez ere gaixo, pekatari eta behartsuentzat. Aita Patxi euskalduna zan, maite-maite eban bere aberria, baina euskaldun ez zanik inor mindu eta gorrotatu barik. Hartutako kalteari, on eginez erantzuten eutsan. Zeuk irakurri eta aztertu eizu:

- Ebanjelioa: Mateo 18, 21-35.
- *Aita Patxi*: 66; 79.
- Hausnarketarako puntuak:
 - 1) Errukitsua eta gixajoa: Ze alde dago bien artean? Zer izateko eskatzen deutsu Jesusek?
 - 2) Aita Patxi errukitsuaren aurrean, zelan ikusten dozu zeure burua? Zetan daukazu aldatu beharra?

"JAUNA, NIK SANTU IZAN GURA DOT"

*"Jauna, nik santu izan gura dot"
hau da zure egarria,
ume-umetan bihotz-hondoan
Jaunak Berak ezarria.
Jesukristo Jaun Gurutzekoa
zure bizi-oinarria,
Nahigabetako Andra Maria
zaindari maitagarria;
gaixo ta minez dagoan nornahi
zure maite-lokarria.
Gurutza ezaugarria,
Meza indar-iturria.
Zu, Aita Patxi, aldarean nahiz
handik kanpora jarria,
ez da dudarik, gaurtik badogu
euskaldun santu barria.*



“Aurkibidea”


Zure pausoak jarraitu daizala	3	☞ Gernika sutan	36
Goratu daigun Jaungoiko Santua	4	Aita Patxi kapitan	37
Aita Patxi nekalditarra	7	Lemoatxa baino gogorrago	38
I. ATALA: NIK SANTU IZAN NAHI DOT	9	Lehenago hil!	39
Orbegoikoan ume bat jaio da	10	☞ Burdinezko gerrikoan estu	40
☞ Baserri-mutila	11	III. ATALA: AITA PATXIREN GURUTZEBIDEA	41
Buenaventura eta Benita	12	Presondegiko aingerua	42
Aita, ni pasionista noa	13	☞ Presondegiko aingerua	43
☞ Pasionista izan nahi dot	14	Zu nor zara?	44
Praileki Gabirian	15	Cardenako prisionerua	45
☞ Praileki Gabirian	16	☞ Komentuan prisioneru	46
Nik santu izan nahi dot	17	Hil neu horren lekuan	47
Angostoko baietza	18	Langileekin langile	48
☞ Angostoko baietza	19	☞ Langile Anaiekin	49
Asko ikasi, asko maitatzeko	20	Amarenak egiten	50
☞ Asko ikasi, asko maitatzeko	21	☞ Amarenak egiten	51
Bene-benetan ebilen	22	Egin-ahalak egiten	52
Aita Patxi Frantzian	23	Ama, ez dauke adarrik	53
☞ Bizi-oinarriak	24	Valdemoroko ospitalean	54
Kristo Barri	25	Carabanchel	55
Bizi-oinarriak	26	☞ Gorrien kaperau	56
II. ATALA: BAKE-GIZONA	27	Abade langilea	57
GUDA-SUTEAREN ERDIAN	27	Bizia jokatu	58
☞ Bake-gizona guda-laban	28	Gizon zakuduna	59
<i>Rebelión de la Sal</i> batailoian	29	☞ Gizon zakuduna	60
Otxandioko erasoaldia	30	Atotxan kale garbitzen	61
☞ Gudarien eleiz-zerbitzari	31	Itxaropenez	62
Gorbeiako gurutzearen aurrean	32	☞ Azkenaldiko gorabeherak	64
Ermua aldeko pagadietan	33	Txorta bete mailuki	65
☞ Gorbeatik Gernikara	34	☞ Geuk ikusi dogu	70
Gernikakougarren erdian	35		

IV. ATALA: AITA PATXI HERRI-MISIOIARI	71
☐ Barriro bere txokoan	72
San Pelitzisimo eta biak	73
☐ Guda ondorengo eleiz giroan	74
Gaixo eta zaharren ehiztari	75
☐ Dana danentzat	76
Hilabeteko gogojardunak	77
Errosarioa eskuan, Maria goguan	78
Zure zorrak neure kontu	79
Gizonarentzat da legea	80
Basurto eta Ibarrekolanda	81
☐ Gizonarentzat da legea	82
Apostolutzako atsekabe-atseginak	83
☐ Baserriz baserri	84
Eleiz osteko haize hotza	85
☐ Eleiz osteko haize hotza	87
Barriro Angostora	88
Nik erbiak habian harrapatzen ditut	89
Autostopeko prailea	90
☐ Autostopeko prailea	91
V. ATALA: MISIOIARI HAUNDI BATEN AZKENA ...	93
Azken etxez aldatzea	94
Azkenengo autostopa	95
☐ Aita, zure eskuetan	96
Basurton gaixo artean gaixo	97
Aita Patxiren hiletak	98
☐ Aita Patxiren hiletak	99
HANDIK 25 URTERA	101
Zuk jarraitu niri	103
Aita Patxi praile-prailea zan	104
Aita Patxik martiri hil nahi	106
☐ Hil eta 25 urtera	107

GEHIGARRIAK	109
J. M. Zirarda gotzainaren testigantza ...	111
☐ Agur, Aita Patxi	112
Zoro ala santu?	113
☐ Zoro ala santu?	114
Aita Patxi: gaixo, zahar eta behartsuen zaindari	115
☐ Aita Patxi: gaixo, zahar eta behartsuen zaindari	116
AITA PATXIREN ERAKUTSIAK JESUSEN JARRAI ..	119
Gurutzetik bizira	120
Jesusen lekuko	120
Burua ukatzea, salbatzea da	121
Egin bedi nigan zure nahia	121
Zerbitzea, haundi izatea	122
Maitatzea da nahiko	122
Baietzaren gizona	123
Jesukristoren antzeko	123
Ni gaixorik egon nintzan eta zuk... ..	124
Bizia jokatu	124
Kristau gudaritza	125
Andra Mariaren seme leiala	125
Arbolça bere frututik ezagutzen da ...	126
Nire uretik edango bazendu... ..	126
Gizonarentzat da legea	127
On eginaren pagua, ate-ostean palua ..	127
Apostolu baten egarria	128
Ardau barria zahagi barrietan	128
Haragia makal baina gogoia sendo	129
Ordua heldu bada, prest nago	129
Ahal danik eta ondoen, ahal danik eta gehien	130
Parkamenaren eta errukiaren testigu ..	130
“Jauna, nik santu izan gura dot”	133

norabide bilduma

ⓑ



Santu, Santu, Santua bat bakarra da: Jaungoikoa. Beste guztien santutasuna Harengandik dator, Espirituaren bidez.

Aita Patxik –beste gizon-emakume santu guztiak lez– berak ekian honen barri, beste inok baino hobeto. Zenbat eta Espirituak santuago egin, eurak orduan eta euren buruak txikiago ikusi. “Neu naz pekatarririk haundiena” dinosku bihotzez Aita Patxik.

Aita Patxi liburua doakizu eskuetara, Jaungoikoak beragan zenbat eta zelangoak egin ebazan ikusirik, zeu ere Beragana gero eta gehiago edegi zaitez, zeugan ere Jaunak gero eta miragarri haundiagoak egin daizan.

